

PARTE-HARTZE SOZIALA ETA BOLUNTARIOTZA.

**JOERA BERRIEN DIAGNOSTIKOA ETA
IDENTIFIKAZIOA, UDAL-AZTERKETA KUALITATIBO
BATETIK ABIATUTA EAE-KO HIRU EREMUTAN.**

**BOLUNTARIOTZAREN
EUSKAL KONTSEILUA**



**CONSEJO VASCO
DEL VOLUNTARIADO**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA**
Gizarte Politiketako Salburuordetza
Familia Politikarako eta Komunitate
Garapenerako Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLITICAS SOCIALES**
Viceconsejería de Políticas Sociales
Dirección de Política Familiar
y Desarrollo Comunitario

2015eko maiatza

Talde tekniko eta idazlea:

ADO2
Consultoría, investigación y coaching



Parte-hartze soziala eta Boluntariotza.

Joera berrien diagnostikoa eta
identifikazioa, udal-azterketa kualitatibo
batetik abiatuta eae-ko hiru eremutan.

Esker onak parte hartzeagatik: Albergue Beato Ozanam, AA.VV. de Saralegi "Labetxo", AGIFES, AMPA Mariturri Guraso Elkarte, AMPA Miribillako Gurasoak IGE, AMPA Zabalgana Eskola Amezti Itxaso, AMPA Zabalturri Elkarte, Arcelor Mittal, Asociación Agiantza, Asociación Comunidad Sociocultural Islámica Al Forkan, Asociación Hegoak, Asociación Vizcaína de Laringectomizados y Mutilados de la Voz, ASPACE, Atzegi-Txolarte, Bakuva, Bitartean - Asociación de Comerciantes, Bizkaia Kaleratzerik Ez, Congregación Oblatas Santísimo Redentor, EKO AGC, Etokinekin Bat, Fundación Adsis, Fundación Aldauri, Gaztaroa – Sartu, Hazi Taldea, Hirukide, Hogar Jubilados de San Francisco, Ikaslan, Asociación de Centros de FP, Kultur Bilbi, La Salle Legazpi Ikastetxea, La Salle Mendi Taldea, Mairi Emakumeen Elkarte, Munduko Medikoak – Medicos Del Mundo, Nagusilan RSPV Jubilados Voluntarios, Nuevo Futuro Familiar, Ostadar Mendi Taldea, Parroquia Santa Clara, Plataforma Sin Colegios en Miribilla, SIGI-SAGA Dantza Taldea, Solidaridad Internacional, Sortarazi, Susterra, UGLE, Umeak Kolean, UZIGE Urretxu Zumarragako JM Iparragirre Institutuko Guraso Elkarte, Zabalgana Batuz, Zabalortu, Zabalturri Elkarte, Zintzo Mintzo Elkarte.

Talde tekniko eta idazlea:



AURKIBIDEA

	<u>Or.</u>
1. SARRERA	4
2. TESTUINGURU TEORIKOA	6
3. OHAR METODOLOGIKOA	9
3.1. Ikuspuntua eta funtzioak	9
3.2. Irizpide geografikoak	10
3.3. Lan metodologia	12
3.3.1. Gizarte-ehun parte-hartzailea bilatzea. Entzute aktiboa	12
3.3.2. Online galdetegiak bidaltzea	14
3.3.3. Elkarrizketak erakundeetako eta mugimenduetako arduradunekin	15
3.3.4. Elkarrizketak eta eztabaida-taldeak boluntarioekin/parte-hartzaileekin	16
4. BOLUNTARIOTZAREN ETA PARTE-HARTZE SOZIALAREN LEHEN ARGAZKI BAT ZABALGANAN, BILBO HISTORIKOAN ETA ZUMARRAGAN/URRETXUN.	17
4.1. Zabalhana (Vitoria-Gasteiz)	17
4.2. Bilbo Historikoa (Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zazpi Kaleak)	19
4.3. Zumarraga / Urretxu (Gipuzkoa)	20
5. PARTE-HARTZEAREN DIMENTSIO PERTSONALA	22
5.1. Parte-hartzearen jatorria eta motibazioak	22
5.2. Parte-hartzearen balaztak	24
5.2.1. Erakundeez kanpoko faktoreak	25
5.2.2. Erakundeen barneko faktoreak	26
5.3. Norbere burua antzematea borondatezko parte-hartze sozialean	26
6. PARTE-HARTZEAREN ANTOLAKUNTZA	34
6.1. Formalki eratutako eta formalki eratu gabeko erakundeak	34
6.1.1. Formalki eratutako erakundeak	34
6.1.2. Formalki eratu gabeko erakundeak	36
6.2. Barneko antolakuntza moten ereduak	40
6.2.1. Maila sinkronikoa. Egitura. Antolakuntza eratzunen inguruan.	40
6.2.2. Maila diakronikoa. Eginkizunak. Koordinazioa eta lana zereginen arabera.	44
7. EREDUAK PARTE-HARTZE SOZIALEAN ETA BOLUNTARIOTZAN	50
7.1. Boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko beste modu batzuk	50
7.1.1. Boluntariotza-aniztasuna	51



7.1.2. Boluntariotza bateratua.....	52
7.1.3. Ziberboluntariotza	53
7.1.4. Ziberaktibismoa	53
7.2. Harremanen eredu berria boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko lanetan.	55
8. BOLUNTARIOTZAKO ETA PARTE-HARTZE SOZIALEKO PROFILAK ETA IDENTIFIKATUTAKO PRAKTIKA BERRIAK.	59
8.1. Adinekoak.	59
8.2. Boluntariotza teknikoa eta profesionala.	62
8.2.1. Boluntariotza korporatiboa.	63
8.2.2. Erakunde profesionalak.	65
8.2.3. Ekonomia soziala edo/eta ondare komunaren ekonomia.	66
8.3. Etorkinak	67
8.4. Erlijiozko parte-hartze soziala.	73
8.5. Aldarrikapenezko mugimendu sozial autokudeatuak.	75
8.6. Guraso-elkarteak.	77
8.7. Auzo-mugimenduak.	80
8.8 Kulturaren eta kirolaren arloko erakundeak eta taldeak.	81
9. IKT-AK ETA HAIEN ERAGINA BOLUNTARIOTZAN ETA PARTE-HARTZE SOZIALEAN	88
9.1. IKTak eta geruza digitalaren erabilera.....	88
9.2. Funtzionaltasunak.	89
9.2.1. Kanpora begirako lana. Komunikazioa eta erakartzea.....	89
9.2.2. Barnera begirako lana. Parte-hartzearen malgutasuna eta koordinazioa.	90
9.3. Ekimenen erradiografia geruza digitalean	92
9.3.1. Zabalzana (Vitoria-Gasteiz)	92
9.3.2. Bilbo Historikoa (Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zazpi Kaleak).....	93
9.3.3. Zumarraza eta Urretxu (Gipuzkoa)	95
10. ONDORIOAK	97
11. BIBLIOGRAFIA.....	101
I. ERANSKINA.- AZTERTUTAKO GUNEETAN LOKALIZATUTAKO ERAKUNDEAK, TALDEAK ETA MUGIMENDUAK	104
II. ERANSKINA. ERAKUNDE SOZIALEN GALDETEGIA	106



1. SARRERA

Txosten hau **Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak berriazko eskaera** bat egin ondoren jarri zen abian. Hain zuzen, honako hau egiteko eskaera izan zen: «Boluntariotzari eta dinamika parte-hartzaileei buruzko ikerketa. Azterketa zabal eta kualitatiboa, tokian tokiko partaidetza moduetan arreta berezia jarrita», [2013-2016 Boluntariotzaren Euskal Estrategiaren](#) 12. ekintzaren baitan, eta, era berean, [Boluntariotza Sustatzeko Estatuko Estrategiaren](#) ildo estrategikoen baitan (9. ildo estrategikoa. Parte hartzeko modu berriak. 9.5. jarduketa. Boluntariotza modu berrien aitortpena sustatzea).

Ikerketa honen **helburua**, hortaz, **bikoitza** izango da. Batetik, **ikerketa kualitatibo** bat egitea, **boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko moduen aniztasuna sakon aztertuko duena** eta **parte-hartze horren arrazoiak, garatutako funtzioak eta parte-hartzea sustatzen edo eragozten duten faktoreak** aztertuko dituena. Horretarako, gizartearen eta demografiaren, gizartearen eta ekonomiaren, nahiz gizartearen eta etxebizitzaren arloko profil desberdinak dituzten **hiru euskal udalerritako errealitatea** landuko da.

Bestetik, **boluntariotzaren eta parte-hartze sozialaren arloan praktika, profil edo formatu berriak identifikatzea** izango du xede, eta arreta berezia jarriko du Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT) boluntariotzan eta parte-hartzean izan duten garrantzian.

Jakina da «Espainian boluntariotzari buruz eskuragarri dagoen ezagutza zientifikoari dagokionez ahultasun-egoera handia dagoela. Datu gutxi egotea, bai kuantitatiboak, bai kualitatiboak, ez da Espainiaren kasuan soilik gertatzen, Europar Batasuneko herrialde gehienetan ere gertatzen da»¹.

EAEn badaude ildo horretan egindako azterketak, esaterako alde aurreko ikerketa kuantitatiboa², nola Familia Politika eta Komunitate Garapena Zuzendaritzak, hala Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak egina. Hala ere, ulertzen da **boluntariotzaren eta parte-hartze sozialaren azterketa kualitatiboen gabezia** dagoela, bereiziki **joerei, profilei, kanalei eta harreman moduei dagokienez eta udalerrien errealitateen analisi kualitatibo sakon bati dagokienez**. Helburu horiek lortze aldera, txosten hau honako kapitulu hauetan banatzen da:

Sarrera hori egin ondoren, **ikerketaren xedea testuinguruan kokatuko da labur-labur**, zer ikertuko den eta zer ez hobeto ulertzeko, **lan-esparrua kontzeptu mailara mugatuz** eta dokumentuaren berritasun nagusia eta aberastasuna dakarten «eremu grisak» landuz.

Gero, **metodologia-oharrak** garatuko ditu erabili diren **irizpide funtzionalak eta geografikoak**, eta jarraitutako **prozesu metodologikoa** aurkeztuko da, baita eragile parte-hartzaileak ere.

Laugarren kapitulu, sarrera gisa balioko duen **argazki labur** bat egingo zaie **ikerketaren xede diren hiru eremuetan** lan egiten duten **boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko erakunde eta lan arlo nagusiei**. Horrela, erduetan eta jarraibideetan aurrera egin baino lehen, eremu bakoitzeko errealitate operatiboen ikuspegi bat eduki ahal izango da.

Bosgarren kapitulu, azterketaren ikuspegi sistematizatu hori eskaintzen hasiko da; lehenengo, **parte-hartzearen dimentsio pertsonalaren** azterketa egingo da, hau da zein den haren **jatorria**, zerk bultzatzen duen eta zerk **geldiarazten** duen, eta nola **hautematen duten euren burua** boluntarioek.

Seigarren atalean, azterketa-erduetan eta -jarraibideetan sakontzen jarraituko da. Hala ere, **antolakuntzaren ikuspuntutik eta ikuspuntu sistemikotik** egingo da, eta erakundeak ikuspegi **formaletik** nahiz ikuspuntu **operatibo** sinkroniko eta diakroniko batetik aztertuko dira.

¹ Espainiako Gobernuak. 2011a.

² Eusko Jaurlaritza. 2012.



Zazpigarren kapituluan, beste urrats bat emango da zehaztapenari dagokionez, eta **gutxiago ikertutako boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko ereduak** aztertuko dira (berritasunagatik edo formatu hain tradizionala ez izateagatik, esaterako), baita garatutako **zereginen** arabera ezartzen den **harremanen eredu**a ere.

Zortzigarren atalean, **boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko profil nagusiak** aurkeztuko dira. Horiek nahikoa indartsu ematen dira aztertutako errealtateetan, eta, beraz, funtzionamendu-patroiei buruzko informazioa lortu ahal izan da; **berritzaile samarrak izan daitezkeenak txertatu dira**. Azterketaren xede izango dira, **ikuspuntu zabalago** batetik, besteak beste, adinekoen, etorkinen, erakunde teknikoaren eta profesionalen eta abarren profilak.

Eta, berritzaile samarrak esaten dugu, **sarrera honetatik bertatik aurreratzen dugulako antzemandako boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko profil, zeregin edo formatu berrien benetako pisua nahiko murriztua dela**. Gainera, horiek bereziki lotuta daude **antolakuntza modu berrietara eta harreman modu berrien garapenera**, bereziki **teknologia berrien indar eraldatzaileagatik** kudeaketan eta zuzeneko ekintzan.

Ildo horretan, gaien arloko azken kapitulua bederatzigarrena izango da. Azken kapitulu honetan, **teknologia berriek (IKT) parte-hartze soziala eta boluntariotza bultzatzean** duten eragina aztertuko da zehazki, bai barneko mailan bai kanpokoan. Gainera, aztertutako hiru eremuetako **geruza digitalean** lan egiten duten ekimenek horiek erabiltzen dituzten moduaren erradiografia txiki bat eskainiko da.

Azkenik, txostena **ondorioei buruzko kapitulu** batekin amaituko da. Atal horretan, modu sintetikoan eta operatiboan aurkeztuko dira azterketatik ateratako emaitza nagusiak, eta ikerketaren balio-elementu nagusiak azkar ulertzeko aukera emango du begirada batean.

Ez genuke sarrera hau amaitu nahi **Familia Politika eta Komunitate Garapena Zuzendaritzaren, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren eta Ado2 enpresaren aldetik eskerrak eman gabe azterketan parte hartu duten erakunde guztiei** (metodologiari buruzko kapituluan xehetasun gehiagorekin agertuko dira) eta **bereziki**, beren denborarekin txosten hau idazteko nahikoa informazio lortzea ahalbidetzeaz ez ezik, Euskadin egunero boluntariotza eta parte-hartze soziala bultzatzen duten **pertsona guztiei**.

Besteak beste, **pertsona hauei eman nahi dizkiegu eskerrak**: Adi, Adolfo, Ainhoa, Alejandro, Ascensio, David, Elena, Emiliano, Erlantz, Estibaliz, Ignacio, Iker, Iratxe, Javier, Jesús, Jesús Mari, Jon Mikel, Koldo, Leila, Leire, Lidia, Mamadou, María, Mariví, Moulay, Paola, Roberto eta Sara.



2. TESTUINGURU TEORIKOA.

Dokumentu honen sarreran aipatu bezala, txosten honen xedea da **boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko moduen aniztasuna aztertzea erabilera tradizionalan nahiz legegintza mailan** normalean erabili ohi dena baino **interpretazio zabalago batetik** (har dezagun erreferentzia gisa [17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, boluntariotzari buruzkoa](#)), baina uste dugu hobeto erantzuten diola parte-hartze sozialaren eguneroko errealitateari, [Fantovak](#) (2014) aipatzen duen «boluntariotzaren arloko zatirik arketipikoenetik eta egituratuenetik» irtenda.

Adibidez, «boluntariotza», «parte-hartze soziala» edo «lankidetz» terminoak anbiguoak dira interpretatzeko. 1999an, Nazio Batuen Erakundeak adierazi zuen «boluntariotzaren esanahia ez dela berbera guztiontzat» ([NBE, 1999](#)), herrialdearen edo sektorearen arabera ezaugarri desberdinak izendatzen zaizkiolako.

Esaterako, **libreki eta ordainsaririk gabe egin behar dela partekatu arren, konpromiso maila edo erakunde-ingurunea gehiago eztabaidatzen diren kontzeptuak dira**. Hori horrela, boluntariotza gauzatzeko erakunde formal baten bidez bideratuta egon behar izatearen edo boluntarioa izateko gutxieneko konpromiso maila bat egon behar izatearen (honek proposatzen duen moduan: [Gizarte Ekintzako Boluntariotzaren Estatuko Diagnostikoa](#), 2011) kontzeptuak ez dira aho batez interpretatzen.

Horrek hainbat autore **interpretazio «zabalez» eta interpretazio «hertsiez»** hitz egitera eraman ditu (norberak boluntariotza definitzeko edo baztertzeko berez erabili nahi dituen ezaugarrien arabera). Izan ere, [Boluntariotzari eta parte-hartze sozialari buruzko mintegi teknikoan](#) (Suso, A. / Zubero, I., 2013) jasotako moduan, «oraindik ere nahasmen analitiko eta teorikoa dago alderdi hauei buruz hitz egitean: gizarte zibila, hirugarren sektorea, asoziazionismoa, herritarren parte-hartzea, gizarte-mugimenduak, GKEak, etab.».

Halaber, **nahasmena dago parte-hartze soziala boluntariotzaren gauza bera dela edo boluntariotza parte-hartze soziala adierazten den moduetako bat dela zehazterakoan**. Gainera, boluntariotza, militantzia edo lankidetz gisako kontzeptuen inguruan desadostasunak daude. [Boluntariotzari buruzko erakunde arteko Ikerketa Lantaldeak](#) (aurrerantzean, BIL) gogoeta egin zuen duela zenbait urte boluntariotzak gizarte zibilean zeukan lekuari buruz, eta honako galdera hauek egin zituen: «boluntariotza gizarte-mugimendu bat da?» edo «boluntariotza eta militantzia gauza bera dira?».

Gogoeta hori bera jaso zuten alde zuzen aurretik beste egile batzuek ere, Zuberok (2003) edo Sousa Santosek (2011) kasu. Horiek adierazten dute militantzia eta boluntariotza edo gizarte-ehuna eta gizarte-mugimenduak logikoki baliokideak izan ez arren, boluntariotza ez dela bere horretan parte-hartze sozialeko modu bakarra partaidetzako, konpromisoko eta mobilizatzeko moduetan era askotakoa den gizarte batean, eta **parte-hartzearen aberastasuna bera «mugimenduen ezpurutasunean» egon daitekeela** (ikuspuntuen, eginkizunen eta helburuen nahasketa gisa ulertuta).

Ildo berean, Mintegi Teknikoak berak ondorioztatu zuen «ia ezinezkoa dela muga zehatzak ezartzea» eta **galdetu zuen ea benetan beharrezkoa ote den boluntariotza definitzea eta zer asmorekin** (hori aurrez aurre dago, adibidez, 2010-2014 aldirako [Boluntariotzaren Estatuko Estrategiak](#) zehazten duen premiarekin, eta horretarako, «funtsezkoa da boluntariotzaren kontzeptuari buruzko adostutako definizio batera iristea»).

Ikerketa honek mintegi teknikoaren ikuspuntuaren aldeko apustu handiagoa egiten du estatuko estrategian zehaztutakoaren aldekoa baino; hala ere, ez gara ikuspuntu orokorregian erortzen. Izan ere, Antonio Madrdek duela zenbait urte (2001) adierazitako moduan, zenbait arau-karakterizazio «hain zabalak eta anbiguoak dira [...] non bizilagunen erakunde txiki bat edo mutualitate bat edo Aurrezki Kutxa handi bat hartzen baitituzten baitan».



Orduan, **non dago erdibidea?** Zer izango litzateke eta zer ez litzateke izango txosten honen aztergaia? Bada, **Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak aurretik egindako lanaren ondorioetatik abiatuko gara, ikuspuntu zabalago baten alde eginez** interpretazio terminologikoan, eta arreta gehiago jarrita parte-hartze sozialean boluntariotzaren ikusmolde hertsian baino, [Europako Batzordeak](#) (2014) ezarritakoarekin bat etorrita; izan ere, harentzat, boluntariotza «parte-hartze sozialari hertsiki lotuta dago eta parte-hartze sozialeko lehentasunezko modu bat da».

Halaber, egiaztatu egin nahi du, eta, hala badagokio, **kualitatiboki ilustratu parte-hartze boluntarioaren joera berriekin lotzen ziren alde aurreko ikerketen** (Eusko Jaurlaritza, 2011a) **ezaugarrien eta balioen ezarpena** «*boluntariotza gauzatzeko moduetan aldaketa bat adierazten baitute (ekintzaren intentsitatean, eskaintako denboran, erakundearekin ezartzen den harremanean, konpromiso mailan etab.), ekintza puntualago edo aldizkako batek ezaugarrituta, harreman ahulagoa izanda erakundearekin, banakakoagoa dena edo beste modu batean gauzatzen dena (adibidez, ez da hain aurrez aurrekoa, ziberboluntariotzan gertatzen den bezala) edo erantzukizun gutxiago onartzen direna. Era berean, alde aurretik zehaztutako eginkizun zehatzak egitean oinarritzen den atazetan edo zerbitzuetan arreta gehiago jartzen duen boluntariotza batez hitz egin daiteke. Hori kontuan izanda, zenbaitetan, boluntariotza eginkizunarekin berarekin gehiago identifikatzen da erakundearekin berarekin baino, eta bere partaidetza edo barne-inplikazioa iraganean baino murriztagoa izan daiteke».*

Ildo horretan, eta **definizioaren lehentasunezko forma gisa boluntariotza terminoa** erabiliko den arren (termino ohikoena eta orokortuena izateagatik), **zentzu inklusiboan** egingo da, «boluntarioetan» (pluralean³) edo «boluntariotza-ekintza» (oro har) gogoan izanda. Horren arrazoiak zera da, Fantovak (2014) jasotzen duen moduan, «arlotan heterogeneoa eta nahasia dela, baina nahikoa ezagutu daitekeena».

Izan ere, **gure jolas-zelaiak erreferentzia eraginkortzat hartuko du Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak 2013an ezarritako boluntariotzaren definizioa**⁴ (eta zabaldu egingo dugu, interpretazio zabalagoa emateko, parte hartzeko modu berriak barnean sartze aldera). Hain zuzen, definizio hori [2013-2016 aldiko Boluntariotzaren Euskal Estrategian](#) agertzen da, eta hau jasotzen da:

«Boluntariotza parte-hartze sozialaren adierazpide zehatz gisa ulertzen da, interes orokorreko eta izaera solidarioko jardura sortak osatzen du, eta jardura horiek irabazi-asmorik gabeko proiektu kolektibo baten inguruko pertsonak garatzen dituzte. Partaidetza horrek askea izan behar du, eta lan-, funtzionario- edo merkataritza-harremanetara edo betebeharrak pertsonal edo juridikora lotu gabea. Boluntarioek komunitateari zerbitzua eskaintzeko egiten dute lan, eraldaketa eta guztiontzako onura bilatzen dute eta beste gizarte-eragile batzuen ekintzarentzat osagarri dira; hau da, ez da herri-administrazioen erantzukizunaren utzikeria edo zerbitzu profesionalak ez ordaintzea estaltzeko sortu».

Definizio horren arabera, boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko modu berriak, [Espainiako Gizarte Ekintzako Boluntariotzaren Egoeraren Diagnostikoak](#) (MSPSI, 2011) adierazitakoak kasu, **kanpoan geratuko lirateke, parte-hartze sozial boluntarioak hala nola boluntariotza korporatiboak edo erakunde profesionalenak, norbere sustapenerako boluntariotzak edo ziberboluntariotzak eta ziberaktibismoak** ez litzaketelako beteko definizioaren irizpideetako batzuk, mintegi teknikoak 2013an egindako lanean adierazitako moduan.

Eta, nolana ere, aurreko atalean aipatzen genuen moduan, ikerketa honen **bigarren xedea da partaidetza-joera berrien lehen argazki bat lortzea**; partaidetza horiek ez dute zertan lotuta egon forma juridiko formal bati, erabat eraikitako hirugarren sektoreko erakunde bati, jardueren aurrez aurreko garapenerari edo gutxienezko konpromiso maila bati (edo modu jakin batean egituratuari edo antolatuari).

³ Boluntariotzaren eta Parte-hartze Sozialaren Mintegian jasotako terminoa (Suso eta Zubero, 2013).

⁴ Hala ere, badaude beste definizio operatibo batzuk, hala nola Boluntariotzaren Estatuko Diagnostikokoa (2011).



Lan-ildo horretan, aldez aurreko beste bibliografia bat dago (MSPSI -2011-, Espainiako Gobernuaren -2011a, 2011b-, Aragoiko Boluntariotzaren Koordinatzailea -2012-, SIIS -2012-), eta «**joera berriak**» atalaren baitan askotariko formulazioak sartzeko joera dauka (gure ustez, **guztiak ez dira bereziki berritzaileak**, baina **bai gutxiago ikertuak**).

Gure ustez, erakundeetan sartuta ez dagoen boluntariotzak, aldizkako boluntariotzak, boluntariotza zehatzak, boluntariotza teknikoko eta profesionaleko eredu batzuek — korporatiboa barne— edo etorkinen edo adinekoen boluntariotzak **ekintza boluntarioko eta partaidetzako formatu ez hain tradizionalak osatuko lituzkete, gutxiago ikertu direnak** (eta, beraz, lekua izango dute txosten honetan, sakon aztertzeko), **nahiz eta ez dioten erantzuten zehazki berritzaileak kalifikatzaileari edo ezin diren joera berritzaileak identifikatu**; aldiz, beste adierazpen batzuk, **ziberboluntariotza edo ziberaktibismoa kasu, bai izango lirake joera berritzaileak**.

Horregatik, **lan hau kontzienteki abiatzen da ikuspuntu lauso eta zehaztugabeago batetik**, baina uste dugu hobeto hartzen duela baitan egungo parte-hartze sozial boluntarioaren errealitatea, **anbizio handiagoa dauka aztertutako errealitateetara hurbiltzeko eta ez da hain murrizgarria eta definitzailea hertsadura terminologikoan**; izan ere, baieztatzen dugu **parte-hartzearen egungo errealitateak ez duela muga zorrotzik analitikoki eta jardun etengabe bati erantzuten dio**. Jardun horretan batera aritzen dira boluntariotzako eta norbere burua antzemateko modu desberdinak.

Hortaz, [Fresno eta Tsolakis](#) (2011) egileek adierazten dutenarekin bat etorriko gara, aipatuta borondatezko ekintza ez dela agortzen «legez kodifikatutako eta administratiboki onartutako boluntariotzan», eta ez da eraginkorra «muga zurruneziak ezartzea[...] boluntariotzarekin gurutzatzen diren parte-hartze sozialeko, konpromiso hiritarreko eta ekintza solidarioko beste modu batzuekin [...]», partaidetza-esparru osoago eta integralago batean, eta, beraz, ez hain dogmatiko eta ortodoxo batean interpretazioari dagokionez.


Ez dugu jarraitu nahi gogoeta teorikoan sakontzen, aldez aurreko esperientzietan arrakastaz landua izan baita. **Boluntariotzaren Euskal Kontseilua eta Familia Politika eta Komunitate Garapena Zuzendaritza egiten ari diren lanaren jarraipen praktikoa gisa ulertu behar da lan hau**. Hortaz, dokumentu honetan aurrera egin baino lehen, gomendatzen dugu **Boluntariotzaren eta Parte-hartze Sozialaren Mintegiko (2013) ondorioak eta Boluntariotzaren Euskal Estrategia (2013-2016) berrikustea**. Izan ere, horiek azpimarratzen dute «boluntariotza egiteko moduen aniztasuna», «ekintza boluntarioa hasiera batean boluntariotza gisa hartzen ez diren parte-hartze sozialeko beste modu batzuekin lotzeko» premia eta «boluntariotzaren eta mugimendu hiritarren eta sozialen artean gaur egun dagoen loturari buruz gogoeta egitea eta hura aztertzea [...] ezer baztertu gabe eta hierarkizatu gabe». Hain zuzen, alderdi horiek osatzen dute dokumentu honen ikuspuntua.



3. OHAR METODOLOGIKOA.


3.1. Ikuspuntua eta funtzioak.

Txosten hau ikerketa-ikuspuntu zabalago batean oinarritzen denez, ulertzen dugu aurrez aurrekoa eta formala den dimentsioen azterketaren konbinaziotik eratorritako lau espazio jaso behar dituela gutxienez:



Izaera zabal eta kualitatibo horrek, era berean, alde zuzenetik egindako txostenek eta diagnostikoe⁵ adierazi dituzten joera berriak egiaztatuz aukera ematen du:

- **Boluntariotzaren arlo ez-formalak** (gizarte-ehun formalari zuzenean lotuta ez dauden boluntariotzako errealitateak eta esperientzia zehatzagoak edo esporadikoagoak ekartzen dituztenak, arautu gabea, ekimen ez-formalizatuetan eta abarretan).
- **Boluntariotzaren aurrez aurrekoak ez diren arloak** (lan eskusiboa edo partziala sare sozialen bidez, modu formalagoan –ziberboluntariotza– edo ez-formalean –ziberaktibismoa–).
- **Garatu beharreko jarduerak**, non berrorientazio funtzional hasiberria antzeman baitaitezkeen, bereziki arlo ez-formaletan eta aurrez aurrekoak ez direnetan, eginkizun hauekin, besteak beste: komunikazioa, itzulpena, *social media*, etab.



⁵ Espainiako Gobernuak. 2011a.




Hor gehituko genituzke, hortaz, alde zuzenetik sakon aztertu ez diren boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko lanak, hala nola etorkinak edo adinekoak. Halaber, hor sartuko genituzke boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko espazio gisa hartu ohi ez diren arlo berriak (gurasa-elkarteak, kirol-erakundeak, etab.); horiei buruz diagnostiko desberdinak daude gaur egun, baita kontraesankorrak ere⁶.

3.2. Irizpide geografikoak.

Ikerketaren xedeak lortzeko, betebeharrak teknikoek ezartzen duten landa-lan kualitatiboko prozesu bat egitea, Euskadiko hiru udalerririk errealitate desberdinetan jardungo zuena; hori horrela, Bilboko auzo bat, Vitoria-Gasteizko beste bat, eta Gipuzkoako tarteko mailako neurria duen udalerririk bat aztertu dira.

Betebeharrak horiei erantzuteko, planteamendu metodologikoa bat diseinatu zen, **gizartearen eta demografiaren, gizartearen eta etxebizitzaren, nahiz gizartearen eta ekonomiaren arloko errealitateak** aztertzeko; ulertzen da horiek **parte-hartze sozialeko errealitate desberdinak ere** sortuko lituzketela, eta, beraz, horiek banaka aztertzeak **ikuspegi osagarri** bat eta azterketa globalago bat ahalbidetuko lituzketela. Azkenean, Bilbo Historikoko (Bilbo Zaharra-San Frantzisko-Zazpi Kaleak), Zabalganako (Vitoria-Gasteiz) eta Zumarraga/Urretxu (Gipuzkoan) unitate geografikoko errealitateak hautatu dira, honako irizpide hauen arabera:



Bilbori dagokionez, Bilbo Historikoa aukeratu da, Zazpi Kaleak eta Bilbo Zaharra/San Frantzisko hartzen dituen (20.194 biztanle⁷), honako hau duen eremua baita:

- Gizartearen parte-hartze handia dago, erakunde eta mugimendu sozial askoren egoitza da, plan parte-hartzaile ugari garatu dira bertan eta arauzkoak ez diren mugimenduak eta erakunde profesionalizatuak elkarrekin bizi dira.
- Euskal testuinguruan, tarteko adina dago; heldu gazteak dira nagusi (biztanleriaren % 30ak baino gehiagok 25-39 urte ditu).

⁶ Aragoiko Boluntariotzaren Koordinatzailea. 2012.

⁷ Bilboko Udala. Bilbo zenbakitan. 2011.



- Etorkinen tasa handia dago, hiriaren batez bestekoa baino askoz ere handiagoa, eta kulturartekotasun-profil oso markatua dago.
- Ekimen sortzaile, artistiko eta esperimentalen ehuneko handia dago (irabazi asmoarekin edo irabazi asmorik gabe).
- Errealitate desberdinetako auzoak hartzen ditu baitan, Zazpi Kaleak eta San Frantzisko-Bilbo Zaharra kasu; horietan, esperientzia parte-hartzaileak bereizleak dira, baita ere.
- Leku horretan dago Bolunta, Bizkaiko boluntariotzaren sustapen-agentzia eta baliabideen zentroa.

Vitoria-Gasteizi dagokionez, Zabalgana auzoa hautatu da (19.101 biztanle⁸); izan ere, berriki sortua denez, osatzen ari den parte-hartze sozialeko eta boluntariotzako eredu bat aztertzeo aukera emango digu, eta aukera bat izango da sozialki eraikitzen ari den hiri-espazio bat ezagutzeko eta sortzen diren boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko moduak eta ereduak aztertzeo, bai aurrez aurrekoak/aurrez aurrekoak ez direnak, bai formalak/formalak ez direnak. Zehatz-mehatz, gune horrek honako hau du:

- Auzo gaztea da nagusiki (30,6 urteko batez bestekoa dago auzoan; hirian, 40,2koa), eta jaiotza-tasa handia dago (hiriko batez bestekoaren hirukoitza ia); eremu horretan, harremanetarako bideak eta moduak beste leku batzuekiko desberdinak dira, eta sare sozialen presentzia handiagoa dago, adibidez.
- Garraioen eta baliabideen arloan gabeziak daude (esaterako, gizarte-etxeak falta dira), eta komunitate-ehun aktiboa sortu dute, bizilagunen elkarleen bidez nahiz kasu zehatzetan *ad hoc* plataformen bidez gauzatua (aurrez aurrekoak eta online).
- Berriki sortua da, aldi berean eraikuntza asko egin da, etxebizitza babestuen ehuneko handia dago, biztanle gazteei bideratuta dago eta horien gizarte-mugimenduak osatzen ari dira, baita partaidetza-espazioak eta eragile bideratzaileak ere, hori salbuespenezkoa da konparatiboki Euskadin.
- Periferiko samarra da eta zabala, biztanle-dentsitate handiko ereduia da (Vitoria-Gasteizko batez bestekoa baino 10 handiz handiagoa), barnean heterogeneoa den hiri-osaera dauka eta gainerako hiriarekiko murrizak diren komunikazioak.

Gipuzkoari dagokionez, eta tarteko mailako tamainako udalerrri bat aurkitzeo xedearekin, **Zumarraga** (9.931 biztanle) eta **Urretxu** (6.927 biztanle) udalerriek osatzen duten hiri-konglomeratua hautatzea erabaki da⁹; hain zuzen, funtzio-eraginei dagokienez, hiri-errealitate bakar gisa funtzionatzen dute.

- Gizarte-ehunaren profilari dagokionez, nagusiki ez-profesionala da, eta tokikoa eta boluntarioa; hasiera batean, indartsua eta aktiboa, bereziki aisialdiaren, kirolaren eta kulturaren arloetan.
- Batez bestekoa baino zaharkituagoa dagoen biztanleria-piramidea dauka (biztanleriaren % 23 inguruk 65 urte edo gehiago ditu; Gipuzkoako batez bestekoa, berriz, % 19,7koa da).
- Gipuzkoako bihotzean dago, lurralde historikoko hiriburutik (56 km) nahiz Bilbotik (75 km) eta Vitoria-Gasteiztik (55 km) urrun; hortaz, berezko toki-mugimenduak egoteko aukera dago.
- Industria-izaera handia dauka eta haren osaerak, gainera, hiri-eredu oso berezia sortzen du.
- Industria-enpresa handiak daude, eta boluntariotza korporatiboko adibideak ager daitezke horietan.

Nolanahi ere, azaldu behar da udalerrietako espazio parte-hartzaileetan hiru «dastatze» kualitatibo egitean oinarritutako eredu metodologiko honek **aukera ematen duela horien gertatzen dena xehetasunez aztertzeo, baina, logikoki, beste eremu batzuetan gerta daitezkeen beste esperientzia parte-hartzaile interesgarri batzuk kanpoan geratzen dira**. Horrekin zera esan nahi dugu: txosten honek ez duela baieztatu nahi identifikatutakoa «dagoen dena» denik, eta antzeman ez diren beste eredu edo praktika interesgarri batzuk ere egon daitezke, gure arreta-gunetik kanpo daudelako.


⁸ Gasteizko Udala. 2013.

⁹ EIN. Errolda. Biztanleak udalerriko. 2012.



3.3. Lan-metodologia.

Aipatutako eremu geografikoetan adierazitako helburuak lortzeko asmoz, honako lan-metodologia hau proposatu da:



3.3.1. Gizarte-ehun parte-hartzailea bilatzea. Entzute aktiboa.

Datu-baseen eta direktorioen (udalerrikoak eta udalerriz gaindikoak) azterketa bat egin zen, hautatutako errealitate geografiko bakoitzeko mugimendu parte-hartzaileak lokalizatzeko, identifikatzeko eta kontaktatzeko. Identifikatutako erakundeen eta mugimenduen zerrenda osoa dokumentu honen I. eranskinean kontsulta daiteke.

Halaber, eta geruza digitalean presentzia duten mugimendu parte-hartzaileak antzemateko, aztertzeko eta kontaktatzeko, **entzute aktiboko prozesu** sakon bat egin zen **geruza digitalean**, gako-hitzen bidez jardueraren monitorizazio- eta entzute-sistema egituratu batean.


Internet eta sare sozialek ekintza-modu bat faboratu zuten, ez ezinbestean arautua, baina bai antolatua; modu horretan, hainbat manifestazio parte-hartzailek, aktibismoak, boluntariotzak edo militantziak kasu, antzeko ekintza-formak hartzen dituzte geruza digitalean. Interneten ez da beharrezkoa antolakuntza-egitura batekoa izatea eginkizun edo ekintza motaren bat egiteko ondasun komunaren alde. Taldeko adimenak, ezagutza-trukeari eta teknologia berrien bidez komunitateen sorkuntzari esker faboratuak, agerian uzten du pertsonak gehitzeko gaitasuna gizarte-eraldaketan eragina duten ideien eta proiektuen inguruan.

IKTak **parte-hartze sozialaren tresna eraldatzaile** nagusietako bat zirela ulertzen dugunez, ikerketa honek aztertzen dituen «parte-hartzearen eremu grisak» hartzen zituztenez eta benetako ezarpenaren diagnostiko bat ez zegoenez, **ekimen parte-hartzaileak antzemateko lan espezifiko** bat egin zen (ez ezinbestean formalak), hain zuzen, pertsona boluntarioak jarduera-eremu desberdinetan jardutera bultzatzen zituztenak; herritartasun parte-hartzaile bateko rol berri bat gauzatzeko interesa zuten pertsonak, Internetek eskaintzen dituen aukerak eta IKTek pertsonak konektatzeko erabiltzeko aruntasunaz baliatuz.


Ekimen horien antzemate-prozesua hobeto ulertzeko (horietako asko ez dira formalak edo ikusgarriak aurrez aurreko geruzan) eremu hau eskaintzen da, eta abian jarritako entzute aktiboko lana hobeto ulertzen lagunduko du.

Gako-hitzen bilaketari ekin genion boluntariotzaren jarduera monitorizatzeko geruza digitalean Bilboko, Vitoria-Gasteizko eta Zumarraga/Urretxuko eremu geografikoetan (ez dago barrutien arabera

segmentatzeko aukerarik). Horretarako, *Google Keywords Tool* tresna erabili genuen; tresna horrek erabiltzaile digitalen erabilitako gako-hitzen iradokizunak eskaintzen ditu, pertsonetara, erakundeetara eta elkarrizketetara bidera gaitzaketenak. Emaitza gisa, gako-hitzen honako zerrenda hau lortu genuen, horietako bakoitzean izandako bilaketa kopurua kontuan izanda: **Boluntariotza | Boluntario | Militantzia | Aktibismo.**



Ondoren, Googlen gako-hitz horiek EAEn 2011az geroztik gaur egun arte izandako **bilaketa-joera** aztertu genuen. Horretarako, *Google Trends* tresna erabili genuen.



Gako-hitzak eta ikerketarako hautatutako barrutiak oinarri hartuta, **jardueraren monitorizazio- eta entzute-sistema** bat egituratu genuen, terminoen konbinazio baten bidez:

- | | | |
|----------------------------------|-----------------------------------|---------------------------------|
| ✓ Bilbao La Vieja | ✓ Urretxu + Voluntario | ✓ Zumarraga + Boluntariotza |
| ✓ Zabalzana | ✓ Bilbao La Vieja + Militancia | ✓ Urretxu + Boluntariotza |
| ✓ Zumárraga | ✓ Zabalzana + Militancia | ✓ Bilbao La Vieja + Boluntarioa |
| ✓ Urretxu | ✓ Zumárraga + Militancia | ✓ Zabalzana + Boluntarioa |
| ✓ Bilbao La Vieja + Voluntariado | ✓ Urretxu + Militancia | ✓ Zumarraga + Boluntarioa |
| ✓ Zabalzana + Voluntariado | ✓ Bilbao La Vieja + Activismo | ✓ Urretxu + Boluntarioa |
| ✓ Zumárraga + Voluntariado | ✓ Zabalzana + Activismo | ✓ Bilbao La Vieja + Aktibismoa |
| ✓ Urretxu + Voluntariado | ✓ Zumárraga + Activismo | ✓ Zabalzana + Aktibismoa |
| ✓ Bilbao La Vieja + Voluntario | ✓ Urretxu + Activismo | ✓ Zumarraga + Aktibismoa |
| ✓ Zabalzana + Voluntario | ✓ Bilbao La Vieja + Boluntariotza | ✓ Urretxu + Aktibismoa |
| ✓ Zumárraga + Voluntario | ✓ Zabalzana + Boluntariotza | |



Xede horretarako **erabili ziren tresnak** hauek dira: *Google Alerts*, *Topsy*, *Social Mention* y *Hootsuite*. Sistema horrek berarekin dakar egunero 300 item inguruko monitorizazioa egitea hilabetez lan eginez eta elkarrizketak jarraituz denbora errealean.

Biografietan eta Twitter sareko erabiltzaileen izenean emandako informazioarekin bat datozen bilaketa-hitzekin lotutako **erakundeen edota pertsonen mapeoari** ekin zitaion. Lan honetarako, *SocialBro* eta *Twitter Search*. tresnak erabili dira.

Facebook, *YouTube* eta *Google + kanaletatik mapeo* bat egin dugu, bilaketa-irizpideekin bat zetozen profilak, orriak eta taldeak (irekiak eta itxiak) bilatuz. Paraleloki, erakundeen, pertsonen eta elkarrizketen artean konexioak daudela antzeman dugu, eta horiek ekimen berrietara eraman gaituzte.

Googleren bilaketa-tresnak erabili ditugu aurkitutako ekimenen identitate digitalari buruzko informazioa osatzeko (ez baitaude profesionalizatuta, eta ekosistema digital osoa ezagutzeko bilaketa desberdinak egin behar baitira).

Ondoren, **herritarrek parte hartzen duten**, mobilizazioak bultzatzen dituzten eta ikusgarritasuna sustatzen duten **foroak eta plataformak arakatzeko** ahaleginak egin ditugu. Aldaketa sozial edo legegile bat eskatzeko sinadurak biltzean oinarritutako aktibismo modu bat da. Aurkitutako eskaerak Change.org plataforman proposatzen dira.

Azkenik, **harremanetan jartzeari ekin** diogu beharrezkoak diren ekimenekin/pertsonekin, helbide elektronikoa bat helaraz diezaguten, eta horren bidez lehen harreman bat izan dezagun eta inkesta bidal diezaiagun. Lan hori gauzatzeko, komunikazio digitaleko gure kanal pertsonalak erabili ditugu.

3.3.2. Online galdetegiak bidaltzea.

Aurreko fasean egindako identifikazioaren ondoren, 100 galdetegi bidali zitzaizkien azterketa-eremuetako erakundeetara eta mugimenduei; hain justu, nahikoa aktiboak direnei eta ikerketaren helburuen eta betebeharren ildoan jarduten dutenei bidali zitzaizkien.

Erantzuna oso positiboa izan zen, batez besteko tasa % 40koa izan, eta eremuen eta jarduera-arloen arabera proportzionalki banatuta jaso ziren galdetegiak; izan ere, oro har, gizarte-ehunaren banaketa proportzionala errespetatzen du¹⁰:

Eremua	Bidalitakoak	Jasotakoak	Erantzun-tasa
Bilbo Zaharra	53	20	% 37,7
Zabalgana	22	12	% 54,5
Zumarraga/Urretxu	25	11	% 44,0
Guztira/Erantzun-tasa	100	43	% 43,0

Galdetegiari erantzun zioten erakundeak honako hauek dira (ordena alfabetikoan), eta behar bezain askotarikoak direla berresten dute (osaerari, antolakuntzari, egiturari, lan-arloari eta abarri dagokionez):

Bilbo	Vitoria-Gasteiz	Zumarraga/Urretxu
Albergue Beato Ozanam	AMPA Mariturri Guraso Elkarte	AGIFES
AMPA Miribillako Gurasoak IGE	AMPA Zabalgana Eskola Amezti Itxaso	Atzegi-Txolarte
Asociación Agiantza	AMPA Zabalturri Elkarte	Bitartean - Asociación de Comerciantes
Asociación Comunidad Sociocultural Islámica Al Forkan	ASPACE	La Salle Mendi Taldea
AA.VV. de Saralegi "Labetxo"	Hazi Taldea	La Salle Legazpi Ikastetxea
Asociación Hegoak	Hirukide	Mairi Emakumeen Elkarte
Asociación Vizcaína de	Ikaslan, Asociación de Centros de FP	Nagusilan RSPV Jubilados Voluntarios

¹⁰ Honako iturri hauek kontuan hartuta, besteak beste: Eurobarometroa (2006), Bolunta (2008), Espainiako Gobernu (2011) edo Eusko Jaurlaritza (2012).




Laringectomizados y Mutilados de la Voz		
Bakuva	Nuevo Futuro Familiar	Ostadar Mendi Taldea
EKO AGC	Parroquia Santa Clara	UGLE
Etokinekin Bat	Zabalzana Batuz	UZIGE Urretxu Zumarragako JM Iparragirre Institutuko Guraso Elkarte
Fundacion Adsis	Zabalortu	Zintzo Mintzo Elkarte
Gaztaroa - Sartu	Zabalturri Elkarte	
Munduko Medikoak – Medicos Del Mundo		
Congregación Oblatas Santísimo Redentor		
Plataforma Sin Colegios en Miribilla		
SIGI-SAGA Dantza Taldea		
Solidaridad Internacional		
Sortarazi		
Susterra		
Umeak Klean		

3.3.3. Elkarrizketak erakundeetako eta mugimenduetako arduradunekin.

Aztertutako parte-hartze sozialaren aldagaien ikuspegi sakonago bat izateko, zenbait **elkarrizketa** hitzartu ziren azterketa-eremuetako erakundeetako eta mugimenduetako **parte-hartzearen gaiaren arloko arduradunekin**.

Elkarrizketa horiekin egiturazko aldagai (aurrez aurrekoa den/ez den lana, langile profesionalak dituzten erakundeak/profesionalizatu gabeko erakundeak) nahiz aldagai espezifiko (lan arloak, parte-hartze sozialaren hautemate-ereduak) gehien estaltzeko ahalegina egin zen:



Erakundea/Mugimendua	Eremua	Bereizgarriak
Sin Colegios en Miribilla plataforma	Bilbo	Hezkuntza, Haurtzarora, Aurrez aurrekoa ez dena, Ez-formala
Al Forkan Bilboko komunitate islamikoa	Bilbo	Erijijsosoa, Militantzia, Aurrez aurrekoa, Ez-profesionalizatu
SIGI-SAGA Dantza Taldea	Bilbo	Aisialdia/Kultura, Norberaren sustapena, Ez-formala
Nazioarteko elkartasuna	Bilbo	Immigrazioa, Aurrez aurrekoa, Formala, Profesionalizatu
Etokinekin Bat	Bilbo	Immigrazioa, Aurrez aurrekoa, Formala, Boluntariotza
Aldauri Fundazioa	Bilbo	Aurrez aurrekoa, Formala, Komunitate-garapena, Formala/Ez-formala
San Frantziskoko Jubilatuen Etxea	Bilbo	Formala, Aurrez aurrekoa, Adinekoak, Ez-profesionalizatu
Bizkaia Kaleratzerik Ez	Bilbo	Ez-formala, Esku-hartzea, Ez profesionalizatu, Militantzia



Movimiento Acción Católica Diócesis	Bilbo	Erlijiosoa, Formala, Militantzia, Aurrez aurrekoa
Kultur Bilbi	Bilbo	Ez-formala, Aurrez aurrekoa/Aurrez aurrekoa ez dena, Ez-profesionalizatua, Komunitate-garapena/Kultura
Parroquia Santa Clara	Gasteiz	Erlijiosoa, Boluntariotza, Aurrez aurrekoa/Aurrez aurrekoa ez dena, Formala
Arcelor Mittal	Zumarraga/Urretxu	Boluntariotza korporatiboa, Aurrez aurrekoa, Formala, Bateratua

3.3.4. Elkarrizketak eta eztabaida-taldeak boluntarioekin/parte-hartzaileekin.

Azkenik, eta parte-hartzearen eta boluntariotzaren arloan alde zuzeneko elkarrizketen ikuspegia osatzeko (estrategikoagoa edota taldekoagoa), hainbat **elkarrizketa eta eztabaida-talde antolatu ziren boluntariotzako edota parte-hartze sozialeko lanak garatzen dituzten pertsonekin**, haien **ikuspegia, ikuspuntua eta bizipen pertsonalak** ezagutzeko asmoz.

Horretarako, eta barneko bereizgarrien dibertsifikazio-egitura berari eutsiz, honako hauek hitzartu ziren:

Bereizgarriak	Erakundea/Mugimendua	Eremua
Etorikin boluntarioak	Etorkinekin Bat / Solidaridad Internacional / Al Forkan / AMPA Miribilla	Bilbo
Boluntariotza-aniztasunaren militanteak, gizartearen eta komunitatearen arlo formalean eta ez-formalean	Coordinadora de Bilbao la Vieja / Arroces del Mundo / Bilbiko Jai Batzordea / San Fran Jai Batzordea	Bilbo
Hezkuntzaren eta haurtzararen arloko boluntarioak	AMPA Miribilla / AMPA Zabalzana	Bilbo/Vitoria-Gasteiz
Auzo-mugimenduetako boluntarioak	Bizilagunen elkarteak Zabalzana Batuz / Asociación Zabalortu	Gasteiz
Erakunde erlijioso bateko boluntarioak	Parroquia de Santa Clara / Grupo de Solidaridad / Berribide Eskaut Taldea	Gasteiz
Adineko boluntarioak	Nagusilan RSPV / San Frantzikoko Jubilatuen Etxea	Zumarraga-Urretxu/Bilbo
Boluntariotza korporatiboaren bidez edota erakunde profesionaletan parte hartzen duten pertsonak	Arcelor Mittal Fundación / Bitartean Asociación de Comerciantes	Zumarraga-Urretxu
Kirolaren eta zehazki haur-kirolaren arloko boluntarioak	Ostadar Mendi Taldea / LaSalle Mendi Taldea / CB Zumárraga	Zumarraga-Urretxu



4. BOLUNTARIOTZAREN ETA PARTE-HARTZE SOZIALAREN LEHEN ARGAZKI BAT ZABALGANAN, BILBO HISTORIKOAN ETA ZUMARRAGAN/URRETXUN.

Gizartearen eta demografiaren, gizartearen eta ekonomiaren, nahiz gizartearen eta etxebizitzaren arloko hiru errealitate desberdinetan garatutako ikerketa-prozesu kualitatibo batean oinarritzen dira funtsean txosten honen emaitzak, eta uste dugu boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko egoera osagarriak eskaintzen dituztela.

Aukeraketa horren arrazoiei eta eremu horien ezaugarriei buruzko informazio gehiago arestian azaldutako metodologiaren arloko atalean kontsulta daitezken arren, uste dugu txosten honetan geroago eskaintzen diren **eredu generikoak testuinguruan hobeto kokatzeko, hiru eremu horietako boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko errealitateen argazki labur bat aurkeztea beharrezkoa** dela.

4.1. Zabalgana (Vitoria-Gasteiz).

Zabalgana barrutian antzemandako boluntariotza eta parte-hartze soziala auzoaren beraren nortasunarekin lotuta dago zuzenean. Zabalgana eraiki berria da, ia-ia aldi berean eraikia, eta hasiera batean, ez zuen oinarritzko zerbitzurik. Era berean, bere nortasuna eraikitzen hasi den auzoa da, etxebizitza bat eskuratu duten eta familia bat osatu nahi duten gazteez osatua.

Logikoki, zerbitzuen gabezia horregatik nahiz osaera-prozesua beragatik, auzoak eboluzionatu egin du abian jarritako ekimenek lortu nahi dituzten helburuei dagokienez; **parte-hartzeko ekintza zehatzetatik** (salatzeko edo kexatzeko tresna gisa eta auzoa eraikitzearekin lotutako helburu batera eratorriz) **denboran zehar egonkorragoak diren mugimenduetara** igaroz (bereziki auzo- eta komunitate-garapenaren arloan, nahiz kulturaren eta aisialdiaren arloan).

Berriki sortutako ekimenak dira (auzoaren adinarekin bat etorrira), eta **familia- eta bizilagun-osagai garrantzitsua** dute (pisu gutxi dute gizartegintzako edo desgaitasun eta mendekotasuneko ekimenek; izan ere, auzoan horietako batzuk badauden arren, gehiago erantzuten dio egoitza baten kokapenari, eremu horretan benetan jardunean aritzeari baino). Era berean, ekimen **laikoak eta erlijiosoak** konbinatzen dira, **gazelaniaz nahiz euskaraz** eginak.

Partaidetza-ekimen ugariren artean interakzio handia dagoen eremu geografikoa da gainera, eta elkarren artean askotan aritzen dira lankidetzan. Hori gertatzen da irizpide geografiko bera duten erakundeen artean (eremu berekoak) nahiz antzeko gaien loturak dituztenen artean.

Osatzen ari den auzo oro bezala, ordea, Zabalganak hainbat ekimen izan ditu parte-hartzea dinamizatzeko (horietako asko desagertu dira jada, izan gizarte-oinarria falta zelako, izan beste batzuen baitan txertatu direlako, edo izan sortzean lotu nahi zuten helburua lortu zutelako); gaur egun, **egonkorrak eta bultzatzaileak diren parte-hartzearen dinamizazioko hiru gunez** hitz egin daiteke:

1. **Santa Clara parrokiak bultzatutako mugimenduak** erlijioaren, kulturaren, hezkuntzaren edo gizartegintzaren arloko taldeekin (talde solidarioen bidez, Cáritas, Cáritas, Berribide Eskaut Taldea, Hazi Taldea, hirugarrenei aisialdirako lokalak lagatzearen bidez...).
2. **Zabalgana Batuz erakundeak** bultzatutako ekimenak, bai zuzenean, bai beste talde batzuen sustapenaren bidez, hala nola Zabalortu edo Txorrosolo Aisialdi Taldea.
3. Auzoko hezkuntza-zentroetako **gurasoen elkarteek garatzen dituzten ekimenak**, bereziki Zabalgana eta Mariturri zentroetakoak.

Modu osagarrian, **beste ekimen batzuk** ere sortu dira **kirolaren** (CD Zabalganabide edo Ehari Lagunak), **kulturaren** (Crescendo Abesbatza) edo **gazteen** (Iñar Gazte Asanblada) arloan, eta ez dira nahitaez hiru arlo horien mendekoak.



Santa Clara parrokia.

Santa Clara parrokia 2010ean sortu zen, eta ikuspuntu ez hain ortodoxoa eta funtzionalagoa dauka hiriko beste parrokia batzuekin alderatuta. **Parrokoaren lidergotik abiatuta**, zerotik hasitako ibilbidea eraikitzen joan da, **eredu generikoetara** edo egiturari dagokionez tradizionalagoak diren antzeko beste parrokia batzuetara **gehiegi mugatu gabe**, eta hainbat partaidetza-talde sortu ditu erlijioaren, kulturaren, hezkuntzaren eta solidariotasunaren arloetan.

Beste eredu erlijioso batzuek ez bezala, parrokiak garatzen duena –eta **parte-hartzearen arrakasta** hein batean azaltzen duena, bereziki hiriko beste parrokia batzuekin alderatuta– **irekiagoa da, eta gehiago lotzen da komunitate-ekintzarekin eta -lanarekin**. Gainera, **teknologia asko erabiltzen du** (eguneroko lanerako eta jarduerak hedatzeko eta jakinarazteko) eta horrela, bizitzaren gainerako alderdiekin bateragarri egiten ahalegintzen da. Horrek aukera eman dio haren gizarte-oinarria etengabe areagotzen joateko; gainera, berez zegozkion auzoko muga geografikoak gairatu ahal izan ditu.

«Parrokia berri bat irekitzean, ez daukagu iraganik gauzak nola egin jakiteko, eta dena hasieratik hastean, ikuspuntu berri batetik eta auzora bideratutako ikuspuntu batetik egin ahal izan genuen. Bestelako dinamika bati ekin diogu. Beste auzo batzuek izandako esperientziagatik pentsatzen genuen ez zuela funtzionatuko. Nolanahi ere, igandez igande hazten joan ginen. Eta, zergatik bete da parrokia bat besteak hutsik baldin badaude? Lanerako gure gakoak askatasuna eta hurbiltasuna dira. Gune horietan libreki hitz egin eta iritzia eman daiteke. Esandakoa guri gustatu ez arren».

Zabalgana Batuz auzo-elkartea.

Zabalgana auzoak, berez, **4 auzo-elkarte izatera iritsi zen** arren, gaur egun **martxan jarraitzen duen bakarra Zabalgana Batuz da**. **Auzo berri bat hobetzearen** alde borroka egiteko eraiki zen; izan ere, etxeak entregatzen hasi ziren unean, oinarrizko zerbitzuen gabeziak larriak ziren, eta, besteak beste, asfaltatutako kaleak, argia, garraioa eta garbiketa falta ziren.

«Elkartea hutsetik hasi genuen, hona bizitzera etorri ginelako eta oinarrizko zerbitzuak falta zitzaizkigulako. Eta oinarrizko lehentasun-ordena bat eskatu genuen: argiztapena, garbiketa, garraioa... Gure ustez, gainerako hiria bezalakoa izateko gutxienekoa zen. [...] Lehenbizi hasi ginenak hasiberriak ginen. Galduta geunden. Burokraziarekin eta paperekin soilik urtebete behar izan genuen».

Elkartea aurrez aurreko topaketa informaletatik **sortu zen**, elur-bolaren sistemaren bidez, pixkanaka bizilagun berriak gehituz espazio publikoetan, kontaktu pertsonalen bidez (nahiz eta gaur egun teknologia berriak erabiltzeagatik nabarmentzen den parte-hartzea sustatzeko, proiektu boluntarioak kudeatzeko, eta jardueren berri emateko).

Egitura formala izan arren, **eredu operatibo horizontaltzat** dute beren burua; administrazio publikoaren betebeharrak betetzen dituzten arren (kargu ordezagarrien eta atxikitako pertsonen inguruan antolatzea kasu), baliabide publikoak eskuratzeko eta administrazioarekin hitz egin ahal izateko egiten dute hori.

«Karguak modu sinbolikoan hartzen ditugu. Ez dago auzo-liderrik. Elkarteko iritzia eztabaidatu egiten dira, sentikorrak direlako. Agian, bozeramaile gisa ematen dudan iritzia ez dator bat nire iritzi pertsonalarekin».

Hezkuntza-erakundeak.

Auzoan **bi ikastetxe eta horietako bakoitzaren gurasoen elkarteak** daude (Zabalgana eta Mariturri). Gainera **erakunde** bat ere badago (Zabalturri), oro har **hezkuntza-baldintza** hobekak eta beste ikastetxe bat eskatzen dituen (auzoaren hazkundera aurre egiteko) bereziki.

«Beste ikastetxe batetik etorri nintzen, eta iritsitakoan zera pentsatu nuen: hemen gauza asko egiten ditugu! Oso gustura nago».



Oro har, jarduera handia eta parte-hartze maila handia dute, nahiz eta erakunde horietako bakoitzaren jarduerak eta antolatzeko moduak desberdinak izan (arazo eta premia desberdinei egiten dietelako aurre).

4.2. Bilbo Historikoa (Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zazpi Kaleak).

Bilbo Historikoko eremuak barne-profil askotarikoa dauka (alde argiak daude Zazpi Kaleetako eta Bilbo Zaharreko edo San Frantziskoko erakundearen artean), eta litekeena da Bilboko Ibaiondo barrutiko alde hori izatea **Euskadiko osoko parte-hartze sozialeko eta boluntariotzako jarduera gehien duen eremua**, bai mugimendu kopuruari dagokionez, bai horien aniztasunari dagokionez ere.

Ekimen kopuruari dagokionez, zaila da horiek zenbatzea, **dinamismo maila handia** dela-eta proiektu parte-hartzaile berriak etengabe sortzen direlako. Barne-aniztasunari dagokionez, eremu hau mugimendu parte-hartzaile oso heterogeneoen egoitza da, helburuen arloan nahiz formaren arloan (juridikoa, erakundearena, etab.).

Geografikoki, **Zazpi Kaleak** eremuan erakunde egonkorragoak daude denborari eta barne-formari dagokionez; ibilbide luzeko gizarte-erakunde ugari daude, forma juridiko formalizatua dute eta komunitate-garapeneraren, gizartegintzaren eta haurtzaro eta familiaren arloan lan egiten dute, besteak beste. Txosten honetan parte hartu duten erakunde horien adibide egokiak dira hauek: Umeak Kanean, EKO-AGC edo Euskal Herriko Eskautak.

Aldiz, **Bilbo Zaharra eta San Frantzisko** eremuetan (eta bi auzo horietako mugimenduak elkarren artean homogeneoak izan ez arren) parte-hartzearen errealitateak erakundearen nahasketa askotarikoagoa dauka. Hori horrela, forma juridiko egonkorra duten erakundeak (ibilbide luzekoak nahiz berriagoak) eta forma juridiko ez hain formalak dituzten beste batzuk bizikide dira. Jarduera-esparruen aniztasuna ere zabala da; besteak beste, esparru hauetan egiten dute lan: desgaitasuna, haurtzaroa eta familia, aisialdia eta kultura, komunitate-garapena, etorkinak, aniztasun afektibo-sexuala edo gizartegintza eta osasuna. Adibidez (eta zatitze hermetiko gisa hartu gabe, askotan lan arloak zeharkakoak direlako eta elkarren artean nahasten direlako), honako hauek aurki ditzakegu:

- **Komunitate-garapeneraren** arloko jarduerak; hala nola Aldauri Fundazioan (San Frantziskoko eremuan) edo Federación Sustrera (Bilbo Zaharrean) erakundearen gauzatzen direnak; baita **auzo-mugimenduak** ere, Labetxo edo 48003 kasu.
- Zuzeneko **gizartegintzako** ekimenak (drogazaletasunaren, prostituzioaren, etxegabekoen eta abarren arloetan), esaterako hauenak: Federico Ozanam, Askabide, La Posada de los Abrazos, Oblatas Leño Zabalik edo Médicos del Mundo.
- **Gizartearen eta lanaren arloko eta prestakuntzaren arloko esku-hartzea**, erakunde hauetan abian jarrietako proiektuak kasu: Gaztaroa Sartu, Hardindegí de Cáritas edo Agiantza.
- **Familiaren eta hezkuntzaren** arloko esku-hartzea eta **aisialdiko eta kulturako** ekimenen garapena; esaterako, erakunde hauek lantzen dituzten arlo horiek: Fundación Bakuva, Sigi Saga, Kultur de Bilbi edo Miribillako Gurasoak.
- **Etorkinekin** (Etorkinekin Bat, Solidaridad Internacional), **gutxiengo etnikoekin** (Nevipen) edo **aniztasun afektibo-sexualaren** arloan lan egiten dutenak (Hegoak).

«Harreman handia dugu auzoko beste eragile batzuekin. Oso horizontala da hau; guztiok ezagutzen dugu elkar, eta konfiantza daukagu».

Erakundearen artean sareko lan handia egiten den eremu bat da, halaber, eta **sare orokor eta egonkorren** bidez (Coordinadora de Bilbao la Vieja kasu) nahiz proiektu zehatz jakinetarako aritzen dira lankidetzan.



Azkenik, aipatu behar da eremu geografiko honetan **teknologia asko erabiltzen** dela parte-hartze sozialerako, nola zuzeneko lanak eta barne-koordinazioa egiteko, hala jarduerak hedatzeko eta proiektuak gizarteratzeko.

4.3. Zumarraga/Urretxu.

Zumarraga eta Urretxu **bi administrazio-unitate (udalerrri) desberdin** dira, nahiz eta etxebizitza-jarraipen gisa duten osaera geografikoak **bizi- eta partaidetza-errealitate bakarra** izatea eragiten duten.

Hain zuzen, nahiz eta erakunde batzuek udalerrri jakin baten udal-lokal batean kokatu, nahiko ohikoa da ulertzea bere jarduera-eremu naturala Zumarraga eta Urretxu dela. Ildo horretan, erakunde bat, adibidez, Zumarragakoa bada eta Zumarragako udal-bitarteko batean kokatuta egon arren (Zelai Aristi kultur-etxean, esaterako), bertan parte hartzen duten pertsonak bi udalerrietakoak izan daitezke.

«Lokala hemen dugu, kultur-etxean. Baina bazkideak Zumarragakoak nahiz Urretxukoak dira».

Tokiko izaera indartsua duten erakundeak izan ohi dira, ez-profesionalizatuak, forma juridiko formal baten pean lan egiten dute eta honako jarduera-ildo hauek lantzen dituzte:

- **Desgaitasunak eta gaixotasunak.** Esparru honetan, desgaitasunen edota gaixotasunen bat duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten dute, tokiko ordezkartzen bidez (Agifes, buruko gaixotasunen arloan, edo Atzegi, adimen-urritasunaren arloan) edo eskualderako zerbitzua eskaintzen duten berezko erakundeen bidez (Urgadiel, diabetearen kasuan, edo Eiluz, desgaitasun fisikoarekin lotuta).
- **Gizartegintza.** **Gizartegintzaren arloko erakunde espezifikoek** gain (Gurutze Gorriaren tokiko ordezkartza kasu), **emakumeen** erakundeen arloko mugimenduak (Mairi, Eraldatzen) edo **adinekoen** aldeko mugimenduak (Nagusilan, Gure Txoko) ere badaude.
- **Hezkuntza** Bi udalerrietako hezkuntza-zentroak oso aktiboak dira **gurasoen elkarteei** dagokienez, hala nola: Urretxu/Zumarragako Ikastola, LaSalle edo Zurigain, Gainzuri LHko gurasoen elkartea.
- **Kultura.** Kulturaren arloa da (eta, bereziki, euskal kulturaren sustapena) ziur asko bi udalerrietako partaidetza-eremu indartsuena; erakunde eta talde asko daude, adibidez, **euskara eta euskal kultura** bultzatzeko (Zintzo Mintzo, Irrintzi Dantza Taldea, Txistularien taldeak, Bertso Eskola) eta **aisialdian** jarduteko (Xipi Aisialdi Elkartea, Goiargi Abesbatza).
- **Kirola.** Kulturarekin batera, partaidetza-eremu indartsua da bi udalerrietan, bai **lehiaketako kirolari** dagokionez (futbola, saskibaloia, eskubaloia), bai **lehiaketakoa ez den kirolari** dagokionez (arreta berezia beregaten dute **mendiko** elkarteek eta taldeek, hala nola Ostadar elkarteak edo LaSalle Mendi Taldeak).

Oro har, antzemandako sareko lana txikiagoa da, eskualdeko koordinatzaileak badauden arren (esaterako, Bidea Eginez; erakundeen lana koordinatzen ahalegintzen da eskualdeko gizartegintzaren eta desgaitasunen arloetan) edo tokiko erakundeek beren nagusiekin sareko lana egiten duten arren (Atzegi, Nagusilan, etab.).

Era berean, udalerrien tamaina dela-eta, **elkarreragin pertsonala da nagusi**, nahiz eta IKTen bidezko lana gero eta handiagoa den parte-hartzea laneko bizitzarekin, bitzita pertsonalarekin eta familiako bizitzarekin uztartu ahal izateko.



FUNTSEZKO ALDERDIEN LABURPENA.

Zabalgana (Vitoria-Gasteiz), auzo berria da (eta aldi berean eraikia). biztanle gazteek osatzen dute, eta gizarte-mugimendu eta -talde berriak sortzen ari direla ikus daiteke, batik bat komunitatearen eta bizilagunen esparruetan.

Boluntariotza eta parte-hartze soziala dinamizatzen duten hiru eragile nagusiak hauek dira: Santa Clara parrokia (partaidetzan pisua hartzen joan da azkar, komunitate-ekintzan eta-lanean oinarritutako eredu batekin eta teknologiaren aldeko apustu sendoarekin), Zabalgana Batuz auzo-elkartea (aisialdiko beste partaidetza-proiektu batzuk, hiriko baratzak eta abar babestu edo bultzatu ditu) eta hezkuntza-erakundeak (Zabalgana eta Mariturri ikastetxeetako gurasoen elkarteak eta Zabaliturri erakundeak); azken horiek hezkuntza-baldintzak hobetzeko lan egiten dute (auzoko azpiegiturak ere baitan hartuta).

Bilbo Historikoan (Bilboko auzo zaharrenak hartzen dituen errealitate geografikoa, hau da, Zazpi Kaleak, San Frantzisko eta Bilbo Zaharra) erakunde tradizionalak eta gizarte-mugimendu sortzaileenak eta deszentralizatuenak bizi dira elkarrekin.

Zazpi Kaletako erakundeen profilak (egonkorragoak diren erakundeak daude bertan, eta gizartegintzara eta komunitate-garapenera bideratuta daude, nagusiki) bestelakoak dira Bilbo Zaharrekoekin eta San Frantziskokoekin alderatuta; azken horietan, erakundeen nahasketa askotarikoagoa da (adinaren, formatuaren, orientazioaren eta abarren arloetan oso bestelako erakundeak). Eremu horretan, honako arlo hauetan jarduten duten erakundeak daude: komunitate-garapena, gizartegintza, gizarteratzea eta prestakuntza, etorkinak, aniztasun afektibo-sexuala, gutxiengo etnikoak edo familia, haurtzarora eta hezkuntza.

Zumarraga eta Urretxu, Gipuzkoako tarteko tamainako bi udalerrri dira, eta benetako ondorioetarako biztanle-errealitate bakar gisa funtzionatzen dute; eremu horretan, tokiko erakundeak jarduten dira nagusiki, eta ez-profesionalizatuak.

Erakundeen lan arlo nagusiak gizartegintza, desgaitasuna, kirola, kultura (bereziki, euskal kulturaren sustapena) eta herritarren partaidetzako ekimenak dira.



5. PARTE-HARTZE SOZIALAREN ETA BOLUNTARIOTZAREN DIMENTSIO PERTSONALA.

Parte-hartze sozialak eta boluntariotzak hainbat kausa eta motibaziori erantzuten diete, eta, era berean, bizi-ibilbide desberdinetatik sortzen dira. Halaber, partaidetzaren balaztak eta zailtasunak ere askotarikoak dira.

Atal honetan, dimentsio pertsonalago bati eta bizitza ulertzeko modu bati erantzuten dioten alderdien (esaterako, jatorriak, motibazioak, zailtasunak eta norbere burua antzematea) ohiko jarraibideak multzokatzen ahaleginduko gara.

5.1. Parte-hartzearen jatorria eta motibazioak.

Eskuarki, boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko lanak egiten dituzten pertsona guztiak bi jarraibide orokor partekatzen dituztela antzeman da:

- Batetik, **bizitzaren aurrean jarrera geldiezina duten pertsonak** daude, eta boluntariotzako edo parte-hartze sozialeko lanak egitean islatzeaz gain, **bizitza pertsonaleko eta laneko bizitzako arlo guztietan pertsona aktiboak izan ohi dira**.

«Egia esan, nire lagun-taldean jarrera hori partekatzen dugu, laguntzekoa. Horrela gara guztiok, guztiok parte hartzen dugu ekimenetan eta boluntarioak gara».

- Bestetik, **ez da lehenengo partaidetza-esperientzia izaten**, jarduera boluntarioetan **etengabe** parte hartzen dute baizik, beren existentzian beti agertzen den elementu bat da. Bizi-etaparen arabera, jarduera batean edo bestean parte hartuko dute, baina beti daude partaidetza-dinamikaren batean murgilduta; izan ere, **bizitza ulertzeko duten moduaren baitakoa** da.

«Egia esan, ez naiz gogoratzen nola iritsi nintzen boluntario izatera. Prozesu naturala izan zen».

«Beste talde batzuetatik gatoz asko. Bat uzten duzunean, beste batean hartzen duzu parte. Norberaren ezinegona da. Hori ez duenak, ez zen mugituko eta ez da mugituko».

Gehiago sakonduz, motibazioak arrazoi pertsonalen eta komunitate-arrazoiaren arabera sailkatzen direla aurkitu dugu. Chacón, F; Pérez, T; Vecina, M. (2011) egileen terminoak erabiliz, esan dezakegu ekintza boluntarioa «askotariko arrazoiengatik egin daitekeela, batzuk heterozentratuak (altruista) dira eta besteak, autozentratuak (egoistak), edo bien nahasketa bat ere izan daiteke».

Askotarikoak izan arren, **taldeko izaerako motibazioak hiru multzo** nagusitan sailka daitezke, nahiz eta, egia esan, elkarren artean **hertsiki lotuta** dauden, gizartea hobetzen dutelako:

- Lehenik, **gizartea aldatzeko bokazioa eta gaitasuna**. Boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko lanak egiten dituzten pertsonak gizarte-aldaketa bat babesten ahalegintzen dira, bai maila generikoan, bai komunitate zehatzago baten mailan.

Gaien arloko harremanak dira (talde jakin bati laguntzea), edo geografikoak (auzo bat hobetzeko lan egitea), eta arrazoiak honako hauekin lotuta daude: «**gizarte-eredu desberdin baten alde egitea**», «**mitoak eta estereotipoak aldatzea**», «**zenbait gauza aldatzeko gaitasuna izatea**» eta abar.

«Badaude gauza txikiak, sari txikiak, lorpen txikiak, eta horiek bultzatzen zaituzte aurrera egiten jarraitzera, eta, berez, lan egitearen eta ahalegintzearen prozesuak berak eta lan egiten duten eta ahalegintzen diren beste pertsona batzuekin egoteak merezi du».



- Bigarren, **gizarteari ekarpenen bat egiteko aukera** dago, talde jakin baten bizi-baldintzak hobetzearen bidez. Ildo horretan, pertsona bakoitzak hurbil duen talde edo kokapen bat hartzen du ardatz, bizi den lekuagatik edo harreman afektiboak izateagatik.

Adibidez, ohiko da lotzea auzo jakin batekoa izateagatik edo talde bati lagundu nahi izateagatik harekin zuzenean harreman emozionala edukitzeagatik (edo zuzenean senitarteko bat izateagatik), edo egoera jakin bat bizitzeagatik (etorkinak, adinekoak, ohikoa den gizarte-arazo bat, gaixotasun jakin bat duen senitarteko bat izatea, seme-alabak inplikaturik egotea, etab.).

Halaber, azpimarragarria da faktore gisa **bokazio erlijiosoa**, norberaren sinesmena gorabehera (erakunde kristau katolikoak eta musulmanak aztertu dira), balioen bidez komunitateari laguntzea eta beste pertsona batzuen bizi-kalitatea hobetzeko ekintzak garatzea bultzatzen duena, erlijio-erakundearekin lotutako egituren bidez (hezkuntza aisialdian, parrokiako gizarte-ekintzako taldeak, meskitako kultur-jardueren arloko taldeak eta abar).

«Jendeak katolizismotik dakiena estrapolatzen du eta Islamerako onartzen du. Horregatik ez dute ulertzen gizartearen, kulturaren, hezkuntzaren, familia-bitartekaritzaren eta abarren arloetan egiten ditugun jarduerak; gure kasuan, erlijioaren zatiak ez du gure lanaren % 1 ere hartzen».

«Nire kasuan, hamabost urtetatik markatu nauena (eta orain, berrogeita hamabost ditut) txikitatik ikasi nuen aisialdiko hezkuntza da; orduan ikasi nuen konpromisoa zer den».

- Hirugarren, partekatutako **zenbait balio defendatzen dituen erakundea** izatea eta funtzionamendu ona izatea izan ohi da parte hartzeko hirugarren arrazoiak, eta honelako arrazoiengatik: *«hazi egiten zaituen gizarte-erakunde bat garatzen laguntzea», «erakunde jakin baten lan-helburuekin konpromisoa eta lotura izatea», edo soilik «proiektu batean sinestea eta harengan ilusioa izatea» edo «erakundeak funtzionatu egiten du eta horrek jendea erakartzen du».*

Bokazio altruista duten ekimenak izan arren, horiek guztiek norberaren bokazioa dute hein batean; izan ere, modu batean edo bestean, pertsona boluntarioaren egoera hobetzean eragina dute. Nolanahi ere, **norberaren motibazioekin** zerikusi handiagoa duten arrazoiak ere badaude, norberaren ongizatea sortzen dutenak edota pertsonarentzat onura zuzenak ekartzen dituztenak ekintza boluntarioaren bidez:

- Alde batetik, **gizarte-aitorpeneko** motibazioak daude; udalerrri edo auzo jakin batean edo talde batekin garatutako lanagatik **komunitatearen balioespen handiagoa** izateak *«baloratuak sentiarazten dituzte.»*

«Ilgandean 80 pertsona atera eta haiei ezer ez gertatzearen arduraduna zara. Eta hori nabaritu egiten da kalean zoazenean; gazteek beste modu batera begiratzen zaituzte, jendeak agurtu egiten zaitu, eskerrak ematen dizkizu...».

- Bestalde, ekintza boluntarioak berak **ongizatearen sentimendu pertsonal** bat sortzen du, *«baliagarri eta aktibo sentitzearekin», «gauza gehiago ikastearekin» edo soilik «eguna amaitzean ondo sentitzearekin» lotuta.*

«Lana aitortzen dizutenean eta eskertzen dizutenean, norbera geratzen da gustura».

- Gainera, **integrazio-sentimendu handiagoa** izaten laguntzen du eta **babesa ematen du bakardadearen aurrean**. Zentzu horretan, boluntarioek honako motibazio hauek aipatzen dituzte: *«gauzak partekatzea», «giro ona izatea», «esperientzia berriak bizitzea», «integratuago sentitzea» edo «boluntariotza egitea ez hain bakarrik sentitzeko».*

«Batzuetan, boluntarioa sentitzen da bakarrik. Eta jendearen egoteko etortzen da».



«Oreka oso ona eta harreman ona ditugu hemen. Talde oso ona egin dugu. Horri esker, lana aurrera eraman dezakegu».

- Azkenik, **parte-hartze sozialetik lortzen diren norberaren onura zuzenak** azpimarratu behar dira, **eta elementu profesionalei nahiz pertsonalei eragin diezaieketenak**. Ildo horretan, bizilagun gisa antzemandako onurak edo esperientzia profesional handiagoa lortzea (ikasketekin lotutako ekintza boluntarioak egiten dituzten pertsonen artean) nabarmen daitezke.

Boluntariotzaren interpretazio zorrotzago baten arabera, baliteke parte-hartze sozialeko modu gisa ez hartzea, irizpide ortodoxoenetako batzuk ez dituztelako betetzen, Boluntariotzaren eta Parte-hartze Sozialaren Mintegiaren ondorioetan jasotako moduan¹¹.

Horren jakitun dira gizarte-erakundeak, eta boluntariotza gisa hartzen dituzten arren, *sui-generis* antzekoagoa den ekintza boluntarioarekin lotzen dute; izan ere, gehiago lotzen da praktikekin, onura sozialen konpentsazio-programekin eta abarrekin.

«Zenbait jendek praktikak egiten ditu, harrapatuta geratzen da eta geratu egiten da; beste batzuk, berriz, praktikak bukatu eta ez dira gehiago agertzen».

«Guk boluntario gisa zenbatzen ditugu, adibidez, gizarte-programaren baten ondorioz komunitate-lanak egitera datozen pertsonak. Nahiz eta boluntariotza hori partikularragoa izan, egia esan».

Antzeman daitekeen moduan, **ikerketa honetan identifikatutako motibazioak ez dira, gainera, alde aurretik aurreko diagnostikoez antzeman zituztenen oso bestelakoak**. Hori horrela, Bolunta (2008), Fundación Castellano Manchega de Cooperación (2010) edo, berrikiago, Observatorio del Voluntariado (2013) erakundeek egindako ikerketek antzeko erantzunak lortu zituzten. Esaterako, Bizkaian gizarte-baliagarritasuna, norberaren asebetetzea, norberaren aberastea edo gizarte-hobekuntza ziren, baita ere, gehien emandako arrazoiak. Irizpide geografikoa alde batera utzita, estatu mailako patrioiak ere hemen antzemandakoekin lerrotatuta daude, eta argudio hauek bat datoz: «baliagarri sentitzea», «norberaren asebetetzea», «motibazio erlijiosoak», «jende berria ezagutzeko aukera», «sistema bat eraldatzeko aukera» edo «lagundu beharreko taldearekin identifikatzea».

5.2. Parte-hartzearen balaztak.

Aldez aurreko ikerketek (Vecina eta Chacón -2005-, Dávila -2008-, Eusko Jaurlaritza 2012-) jakinarazi zituzten EAEn borondatezko parte-hartze sozialean motibazioa galarazten duten elementuak zein ziren; txosten honetan ere antzeman dira, eta bi motatakoak dira ohikoenak.

- Batetik, **erakundeez kanpoko arrazoiak** daude eta garrantzitsuenak dira, alde handiarekin. **Bizitza pertsonala, familiakoa edo lanekoa aldatzeagatik ordutegi-bateraezintasunarekin** lotutakoak dira («bateraezintasuna ikasketekin edo lanarekin», «denbora-falta» edo «aldaketak egoera pertsonalean»).
- Bestetik, eta ez hein hain handian, **erakundean bertan izandako parte-hartzearekin berarekin** lotutako **barne-arrazoiak** daude («erakundean nire etapa amaitu zela sentitzen nuen», «nekatuta nengoen erakundean horrenbeste urte igarotzeagatik», «ez nengoen ados erakundeko zenbait alderdirekin»), eta, era berean, txandakatzeko-faltarekin, lan gehiegi egiteagatik nazkatzea edo ikuspuntu- eta jarduera-irizpideetan aldeak izatearekin lotutakoak.

Ikerketa honek, kualitatiboa denez, arrazoi horietan gehiago sakontzea ahalbidetu du, eta beste arrazoi batzuk identifikatzeko aukera ere eman du:

¹¹ Suso / Zubero. 2013.



5.2.1. Erakundeek kanpoko faktoreak.

Erakundeekiko exogenoak diren faktoreei dagokienez, aurreko ikerketa batzuetan adierazitako moduan –Dávila de León (2005), Bolunta (2008) edo Eusko Jaurlaritza (2012)– bizitzaren bilakaeraren ondoriozko **denbora-falta** da parte hartzeko zailtasun gisa baliatutako faktore nagusia, zalantzarik gabe.

Lanaren arloko arrazoiak (ordutegi luzeak, jardunaldi trinkoak, lan-prekarietatea ordutegi ezegonkorrekin, lan-mugikortasun etengabea) nahiz **arrazoi pertsonalak** (seme-alabak izatea, mendeko senitartekoak zaindu behar izatea) agertzen dira beti lehenengo argumentuen artean.

«Boluntariotza mota hori asko gustatzen zitzaidan eta gozatu egiten nuen, baina orain ezin dut egin».

Hala ere, **faktore berriak** argi eta garbi identifikatu dira, eta ikerketan parte hartu duten pertsonen askotan eta indar handiarekin aipatzen dituzte:

Hasteko, **konpromisorik ez duen gizarte** baten ideia sortu da nabarmen, eta jendeak ez du erantzukizuneko kargurik onartu nahi. Ideia horri eusten zaio nabarmen txosten honetan, erakundeen osasunetik bertatik eratorritakoagatik.

«Zenbait pertsonak konpromiso handiagoo hartzen du, eta beste batzuek berea egiten dute, eta arazoa konpondu ondoren, desagertu egiten dira».

«Zenbait jendek praktikak egiten ditu, harrapatuta geratzen da eta geratu egiten da; beste batzuk, berriz, praktikak bukatu eta ez dira gehiago agertzen».

Bigarren, **Administrazioaren papera bera** agertzen da parte-hartzearen sustapenean. Erakunde askok uste dute gehiegizko administrazio-izapideek erakundeak desbideratzen dituztela beren xede nagusitik eta lana gogaikarriagoa eta ez hain interesgarria izatea eragiten dutela (zuzenean jarduteko gaitasunean ez ezik, boluntariotzako lanetan ere eragiten dute)¹².

«Paperak eta administrazioaren oztupoak dira parte-hartzean gehien neka zaitzakeen alderdia. Horregatik, garrantzitsua da talde indartsua izatea; bestela, egun txar batean dena utz dezakezu».

Gainera, uste dute funts publikoen murrizketa nabarmena dagoela parte-hartzea bultzatzeko, eta partaidetzarako diru-laguntzak murriztu egin direla. Gainera, zuzenean arlo publikoan egin beharko liratekeen lanak boluntariotzako erakundeek eurak egiteko ahaleginak daude (bai zuzeneko jardueren bidez edo lizitazio publikoaren bidez).

«Orain, krisiarekin boluntariotza baliatzen da lehen jendeari ordainduz egiten ziren lanak egiteko. Eta ez dira lana eta boluntariotza nahasi behar. Boluntariotzarekin diruz lagundu daitezkeen gauzak ateratzea. Boluntariotza oso ondo dago, baina ez da hortaz abusatu behar».

Azkenik, uste da erakundeek, taldeek eta gizarte-mugimenduek egiten duten paperaren **aitortza publiko eta gizartearen aitortza bat falta** dela, eta egitura murrizteko eta gizarte-oinarri ahuleko erakundeetan amore emanarazi dezake horrek.

«Xedea da auzoaren parte-hartzea eta lankidetzeta izatea. Aitortzen ez badizute ere, zuk badakizu egin duzula eta zuk lortu izanaren asebetetzea duzu».

¹² Hala ere, azaldu behar dugu boluntariotza eta parte-hartzea bultzatzen duten erakundeek eta taldeek adierazitakoa gorabehera, izapide horiek ez dietela erantzuten zuzenean parte-hartze sozialeko jardueren antolakuntzari, batez ere Administrazioarekin normalean ezartzen den harreman-ereduari baizik, parte-hartzea sustatzeko diru-laguntzen funtsetara jotzean. Gainera, hori soilik eragozlea da erantzukizun handiagoko partaidetza profiletarako, horiek arduratzen baitira eskaerak eta justifikazioak egiteaz. Hau da, «paperetatik» eratorritako elementu eragozleak ez die eragiten erakunde guztiei, ezta erakundeeko pertsona guztiei ere; aldi, funts publikoetara sartzen diren eta horiek kudeatzen dituzten profilei soilik eragiten diete.



5.2.2. Erakundeen barneko faktoreak.

Aurreko ikerketetan aipatutako arrazoiekin lotuta (nekea, motibazioa galtzea, desadostasunak) arlo honetan argiago identifikatu da txandakatze- eta konpromiso-faltaren ondoriozko nekea (arestian aipatutakoarekin hertsiki lotuta dago). Nolanahi ere, erakundeen funtzionamenduarenak berarenak diren motibazioa galtzeko faktoreak ere antzeman dira:

Hasteko, **erakundeen euren barneko eta kanpoko komunikazioa hobetzea**, beren lanean leku nagusia hartzen ez duena. Horren ondorioz, komunitateak ez ditu ezagutzen egiten dituzten jardueretako asko, eta ez dute pertsona berriak erakartzeko gaitasunik (antolakuntza-txandakatzea bera zailtzen du horrek).

«Ekitaldi batera joaten naizenean, jende berarekin aurkitu ohi naiz beti, aurpegi berberekin. Eta jada sentsibilizatutako jendea gara guztiok. Jende berria etortzea da gure nahia. Eta ez dakit nola alda genezakeen hau».

Ildo horretan, erakundeek eurek onartzen dute **tresna digital berriek indar handia** dutela (sare sozialak, web orriak, etab.) pertsona berrietara iristeko bitarteko gisa (bereziki, gaztetara), nahiz eta baliabiderik ez dutela baieztatzen duten (denboraren eta gaitasunen arloan) komunikazio hori zuzen bideratzeko.

«Askotan, ez dakizu ondokoak zer egiten duen. Niri gertatu zait jendearekin denbora luzez lankidetzan aritzea eta, egian esan, ez dakizu oso ondo zer egiten duen. Lanaren dinamikak berak eragozten dizu egiten dena ezagutzea».

Bestalde, erakunde askotan jakitun dira **boluntarioei lagun egitea falta dela, eta ez dago protokolo argirik horiek txertatzea errazteko**. Horrek eragina du bereziki baliabide tekniko edo sozial gutxiago dituzten pertsonengan (etorkinak edo adinekoak kasu), eta adibidez, erabiltzailea izatetik boluntarioa izateko jauzian motibazioa galtzen duten barneko balaztak eta beldurrak sortzen dira.

«Askotan, iristen direnei nahikoa ez laguntzea izan daiteke akatsa. Pertsona hori estututa senti daiteke. Bilerak motelagoa izan beharko du; denbora inbertitu behar da pertsonari terminoak azaltzen, eta ez da jo behar dena ziurtzat».

Ildo horretan, **boluntarioei harrera egiteko prozesuen eta protokoloen garapenerako prestakuntzak** egituratzea garatu beharreko espazio bat izan daiteke Boluntariotzaren Euskal Estrategiak (Eusko Jaurlaritza, 2013) prestakuntzaren ildoan jasotzen duenaren baitan.

5.3. Norbere burua antzematea borondatezko parte-hartze sozialean.

Oro har, **norberaren burua antzematea ez da interes berezia duen kontzeptua parte-hartze sozial boluntarioa egiten duten pertsonentzat**; ekintzarekin gehiago identifikatzen baitira gogoeta teorikoarekin baino (ohiko da elkarrizketetan eta lantaldeetan honelako adierazpenak aurkitzea: «inoiz ez dut izen hori entzun», «inoiz ez dut izendatu egiten duguna» edo «ez daukagu titulitistik»). Bestela esanda, **elementu loteslea «egitea» da, eta ez horrenbeste «zer den pentsatzea».**

«Urratsa eman genuen ikusi genuelako asko hitz egiten zela eta oso gutxi egiten zela. Eta ekintzara jo nahi genuen».

Hori **ohikoagoa da ideologiarekin zerikusi gutxiago duten erakundeetan** (adibidez, kulturakoak, kiroltakoak, hezkuntzakoak) eta **bereziki, parte-hartze sozialaren eta boluntariotzaren periferikoenak diren eraztunetan** (6.3.1 puntuan aurkezten direnen arabera); kasu horietan, lotura emozionalak, **oro**



har, egindako lanekin eta zerbitzua eskaintzen den taldearekin **zerikusi handiagoa dauka** abstraktuagoak edo ez hain abstraktuak diren gogoeta teorikoekin eta eztabaida ideologikoekin baino.

Hori horrela, **galdera bat utz dezakegu airean** (ildo berean dago testuinguru metodologikoan adierazitakoa terminoak desberdintzeko edo banatze eta sailkapen baztertzailak ez eraikitzeko benetako premiei buruz) **sailkapenen benetako garrantziari eta horien inguruko eztabaidei buruz**, bereziki belaunaldi berrien eta parte-hartze sozialeko eta boluntariotzako profil berrien artean.

Aitzitik, **beste pertsona batzuek** (bereziki, **konpromiso maila handiena duten mailetan**) **egiten dute gogoeta hori**, bai **positiboan** (identifikatuta dute nola antzematen duten euren burua), bai **negatiboan** (badakite nola ez duten identifikatuak izan nahi). Hots, batzuetan beren partaidetza-egoerarekin zer termino lotu oso argi ez dakiten arren, argi dute nola ez duten nahi deituak izan.

«Ni ez naiz boluntario gisa sentitzen, konpromisoa dudala sentitzen dut. Nire bizitzan konpromisoa deitzen den zerbait dago, eta nire bizitzaren zati da hau».

Azterketa-eremua irekitzean, aztertutako errealitateetan norbere burua ikusteko aukera zabala dago. Horiek gehiago argitzeko eta horiek identifikatzea eta alderatzea ahalbidetzeko zenbait ezaugarriekin lotzean, sakabanatze-grafiko bat diseinatu da hiru aldagairen inguruan.


Lehenengo bi aldagaiek pertsonak jarduera boluntarioarekin duten **konpromisoaren kontzeptua deskonposatuko lukete**. **Hirugarrenak**, aztertutako **partaidetza-ekosistemetan** norbere burua antzemateko modu horrek duen **garrantzia erakutsiko luke**.

- **Hasteko, parte-hartzearen lotura bizitza pertsonalarekin**. Hau da, parte-hartzearen dimentsioak zer integrazio maila duen (edo, hala badagokio, desagregazioa) bizitzako gainerako lanei, funtzioei eta erantzukizunei dagokienez.
- **Bigarren, parte-hartzearen intentsitatea eta erabilgarritasuna**. Hots, denboraren zer ehuneko baliatzen duten parte-hartzerako eta zer ordena duen horrek beren lanetan.
- **Hirugarren, norberaren burua antzemateko modu horiek zer maiztasunekin ematen diren**, ohikoak edo salbuespenekoak diren ikuste aldera. Horretarako, tamaina eta kolorea landu dira (zirkunferentzia handiagoak eta ilunagoak izango dira norbere burua izendatzeko ohikoenak).

Egindako analisi kualitatiboak aukera eman du **pertsonak nagusiki militantzia, boluntariotza edo lankidetzaren terminoak erabiltzen dituztela**, eta **bigarren mailan** agertzen dira (askoz ere gutxiago) **aldaketaren aktibista edo eragile/ gizarte-aldaketaren eragile** gisako terminoak. Azkenik, izendapen bereziagoak eta eskas erabilitakoak daude, hala nola animatzaile, zale edo partaide; horiek funtsean konpromiso murriztuko mailekin lotuta daude, grafiko honetan ikus daitekeen moduan.

2010ean, BILEk gogoeta egin zuen **boluntariotzaren eta militantziaren arteko aldeei** buruz eta asoziazionismoari edo gizarte-mugimendu berriei dagokienez termino horietako bakoitzak zeukan zerikusi zehatzari buruz. Beste egile asko alde aurretik boluntariotza eta militantzia kontzeptu baliokideak ziren edo horien artean zer alde zeuden zehazten ahalegindu ziren. Aldiz, kolaboratzaile, aktibista edo aldaketarako (soziala) eragile bezalako kontzeptuak ez dira hainbeste aztertu eta zehaztu garrantzia txikia izateagatik.

Ikerketa honetan aztertutako errealitateen kasu zehatzean, **egindako diagnostiko kualitatiboak aukera ematen digu identifikatzeko bai** norbere burua antzematearekin lotuta **izendapen horietako bakoitzak duen pisu zehatza**, bai ekintza boluntarioak egiten dituzten pertsonak izendatzen dituzten **ezaugarri espeziifikoetako zenbait**.



Militantziaren figura.

Ikerketa honetan kontsultatuko pertsonen gogoeten arabera, **militantzia gehieneko maila izango litzateke konpromisoari dagokionez, bizitza pertsonalarekin lotuago egoteagatik eta arduraldian intentsitate eta prestutasun handiagoa izateagatik.**

«Zerbait aldatzeko inplikatzan naizenean militantzia dela uste dut. Adibidez, agian ez zait iruditzen ostiral arratsalde bateko plan onena bilera batean egotea ekintza bat egiteko, baina ekintza hori egiteko eta gauzak aldatzeko beharrezkoa da».

Militanteak konpromiso handieneko antolakuntza-espazioetan eta taldeko espazioetan aurkitzen dira (6.2.1 atalean ikusiko den moduan), eta ohikoa da **erantzukizun maila handiagoak** hartzen dituztenetan, egiturazko lanetan (eguneroko kudeaketa) nahiz lan zehatzetan (ekintzak eta jarduerak). Eskuarki, militanteak «gurdia bultzatzen duten» pertsona gisa ikusten dira.

«Militantzia eta boluntariotza desberdinak dira... ezin da esan mugimendurik ez nauela betetzen, ez dit balio. Baina zer galdetu behar diozu zeure buruari: zer egiten duzu zuk mugimenduren alde? Zer ematen diozu mugimenduari? Parte hartzen duzu? Parte hartzeko espazioetara joaten zara?».

Konpromiso hori **mugimenduari, erakundeari edo taldeari dagokionez erabat identifikatzearekin** ere gauzatzen da. Lotura estua dago jarduerarekin, **barneko partaide izatearen sentsazio sakona** dago; eta horren bidez, **militantea mugimendua da** eta alderantziz; erakundea da haren militantzia. Funtsezko aldea dago boluntariotzarekin, eta militanteek kanpokoagoak diren lankidetzeta-balio batzuekin lotzen dituzte, «kanpotik».

«Militanteentzat, boluntarioak kanpotik hartzen du parte erakundean. Aldiz, militanteak barruagotik hartzen du parte. Mugimendua zuk osatzen duzu, ez duzu uzten beste batzuek mugimendua egiten zure orde. Ez gara bazkideak dituen GKE bat bezala, jendea boluntario edo bazkide gisa alta ematera etortzen dena kanpotik».

Norbere buruaren antzemate horren ildoan dago Soso eta Zubero (2013) egileek konpromisoari buruz egiten zuten definizioa; haiek zera adierazi dute: «daukagun zerbait da [...] identifikatzen gaituena, gure nortasunaren funtsezko zatia da: garen zerbait da».



Hori militantzia zehazten duen beste ezaugarri batean ere gauzatzen da, eta **parte-hartze sozialari eskainitako orduak ez zenbatzearekin** lotuta dago; izan ere, beren bizitzako zati integrala dira eta ez dira bereizitako jarduerak gisa ikusten. Kasu horietan guztietan, militanteek ez zuten eskainitako orduen zenbaketarik, bizitzaren continuumaren baitan baitago.

«Militantzia honetan parte hartzen duzula da eta hori egin nahi duzula, eta berdin zaizu zure ordutegiz kanpo egotea».

«Ez dakit orduak kalkulatzeko. Ez ditut kontatzen. Denbora eskaintzen badiozu GKE bati, badakizu zenbat den. Astean bi ordu, edo dena delakoa. Hau ez da horrela, konpromisoa da».

Era berean, onartzen da **militantea hor dagoela edozein baldintzatan**, baita unerik zailenetan edo kausari dedikazio handiagoa eskaini behar zaionean ere, boluntarioak ez bezala (konpromiso maila txikiagoa onartzen dute eta dedikazio handiagoa norberaren gogobetetze-balioengatik); elementu horiek 5.1 atalean aurkeztu dira, parte-hartze sozial boluntarioarako motibazioei buruz hitz egitean.

«Boluntariotza egiten duzunean, boluntariotza gustatzen zaizulako egiten duzu. Ez duzu gustatzen ez zaizun boluntariotza egiten. Militantziaren zatiak izan ditzake gustuko ez dituzun uneak».

Ohikoa da, halaber, **pertsona ordainduak** (erakundeetako teknikariak) aurkitzea, **militante gisa ikusten dutenak euren burua** erakundearen dute dedikazioa eta harreman emozionala kontratuz eska daitekeen dedikaziotik baino askoz ere harago doan heinean.

Oro har, **erakundearekin estu lotutako** pertsonak dira (batzuetan, haren fundatzaileak edo bertan ibilbide luzea dutenak), eta **lan-harremanetik harago doan proiektuaren aldeko apustua egin dutenak, gaiaren arloko arrazoiengatik** (proiektu jakin batekin lotuta daude gaiaren edo ideologiaren arloan dituen ezaugarriengatik) **edo arrazoi geografikoengatik** (aizoaren eta haren garapeneraren aldeko apustu bat eginez).

«Nik auzoaren aldeko aukera egin nuen. Nahiko banerretuta daukat nire dedikazio ordaindua eta boluntarioa. Ez dut bereizketarik egiten».

«Bai, langile ordainduak lan boluntarioak egiten dituzte beren lanpostutik harago, ohiz kanpoko ekintzetan, asteburuetan ekitaldiak daudenean...».

Ordutegi luzeagoetan eraldatzen da hori, orduz kanpo lan egitean, asteburuetan jarduerak egitean eta etengabeko harreman pertsonalean eta emozionalean, eta ez da amaitzen lanerako ordua amaitzean. Pertsona horiek ez **dituzte arduraldi-orduak zenbatzen eta ez dute bereizten zati boluntarioa (militantea) eta ordaindua (teknikariak)**.

«Erakunde militante batean ez da onartzen erakundearen kanpoko pertsona batek kargu ordaindu bat edukitzea... barrukoa izan behar du. Eta lan egiten duenak, malgutasuna du... badakizu orduak daudela lanetik kanpo, baina zerbitzu- eta bokazio-lan bat dago, ikusten duzu zure lanak balio duela, ez duzu aparteko denbora gisa zenbatzen».

Norberaren burua antzemateko modu eztabaidagarria da; izan ere, erakunde guztiek ez dute hori horrela ulertzen eta talde edo mugimendu batzuk ez dute figura ordaindua ulertzen (edo ordaindua eta militantea) eta teknikaririk gabeko erakunde baten alde egiten dute.

Beste erakunde batzuek, aldiz, argi eta garbi bereizten dituzte langile ordainduak eta langile boluntarioak, eta Boluntariotzari buruzko 17/1998 Legearen ikuskera zorrotzagoari eusten diote; ulertzen da pertsona boluntarioak ezin dituela teknikarien lanak ordezkatu. Hori bereziki argi dago zerbitzu publikoa eskaini behar duten erakundeetan (zenbait ratio eta kalitate-estandar bete behar izatean), hala nola desgaitasunen arloan lan egiten dutenetan.



Boluntariotzaren figura.

Dokumentuaren hasieratik aipatu den moduan, **boluntariotza terminoa parte-hartze sozialeko moduaren sinonimo gisa erabili ohi da, izaera inklusibo nabarmenarekin**; gainera, hainbat termino hartu izan ditu, hala nola kolaborazioa, militantzia, parte-hartzea eta abar. Oro har, **erreferentzia**-termino **orokorra** da parte-hartze sozialari dagokionez, eta gabeziak eta bat ez etortzeak izan arren, **aterki** moduko bat da eta azpian identifikatzen dira ekintza boluntarioko eta boluntariotzako moduak.

«Boluntariotza deitu diogu beti, ez dugu zalantzan jarri beste modu batean deitzea».

Nolanahi ere, **terminoa egunerokotasunean erabili ohi den interpretazio orokor horretatik aterata**, «boluntario» terminoak bere ezaugarriak ditu sakonago aztertuz gero, eta militante edo kolaboratzaile bezalako beste termino batzuekin erkatuz gero.

Oro har, «boluntario» terminoa **maila baxuagoko konpromisoarekin** lotzen da, bai eskainitako orduei dagokienez, bai erantzukizunari eta erabilgarritasunari dagokionez. Adibidez, babes egonkor eta jarraitu batetik eratorritako ezaugarriak lotzen zaizkio, baina erakundearen erabaki-organoetatik kanpo, eta lan zehatzagoekin lotuta geratzen da. Kontsultatuak izatea balioesten dute, baina nahiago dute erabaki garrantzitsuak dagozkien erabaki-organoetan hartzea.

Langile ordainduak dituzten erakundeetan, lan horiek, **gainera, babes gisa hartzen dira** (ez dute lan teknikoena edo konplexuena ordezkatzen) edo **erakundearen jarduera nagusiaren periferikoak diren ekintza zehatzekin oso lotuta daudela** ikusten dira. Eremu horretan sartuko lirateke komunikazioarekin, sare sozialekin, informatikarekin eta itzulpenekin lotutako lanak, baita diru-laguntzen justifikazioak edo aurkezpenak egiteko babes tekniko jakin batzuk ere (arreta gehiagoz aztertuko dira 7.2 puntuan).

«Boluntario bat laguntza bat izan behar da, puntu bateraino iritsi behar du eta kito. Erreferentziatzko profesional bat laguntzen ari da beti».

Hortaz, **borondatezko lan** gisa hartzen dira **lan nagusiak egiten laguntzea** (ezagutza tekniko gutxiago izanda, pertsona ordainduen lanari lagunduz edo esparru apalagoetan) nahiz **erakundearen jarduera orokorraz kanpoko lanekin lotutako zereginak egiten laguntzea**. Azken talde horretan ohikoa da sare sozialen kudeaketa, informatikako lanak edo dokumentuen itzulpena boluntarioei ematea; boluntario horien lankidetzak gizartearen eta profesionaltasunaren arloko gaitasunekin hertsiki lotuta dago (oso lokalizatuta daude denboran, eta batzuetan, lankidetzarekin muga lausoa izaten dute).

«Dokumentuen itzulpena ez genuen planteatu boluntariotzako arlo gisa. Eta mota horretako boluntariotza izaten hasteaz geroztik ikusi genuen jendeak parte har zezakeen beste gauza batzuk ere bazeudela. Orain, adibidez, ordenagailuak konpontzen dizkigun pertsona bat daukagu».

Halaber, **ordu gutxiagoko dedikazioa** du, eta argi mugatuta dago. Ikerketa honetan, asteko 2 orduetik (formalago egituraturatutako eta profesionalizatutako erakundeetan) 6 ordurako ordutegi-tarteak topatu dira; hala ere, azterketa sakonagoek (Boluntak 2008an egindakoak kasu) erakutsi dute asteko 10 ordura arteko tarteak ere badaudela (eta boluntarioen % 60k asteko 6 ordu baino gehiagoko arduraldia zuten).

«Boluntarioek ibilbide luzea dute, eta oso fidagarriak dira. Gaixotzen edo hiltzen dutelako uzten dute soilik».

Oro har, **dedikazioari dagokionez profil oso fidagarriak** dira, nahiz eta baliagarritasun handiagoko oneak dauden bai urtean zehar (ohikoa da oporraldian boluntariotza areagotzea, adibidez), bai bizitzako faseen arabera; izan ere, familia bat osatzeko oneak edo laneko baldintzek eragina dute, eta parte-hartzean gorabeherak sortzen dituzte.

«Boluntario batzuei dagokienez, beren bizitzako une batzuetan beti konta dezakezu haiekin, eta beste batzuetan, gehiago ezin dutela esaten dizute. Guretzat hori zaila da, balitekeelako hilabete batzuk geroago itzultzea. Batzuetan, ordea, ekonomiaren, lanaren, pertsonaren, familiaren eta abarren arloko ezintasunak daude».



Nolanahi ere, eta **arloan honetan patroia absolutuak eskaintzeko zailtasunaren** erakusgarri gisa, zenbait kasutan, pertsona batzuek boluntariotzat izendatzen dute euren burua eta uste dute termino hori konpromiso maila handiarekin lotu daitekeela, bai lotura teknikoari eta emozionalari dagokionez, bai ordu-tegi-baliagarritasunari dagokionez:

«Uste sendo bat eta lan horrekiko sentsibiltatea duzulako egiten duzu hau. Eta ez da zure bizitzatik bereizitako errealitate bat, zurekin doa beti. Zu ez zara honetatik ateratzen, zure zati da».

«Nik ez dut ulertzen boluntariotza ordu-tegi itxi eta finko batekin. Nire bizitzarekiko jarrera bat da».

Azkenik, aipatzeko modukoa da **programen erabiltzaileak boluntario izatera igarotzearen** kasua. Errealitate nahiko ohikoa da, adibidez, San Frantziskon eta Bilbo Zaharrean; eremu horietan, programen erabiltzaileak (funtsean, gizarteratzeakoak eta laneratzeakoak) izan diren pertsonak boluntario bihurtzen dira, eta beste batzuei laguntzen diete erakusten lantegietan ikasi zutena edo irakasten haiek baduten eta erabilgarri izan daitekeen gaitasuna (adibidez, ingelesa edo frantsesa, etorkinen kasuan).

«Onuradunak onuradun izateari utzi eta boluntario izatera igarotzen dira, gure komunitatea hobetzen lagun dezaketelako. Gure komunitatearen baitan egon behar dute».

Lankidetzaren figura.

Norbera izendatzeko izen ohikoenen baitan, konpromisoaren hirugarren maila lankidetzaren figura da; hain zuzen, laguntza zehatz gisa hartzen da, denboran eta arduraldian oso mugatua dena. Bi interpretazio izan ohi ditu:

«Lankidetzaren esku bat botatzea da kostatzen ez zaidan zerbaitetan. Nire esku baldin badago, zergatik ez dut emango?».

Batetik, **jarduera edo proiektu batekin lankidetzaren aritzen direnak daude**. Denboran (hasiera eta amaiera argi batekin), dedikazioan (orduen kopurua eta ordu-tegia) eta egin beharreko lanetan (konpromiso edota gaitasunen maila baxuko laguntzak) mugatutako laguntzak dira.

«Kasu jakinetan lankidetzaren aritu daitezkeen pertsonen zerrenda bat daukagu. Eta gainera, jende hori beti etortzen da deitzen diezunean, beti. Zerrenda horretatik beti etortzen da norbait».

Bestalde, **gai jakin batzuetako lanetarako lankidetzak daude, gaitasun pertsonalekin/profesionalekin lotutakoak**. Informatikaren, itzulpenen, komunikazioaren, prestakuntzaren eta abarren arloko laguntza jakinak dira. Kasu horietan, egitekoak boluntariotzarekin lotzen diren lanen antzekoak izan badaitezke ere, bereizketa-lerroa lausoa da, eta konpromiso mailan ezarriko litzateke.

«Badago gauza jakinetarako esku bat botatzen duen hurbilko jendea, eta zerbait eskatuz gero, parte hartzen dute. Baina prestatuago eman behar zaie dena».

«Denboran zehar gehiago eusten dioten eta jarduerak norberaren ezagutzagatik egiten dituzten figurak badaude, baina zehatzak: web orria eramaten duen norbaitek informatika dakielako egiten du hori; norbaitek diru-zaintza eramaten badu, badakielako da; norbaitek obrak egiten baditu, igeltseroa delako da...».

Oro har, horiek **proiektua begiko dute, baina ez dute parte hartzen** (eta ez dute hori espero) **egituraren eta estrategia-ikuspegiaren arloko erabakietan**. Ordu-tegi eskasa dutenez, nahiago dute lan zehatzekin eta une jakinekin lotzea.

Boluntariotzaren eta parte-hartze sozialaren arloan erantzukizunak dituzten batzuek figura horri **«amerikar erako boluntarioa»** deitzen diote. Figura horretan, **konpromisoa eskasa da, parte-hartzea laburra**, eta **aldakortasun eta ziurgabetasun maila oso handia da**; izan ere, oro har parte hartzeko



betebeharren erantzunak aldekoak izan ohi diren arren, horiek ez kontatzeko aukeraren arriskua dago beti (pertsona horiek erakundearekin eta partaidetza-proiektuekin harreman oso periferikoa baitute).

«Amerikarrenak bezalako parte hartzeko modua ditugu, gauza jakinetarako eta konpromiso gutxi behar dutenentarako. Hala ere, egia esan, denborarekin geratzen den jendea bada, eta hemen daudenak duela 4 edo 5 urtetik».

KAPITULUAREN FUNTSEZKO ALDERDIEN LABURPENA.

Ekintza boluntarioari denbora eskaintzen dioten pertsonak **jarrera kezkatsua dute bizitzaren aurrean**, ulertzen dute **parte-hartze soziala bizitzaren zati** dela, eta, hortaz, beren egungo jarduera ez da bizitzan egiten duten lehenengoa; aldiz, beti izan da haien bizitzaren zati.

Jarduera boluntario bat garatzeko arrazoiak norbanakoaren arrazoen eta komunitatearen arloko arrazoen nahasketa bat da:

- **Komunitate** mailan, xede nagusia da balioa ematea gizarteari, ustez jaso dutenaren zati bat itzuliz (normalean, balio berberak partekatzen dituen erakunde baten bidez), komunitatea hobetzen duten gizarte-aldaketa txikiak sortzea lortze aldera.
- Maila **personalean**, ongizate-sentimendu bat lortzen dute, komunitatean txertatzearen eta sentitzearen sentsazio handiagoa, eta uste dute onartuago eta balioetsiago daudela sozialki beren inguruan. Zenbait kasutan, boluntariotza bakardadearen aurkako borrokaren adierazpena ere bada, eta beste pertsona batzuekin elkar eragitea areagotzen du.

Parte-hartzearen **balazta nagusiei** dagokienez, erakundeez eta taldeez kanpoko batzuk antzeman dira, eta beste batzuk barnean egon daitezke, prozedura-aldaketekin:

- **Kanpokoei** dagokienez, garrantzitsuena denbora-falta da (laneko ordutegi luze eta ezegonkorren ondoriozkoa, eta bizitza-ibilbideko etapen berezkoa, hala nola seme-alabak jaiotzea edo mendeko pertsonen arreta eskaintzea). Bestalde, beste balazta bat denbora luzez partaidetza-erantzukizun asko norberaren gain hartzearen ondoren sortutako nekea da (horiek uzteko aukerarik izan gabe, ez baitago txandaketarik erakundeetan eta taldeetan). Azkenik, administrazio publikoari egotzen zaio sustagarria izateari uzteko papera, bai aitoren-faltagatik, bai administrazio-izapide gehiegi egin behar izateagatik erakundeekiko harremanetan (hala ere, egia esan, diru-laguntzetara jotzeko eta justifikatzeko eredu onoriozkoa da funtsean).
- Barneko balaztei dagokienez, erakundeek eta boluntarioek beren gain hartzen dute erantzukizunaren zati bat, gizarteari modu erakargarrian boluntariotza jakinarazten ez jakiteagatik, nahiz pertsona berriak erakartzeko indar gehiagorekin ez bideratzeagatik. Halaber, uste dute batzuetan boluntarioei eskainitako laguntza hobetu daitekeela, integrazio azkarragoa eta eraginkorragoa lortzeko.

Oro har, **lotura emozionala gehiago dator ekintzatik gogoetatik baino**, eta boluntario gisa hartzen badute ere beren burua (termino horrek mugak izan arren, badirudi adostasun gehien sortzen duena dela eta izendapen orokorra izateko rola har dezakeela), boluntarioak gehiago lotzen dira «egiten dutenagatik» «ustez direnagatik» baino, eta norberaren aitorenak boluntariotzan bertan du arreta, norberaren burua antzematean baino.

Hau da, **norberaren burua antzemateari buruzko ikuspegia** (historikoki eztabaida-espazio zabala hartu du) eta **militantziari edo boluntariotzari lotutako ezaugarrien arteko aldeak pisu eskasa du osagai ideologiko txikiagoa** duten erakundeetan edo mugimenduetan eta **konpromiso maila txikiagoko** pertsonen artean; horiek emozionalki gehiago lotzen dira ekintzarekin, gogoeta teorikoarekin baino.



Dena den, azterketan sakonduz gero, norberaren burua antzemateko hiru modu antzeman dira nagusiki:

- Batetik, **militante** gisa definitzen diren pertsonak daude. Kasu horretan, beren dedikazioa konpromisotik ulertzen dute, eta partaidetza-proiektua norberarena izatetik, eta ezin daiteke beren bizitzako beste alderdi batzuetatik bereizi. Horrek berarekin dakar ez kontatzea arduraldi-orduak eta erantzukizun eta baliagarritasun maila handiagoa izatea. Proiektu orokorrarekin lotzen dira, ez ekintza zehatzekin.
- Bestetik, **boluntario** gisa definitzen diren pertsonak daude. Kasu honetan, denboran zehar arduraldi egonkorra badute ere (orduei nahiz ibilbideari dagokionez), erantzukizunak hartzeko maila txikiagoa da eta baliagarritasun arautuagoa dute. Laguntza eskaintzeko rola da batik bat (militanteei, langile ordainduei, etab.) eta erakundearekin lotzen dira, baina batik bat beren eginkizunarekin.
- Azkenik, **kolaboratzaile** gisa definitzen diren pertsonak daude. Arduraldi maila txikiagoa dute eta ekintza zehatzekin lotuta daude beti; erantzukizun gutxi dituzte eta ordutegi-arduraldi itxia dute. Balioak partekatzen dituzten erakundeen bidez lan zehatzekin lotzen dira (nola eremu geografiko interesgarria delako haientzat, hala jarduten duten gaien idealak partekatzen dituztelako). Aldakortasun maila handia dute.



6. PARTE-HARTZEAREN ANTOLAKUNTZA.

Antolakuntza-ereduak aztertu arren (formalak nahiz informalak; sektore eta tamaina desberdinetakoak...), azterketa honek aukera eman du zenbait patroik komun daudela zehatzeko; horiei eutsi egiten zaie eta berretsi egiten dira talde edo erakunde mota gorabehera, gutxienez aztertutako eremuetan.

6.1. Formalki eratutako eta formalki eratu gabeko erakundeak.

Aztertutako eremu guztietako parte-hartze soziala sustatzen duten erakunde guztiak ez daude egituratuta forma juridiko formalizatu batean. Gizarte-mugimendu berrien ezaugarri garrantzitsua da hori; horietan, **egitura formala ez da nahitaezko betebeharrat parte-hartze soziala sustatzeko.**

Hala ere, osaera formala (erakunde, fundazio... gisa) bakoitzak bere buruari ezarritako betebeharra den arren oro har (erakundeak osatzen diren ohiko modua da), **zenbait taldek ezagueraz erabakitzen dute formalki ez egituratzea.** Izan ere, sozialki aktiboak diren eta partaide gehien dituzten zenbait erakunde ez zuten forma juridiko formalizaturik, ezta jarduten denbora luzez ari zirenek ere.

Ondoren, kontsultatutako erakundeek formalki osatutako forma juridikoa izatea edo ez izatea zergatik hautatu duten aztertuko da labor-labor.

6.1.1. Formalki eratutako erakundeak.

Aztertutako eremuetan, formalki eratutako erakundeen baitan **ohikoena da asoziazio- edo fundazio-gisa** antolatzea (eta kirolaren kasu espezifikoenetan, kirol-klub gisa).

Gai-orientazioari dagokionez, **ez dago alderik, ez berezitasun espezifikorik**, aztertutako lan-esparru guztietan formalki osatutako erakundeak baitaude: kirola, kultura, familia, hezkuntza, gizartegintza, komunitate-garapena... Hau da, egindako esparruaren emaitzetatik abiatuta **ezin da ezarri erakunde mota jakin batek, haren jarduera-bokazioagatik, formula formalago baterantz orientazio handiagoa duenik.**

Era berean, **ezin dira ondorioak ezarri erakundeen adinaren edo mobilizatzen dituzten pertsona kopuruaren arabera**; izan ere ibilbide luzeko eta mobilizazio-gaitasun handiko erakunde ez-formalen adibideak eta lehenengo urratsa formalki eratzea izan duten gizarte-erakunde berrien adibideak aurkitu ditugu.

Hortaz, **zergatik erabakitzen du erakunde batek bere eraketa formalizatzea?** Lan honetan zenbait arrazoi identifikatu dira, eta zerikusi handiagoa dute, kasu batzuetan, forma juridikoa **helarazi nahi diren zenbait baliorekin** lotzearekin, eta bestea kasu batzuetan, **ikusgarri utilitaristarekin** lotzearekin, non **forma juridikoari esker zenbait abantaila** nabarmentzen baitiren.

Forma juridiko formal batetik eskuratutako abantailak.

Formalki eratutako erakundeek, oro har, uste dute forma juridiko formal batek **barneko zenbait balio** dituela **atxikita**, horiekin ados daudela eta barnera nahiz kanpora helarazi nahi dituztela:

«Militeek antolatutako, egituratutako zerbait aurkituko dute [...], erakundearen zati hori mugimenduaren nortasunaren adierazgarri nahiko erabakigarria da [...], ikusgarri egiten gaitu, mugimendua ulertarazten».

- Batetik, formalizazio juridikoa **barne-antolakuntza** handiagoarekin lotzen dute. Uste dute erakundeari egitura argi goa ematea ahalbidetzen duela gobernu-organoei dagokienez, eta, beraz, gardentasun eta barne-demokrazia gehiago. Gainera, antolakuntza-gaitasun eta -eraginkortasun handiagoarekin ere lotzen dute, rolak eta egiturak argi goa zehaztuta dauden heinean.



- Bestalde, forma juridiko formala **erakundearen ikuspegi formalarekin berarekin** lotzen dute, «gauzak ondo egitearen» sentimenduarekin eta zenbait baliorekin lotuz, seriotasunarekin, indarrarekin edo errespetuarekin, esaterako; hain zuzen, horiek helarazi nahi dizkiete barnean parte hartzen dutenei nahiz gizarteari, oro har. Erakundea talde fidagarritzat eta jardueretan kontuan hartzeko modukotzat ikustea nahi dute, eta betebeharrak formal guztiak betetzen dituztela erakutsi (adibidez, boluntariotzaren arloan).

Ikuspuntu horrekin batera, beste bat ere badago, **utilitaristagoa**: forma juridiko formal bat hautatzen da **abantailak eskaintzen dituelako egunerokotasunean eta baliabide jakin batzuk eskuratzean**:

- Hasteko, arrazoi nabarmenena zera da: parametro formalen arabera erakundea erregistratzen duen forma juridiko formal bat izateak gaitu egiten duela erakundea **baliabide publikoak eskuratzeko, batik bat diru-laguntzak eta egoitzak**. Eskuarki ekonomikoki laguntza behar dutenez, laguntza publikoa eskatzen dute laguntza ekonomikoei dagokienez, eta normalean udalarenak diren lokaletan egon ohi dira (hala nola gizarte-etxeak, kultur-etxeak edo administrazioak lagatako lokal espezifikoak).

«Gizarte-erakundeen esku dauden bitartekoak baliatzeko eta modu iraunkorrean lan egin nahi baduzu, modu formalagoan eratu behar zara. Diru-laguntzak edo lokal bat eskuratu nahi baduzu, edo Udalarekin harremanetan egon nahi baduzu, beharrezkoa da. Beste gaitasun batzuk ematen dizkizu tresna horrek».

- Era berean, uste da forma juridiko formalak **administrazioarekin harremanak izatea** errazten duela partaidetza-espazioetan. Horrela, uste da haien ahotsa indar handiagoz entzunarazi dezaketela (helburuak eraginkortasun handiagoz aldarrikatuz), bileretan parte har dezaketelako eta sektoreko eta gaikako kontseiluetan sar daitezkeelako.
- Gainera, uste dute **beste erakunde batzuekin indarrak batzeko** aukera ematen duela, sinergiak sortuz bigarren mailako sareen bidez (norbanakoaz gaindikoak); normalean ezin da edo zailagoa da sartzea, formalki eratuta egon ezean. Horrek aukera eskaintzen du ezagutza trukatzeko foroetan parte hartzea, presio-taldeetan parte hartzea...
- Azkenik, neurri txikiagoan izan arren, adierazten da forma juridiko formal batek **gizartean adierazgarritasuna** irabazteko aukera ematen duela, eta, beraz, solaskide boteretsuagoa izateko administrazioaren, komunikabideen eta beste gizarte-erakunde batzuen aurrean, jendearen aitortpena irabaziz.

«Sarean lan asko egiten dugu. Proiektu batzuen buru gara eta beste batzuetan beste eragile baten gisa parte hartzen dugu. Auzora ireki gara eta gure zilegitasuna areagotzen doala eta gehiago aintzatesten gaituztela ikusten dugu».

Forma juridiko formal batetik eskuratutako desabantailak.

Hala ere, formalki eratutako erakundeek onartzen dute zenbait desabantaila dituztela egiturari eta funtzionatzeko moduari dagokionez forma juridiko mota hori izateagatik; dena den, uste dute gaitz erdi dela, eta positiboa dela erakunderako –kostuen/irabazien batura–:

- Hasteko, *formalismo handiagoa* antzematen da, eta berarekin dakar **handiagoa** izatea, batetik, **egitura**, eta bestetik, **burokrazia-lana**. Horrek zerikusia du bereziki barneko kontuak ematearekin (gardenagoa izateko), baina baita funts publikoen justifikazioetatik eta eskaeretatik eratorritako lanarekin eta araudiak sortzen dituen mugekin eurekin (bereziki, lana garatzen laguntzen duten materialak eskuratzeari dagokionez).

«Burokrazia eta araudia balazta bat dira parte-hartzerako. Adibidez, ez duzu kontsumigarria ez den ezer erosi. Ez altzaririk, ez ordenagailurik. Hori zentzuzkoa da dinamismoa eta partaidetza izan nahi dituen eta komunikabideekin lan egin nahi duen erakunde batean? Eta irtenbideek ez dute balio; udalari



eskatzuz gero, urteak beharko dituzte ordenagailu bat emateko, 10 urte baino gehiago dituen, hutsik dagoena eta CDrik ere ez duena. Aldiz, administrazioek eskatzen dizute komunikatzeko aukera izateko. Nola komunikatuko naiz Internetik ez baldin badaukat? ».

- Bigarren, aitortzen da **azkartasuna kentzen diola eguneroko lanari**, eta **desfasea** sortzen duela **norberaren eguneroko lanaren erritmoaren eta egituraren erritmoaren artean**. Hots, egitura-organoekin koordinatzeko eta haiek informatzeko premiak eragiten du ekintza zuzena izan zitekeena bezain azkarra ez izatea.

«Makroegitura baten menpe gaude, eta horrek ez du parte-hartzea errazten. Zaila da jendeari buruan sartzea hau bestelakoa dela. Ez dira atera iristen. Hori bai, sartzea lortzen dutenak, geratu egiten dira».

- Hirugarren, ondo kudeatutako forma juridiko formal batek eragiten du batzuetan **finantzazio egonkor** bat eskuratzea; horrek berarekin dakar **hazkunde-eredua bertikalagoa izatea horizontala baino, eta profesionalizazioaren alde gehiago egitea egitura boluntario horizontalak sortzearen alde baino**. Profesionalizazioaren aldeko apustua gauzatu da boluntariotzarekin soilik ezin direlako konpondu erakundea sortzeko arrazoia izan ziren gizarte-premiak. Erakundeak eraginkorragoak izateko hazkunde mota horren beharra aitortu arren, aitortzen da parte-hartze sozial boluntarioa murriztea ekar zezakeela, **gizarte-erakunde eraginkorragoak baina ezin hain parte-hartzaileak** sortuz.
- Azkenik, eta barneko kudeaketa on baten eta forma juridiko formal baten ondoriozko baliabide publikoak eskuratzeari dagokionez, identifikatu da **finantzazio publikoak mugimendu-askatasuna murrizten duela**, erakundeak ez hain aldarrikatzaile bihur daitezkeelako eta baliabideen eta zerbitzuen kudeaketan arreta gehiago jar dezaketelako.

«Diru-laguntzen menpe ez egoteak sistemarekin kritikoagoa izateko aukera ematen ditu».

6.1.2. Formalki eratu gabeko erakundeak.

Nolanahi ere, formalki eratutako erakundeez gain, aztertutako eremuetan beste gizarte-mugimendu mota batzuk ere egiten dute lan, eta horiek formalki ez eratzea erabaki duten arren, parte-hartze sozialeko eta boluntariotzako espazioak eta jarduerak dinamiza ditzakete, eta kasu batzuetan, oso modu bizian.

Formalki eratutako erakundeen kasuan bezala, *a priori* ezin liteke profil homogeneo bat ezarri eraketa mota hauetan, elkarren artean oso bestelako erakundeak baitira tamainari, adinari, dimentsioari, bokazioari edo baloreei dagokienez. Esaterako, aztertutako eremuetan, honako talde mota hauek ez dute forma juridiko formalik:

- **Aldarrikatzaileak edota autokudeaketara bideratuak.** Plataforma de afectados por la Hipoteca, Iñar Gazte Asanblada edo Kultur de Bilbi gisako erakundeek ez dute forma juridiko formalik, eta barneko etzabaida-elementu bat da, atxikitako balioengatik.
- **Norberaren sustapenekoak.** La Salle Mendi Taldea edo Sigi Saga Dantza Taldea (pertsone bakar batek dinamizatzen eta antolatzen ditu funtsean) taldeak ez dira formalki eratu, bereziki egitura eta administrazio-kudeaketa areagotzea beharrezkoa ez dela uste izateagatik.
- **Batik bat Interneten bidez sortuak eta kudeatuak.** Plataforma sin Colegios en Miribilla, Lubaki Agenda edo Colabora Gasteiz mugimenduek ez dute egitura formalik atzean, benetako erabilgarritasunik ez aurkitzeagatik, normalean.



- **Beste erakunde batzuekin batera sutatuak** (izan dezakete forma juridiko formalak); hala nola Arroces del Mundo edo Noche Abierta erakundeek berezko entitatearekin proiektu gisa parte-hartze sozialeko jarduerak zehatz boluntarioak multzokatzen dituzte.

Forma juridiko formal bat ez izatearen abantailak.

Profil mota gorabehera, formalki eratu gabeko taldeek zenbait abantaila identifikatzen dituzte berezko forma juridiko bat izateko beharrik gabe lan egiten jarraitzeko; hain zuzen, forma hori, oro har, **egitura formalago batekin eta erantzukizunak hartzearekin lotzen dute**:

Batetik, **uste dute beren funtzionamendu motarako eta garatzen duten jarduerarako ez dela beharrezkoa eta taldearen azken xedetik desbideratu egiten duela**. Uste dute beren egungo funtzionamendu moduak **barneko egitura murrizten duela, malgutasun handiagoa** izatea ahalbidetzen duela (jarduera berrantolatuko ezaketa estatutuaren, erabaki-organoen eta abarren menpe egon gabe) **eta funtzionamenduan eta erabakiak hartzean azkartasun handiagoa** izateko aukera dutela (aldez aurretik antolakuntza-egiturarik behar ez dutelako eta sortutako unetik jardueran bertan jar dezaketelako arreta zuzenean).

«Kulturaren edo kirolaren arloko jardueretarako forma juridikoak federatzeko aukera ematen dizu, baita erantzukizun-aseguru bat ateratzeko eta saltsak kentzeko ere. Baina erantzukizunen, kuoten, gutxieneko partaideen eta abarren kiribil batean murgiltzen hasten zara. Modu batean arriskatzen zara, baina beste modu batean irabazi egiten duzu».

«Gu ez gaude eratuta, gurea ez da talde egituratu bat, ez daukagu zuzendaritza. [...] Eta, egia esan, gure lana berdin-berdin egiten dugu».

Oro har, uste dute **diru-laguntza publikoetara jo behar ez bada** (jarduera garatzeko espazio publikoak arazorik gabe eskura ditzaketelako), **forma juridikoak ez duela abantaila objektiborik** eta ez dute uste beren jarduteko moduan mugatuta daudenik, aurkakoa baizik; izan ere, uste dute administrazio-lanek plus bat ekarriko liekeela, eta talde txikiak ez dutela interes berezirik elementu horri dagokionez.

«Forma juridikoaren eztabaida sortuko da, iritzirik desberdinak egongo dira, eta akordio batera iristen ahaleginduko gara, beste guztian bezala».

«Forma juridikorik ez izateak ez zigun kontraindikaziorik ekarri. Berdin-berdin hartzen gintuzten. Hain zuzen, guk ez genion geure buruari izenik jarri, prentsak izendatu zuen plataforma».

Bestalde, eta nagusiki osagai aldarrikatzaileagoa eta ekintzazkoagoa izan dezaketen erakundearen artean, **forma juridiko batekin jarduerak formalizatzeko bidera eramatearen** ideia sortzen da, **eta administrazio publikoarekin harremanak izatearena**, eta hain zuzen, hori ez dator bat beren barneko balioekin.

«Forma juridikorik ez izatea lotuta dago izateko eta egiteko modu batekin. Berdin zaigu ohiko politikariak esaten duena. Inporta zaiguna auzoak, taldeak, gure batzarrak esaten duena da. Ez dugu nahi eta ez dugu behar loturirik».

Berezko forma juridikorik ez izatea, kasu honetan, **balioen adierazpen bat da, gauzak egiteko moduaren aldeko apustu bat, gaur egungotik bestelakoa dena, independenteagoa, autokudeatua eta askea**. Jarduera formalizatzea jarduteko modu horretatik bereizteko lehen urratsa izango litzateke.

«Ez dugu benetan planteatu. Gaia atera da noizbait, baina gai potoloa da, erakundeekin zer harreman izan nahi dugun erabakitzea baitakar. Eztabaidatu beharreko zerbait da, zer inplikazio dituen, laguntzak jaso nahi ditugun erabaki, eta hori den gure eredu edo autokudeaketaren eredu den zehaztu».

Era berean, protesta- edo aldarrikapen-ekintzen ondorioz egon daitezkeen **erantzukizunak ez hartzea ahalbidetzen du**, hala nola manifestazioek, kontzentrazioek, horma-irudiak jartzeak eta abarrek, ez baitago erakunde publikorik eta erantzukizuna egoteko kargurik.



«Erakunde gisa alta eman eta IFZ bat ateratzeari dagokionez, gai hori eztabaidatzen ari gara. Erakunde gisa legeztatua egoteak lana errazten du diru-laguntzak eskatu behar izanez gero. Hori izango litzateke alde ona. Alde txarra da 100 horma-irudi itsastera banoa, brotxa eskuan dudala harrapatzen ez banaute, ezin didatela isunik jarri. [...] Alde onak eta txarrak eztabaidatzen ari gara. Jabetzarik izan ezean eta dirurik izan ezean zenbateko handietan, egia esan, ez digu asko eragiten».

Forma juridiko formal bat ez izatearen desabantailak.

Hala ere, eta modu apalagoan izan arren, badaude eredu horrekin lotutako desabantailak:

Zenbait kastuan onartzen da **zailtasun handiagoak daudela eguneroko barneko antolakuntzan**; izan ere, egitura deszentralizatuagoak eta horizontalagoak eragin dezake jardueren txandaketa edo koordinazioa ere zailagoa izatea. Eta, adierazpen formal bat ez egotean (hala nola estatutu batzuk), baliteke balio eta itxaropen desberdinetako jendea sartzea, eta nolabaiteko tentsioa sortzea.

«Egiturarik ez edukitzean, zaildu egin ahal izan zitzaigun barneko antolakuntza. Denetik zegoen: batzuek bai, gauza eraginkorrek egin zituzten, eta beste batzuek, dena berrantolatu eta beren erara egin nahi zuten. Bestelako motibazioak geneuzkala ikusi zen. Batzuek motibazio pertsonalak soilik zituzten. Kontrola galtzeko arriskua genuen».

Beste kasu batzuetan, aitortzen da forma juridikorik ez izateak zerikusi handiagoa izan duela **zehatza izatea aurreikusten zen baina denboran mantendu den jarduera baten ondoriozko arrakastarik gabeko eraketa-prozesu batekin**, eta funtzionatzeko hertsiki beharrezkoa ez zenez, **eraketa sine die atzeratzea aukeratu da**, eguneroko jarduerak ez duelako denbora libre asko uzten.

«Beste talde batzuek ez dute forma juridiko formalik ez dutelako nahi iraunkortasun-bokaziorik eduki».

«Gustuko dugu planifikatzea eta egituratzea... baina askotan gauzak sortu ahala egiten ditugu... egunerokoak eramaten gaitu».

Norberaren sustapen-ekimenak.

Formalki eratu gabeko parte-hartze sozialeko ekimenen baitan, merezi du aparte aipatzea **norberaren eremutik sustatzen** diren ekintzak, non pertsona bakar bat baiten benetako antolakuntza-egitura osatzen duena. LaSalle Mendi Taldea Gipuzkoan edo Sigi Saga Dantza Taldea eta Plataforma Sin Colegios erakundeak Bizkaian **banakoen kezketatik sortutakoak dira, eta ezaugarri komun batzuk partekatzen dituzte**.

Dimentsioa.

Pertsona bakar batek dinamizatutako ekimenak izan arren, guztiek **parte-hartze sozialeko espazio handiak sortzen dituzte, eta pertsona asko mobilizatzen dituzte**. Jarduera horiek, gainera, **oso iraunkorrek dira denboran**, aztertutako kasuek erakusten baitute **ibilbide luzea** dutela eta partaidetza-arrakasta handia dute.

«Honi hiru lagunen artean ekin genion duela hogeita bost urte, baina gero, bizitzako kontuengatik, sakabanatu egin nien eta ni bakarrik geratu nintzen».

Hortaz, egitura mailan forma juridikorik ez izateak eta antolakuntza-oinarri zabal bat izateak ez du harreman zuzenik parte-hartze soziala gutxiago sustatzearekin, banakako ekimen batetik sutatutako jarduerak gai baitira 60-120 pertsona arteko taldeak elkartzeko.

Formalizatutako forma juridikorik gabe.

Aztertutako kasu guztien atzean ez dago forma juridiko formal bat, eta talde informal edo plataforma gisa funtzionatzen dute guztiek. Ez eratzeko arrazoiak orokorrean antzeman direnen antzekoak dira erakunde mota horietarako: beren lana egiteko egitura formalik behar ez izatearen ustea, diru-laguntza



publikoetara ez jotzea eta abar.

Gainera, **jardueraren formalizazioa administrazio-komplexutasun handiago batekin lotzen dute**, haien azken xedetik desbideratuko lituzkeenak; hain zuzen xede hori jarduera bera sustatzea da, eta benetako baliorik ekartzen ez dien zerbait bezala ikusten dute.

«Forma juridikorik ez izateak askatasuna ematen dit. Baina mugatu egiten zaitu, juridikoki erantzule egiten baitzaitu. Eta diru-laguntzak eskuratu nahi ez badituzu, ez du merezi; lan gehiegi sortzen du. Funtzionamenduari dagokionez, benetan ez dago zertan egin».

Formalki eratu gabeko beste erakunde mota batzuek bezala, **ez dute arazorik izan instalazio publikoak erabiltzeko** (gizarte-etxeak edo kultur-etxeak, adibidez), eta zailtasunen bat izan dutenetan, arazorik gabe konpondu dute, harremanak dituzten eta formalki erata dagoen erakunderen baten laguntzarekin.

Abiapuntua.

Talde mota horien eraketaren jatorria **pertsona-talde txiki batek dinamizatutako ekintza batean egon ohi da**.

«Hasiera batean, hau fraideak zeraman, gero hiru gurasok hartu genuen, baina badakizu hau nola izaten den, azkenean orduak dira, eta ni geratu nintzen. Eta orain arte».

Nolanahi ere, izan **jardueren orientazioaren edota dimentsioaren barne-desakordioengatik**, izan horiek garatzeko **konpromiso-faltagatik** (edo **konpromiso maila desberdinak**, hautemate bakoitzaren arabera), jardueraren lidergoa gaur egun buru den pertsonak hartzen amaitu zuen.

«Laguntzen didate, esku bat botatzen didate. Baina, azkenean, inork ez du konpromisorik hartu nahi, eta ni geratu nintzen taldearen arduradun gisa».

Motibazioak.

Oro har, jarduteko motibazioak normalean identifikatzen diren **antzekoak** dira, eta honako arlo hauekin lotuta daude: **aisialdi pertsonalaren inguruan jarduerak** sortzea, **gizarte-aitorpena**, **harreman-pertsonalak** sortzea, eta kasu jakin batzuetan, gizarteko larrialdi-egoerak, ustez konpontzea urgentea den **zerbait aldatzeko** premia.

Abantailak eta desabantailak.

Pertsona sustatzaileek banakako kudeaketa-eredu honetan zehazten dituzten **abantaila** dagokienez, **jarduerak askatasun handiagoz egiteko aukera** nabarmentzen da, **egiteko forma eta modua** jarduera **bultzatzen duen pertsonaren gustuaren eta gaitasunen arabera** izanez.

Forma horrek, gainera, **jarduerak gehiago kontrolatzea** ahalbidetzen die **balioei, norabideei, denborei edo** hartzaile diren **taldeei** dagokienez, eta aukera ematen die **erabakiak eta eguneroko kudeaketa azkarrago eta errazago** egiteko, ez baitute beste kudeaketa-organo batzuekin edo antolakuntza-egiturako pertsonekin kontsultatu behar.

«Herri mailan lan egin izan dut beti. Ez nuen talderik nahi, taldeak berarekin baitakar programa bat betetzea, federatzea... eta nik ez nuen hori nahi, denbora eta diru asko behar baitzen».

Hain zuzen, uste dute **malgutasun eta azkartasun hori dela beren arrakastaren gakoetako bat**, beren premiei (egunerokoa hobeto kudeatuz) nahiz parte-hartzaileen premiei eta eskaerei (modu horretan gusturago egoten da) egokitzea ahalbidetzen dielako.

Desabantaila dagokienez, **oro har alde negatiborik ez dutela uste** arren eta hautatutako ereduarekin oso gustura agertzen badira ere, faltan botatzen dute laguntza handiagoa une jakinetan, eta aitortzen dute zenbait **unetan** antolakuntzaren zama bakarrik eramateak nolabaiteko **nekea eta gehiegizko**



erantzukizuna sortzen dituela.

«Zaila da erantzukizun gehiago hartzea. Laguntzen dute, babesa ematen dute, baina, azkenean, ez dute erantzukizunik hartzen».

Erantzukizun maila handiena duten pertsonak oro har **konpromiso-** eta txandakatze-**falta** identifikatzen dute, eta, beraz, beren lekua du hemen banakako dinamizazioaren jatorria nahiz neke-une zehatzak azaltzeko.

Norberaren burua antzematea.

Erakunde mota horretan **ez dago aldez aurretik egindako gogoetarik** beren lanari dagokionez norberaren burua antzemateari buruz, nahiz eta landa-lanean planteatu ondoren, gogoeta **militantzarantz** bideratzen zen hein handiagoan.

IKTen erabilera.

Jarduera bat banaka egiten duten pertsonak **teknologia asko erabiltzen dute**, bereziki **parte-hartzaileekin komunikatzeko**. Mezu elektronikoak, *whatsapp* eta blogak edo sare sozialak ohiko tresnak dira jardueren berri emateko edo gai zehatzetarako koordinatzeko (hala nola bileren, irteeren eta abarren orduak aldatzeko).

«Aurrez aurre nahiz Interneten funtzionatzen dugu. Sinadurak parkean, dendetan, gimnasioan eta abar jasotzen ditugu. Gero, politikariekin eta komunikabideekin blogaren edo sare sozialen bidez jartzen gara harremanetan».

Hein txikiagoan, pertsona berriak erakartzeko ekintzak proposatu dira; izan ere, atxikipenak, oro har, ahoz ahokoaren bidez eta komunitate-leku fisikoen bidez egin dira gehiago, hala nola gizarte-etxeen, ikastetxeen, parkeen eta abarren bidez.

6.2. Barneko antolakuntza moten ereduak.

Konpromiso maila desberdin hori argi ikusten da aztertutako errealitate guztietan errepikatzen den erakunde-patroien inguruan (sinkronikoak nahiz diakronikoak), haien barne-ezaugarriak, gai-lotura edo lotura geografiko edo forma juridikoa alde batera utzita.

- **Maila sinkronikoan**, ezar daiteke erakunde, mugimendu eta elkarte gehienek beren egitura **eraztunen sistema baten inguruan** antolatzen dutela, eta alderantziz proportzionalak dira tamainari eta arduraldiari dagokienez.
- **Maila diakronikoan**, ikus dezakegu **jarduera funtzionalaren** eredu jeneralistak **lan dinamikoaren patro**i bat dutela, eta **taldeko gogoeta-une** zabalak eta **taldeko lan txikiagoekin** (edo baita banakakoekin ere) nahasten dituztela. Gainera, horietan, **teknologia berrien** eta geruza digitalaren **eragina** gero eta handiagoa da.

6.2.1. Maila sinkronikoa. Egitura. Antolakuntza eraztunen inguruan.

Egitura mailan, aztertutako egitura parte-hartzaile gehienak hiru eraztun zentrokideren inguruan antolatzen dira, eta konpromiso eta erantzukizun maila desberdinak dituzte:


Hasteko, **antolakuntzaren zama daramaten pertsonen nukleo gogor** bat antzematen da. Bloke txikia da kopuruari dagokionez, konpromiso handikoa; militante gisa hartu ohi dira eta denborak egonkorrak izan



ohi dira. Gainera, erakundeetako (formalak edo ez-formalak) erantzukizun-karguak izan ohi dituzte zenbait urtez.

Bigarren, **pertsonen bigarren eraztun** bat dago, denboran egonkorra dena eta nolabaiteko konpromiso maila duena. Pertsona kopuruari dagokionez, handiagoa da, eta haien burua antzemateko modua **boluntariotzaren** figurarekin egon ohi da lotuta. Ez dute egiturazko erabaketan parte hartzen; aldiz, jarduera eta proiektu jakinekin lotzen da gehiago haien harremana (normalean, batzordeen eta lantaldeen bidez).

Hirugarren, erakunde gehienek **hirugarren eraztun** bat izan ohi dute, **aldakortasun handiagokoa eta partaidetza-intentsitate baxuagokoa**. Eraztun hau osatzen duten pertsonak **lankidetzaren** figuraren baitan ikusten dira, batik bat. Une jakinetan edo lan zehatzetarako «esku bat botatzeko» prest dauden pertsonen sare zabal bat izango litzateke.



1. eraztuna. Trakzio-nukleoa.

Pertsona kopuruari dagokionez, talde txikia da, baina erabilgarritasun eta lotura handikoa; normalean, erakundearen estrategiaz arduratzen da, eta egituraren lanen zama eramaten du. Militante gisa hartu ohi dira kide hauek, haientzat erakundearen jarduera beren bizitzaren parte delako. Horren ondorioz, adibidez, **ez dira gai partaidetza-proiektuari eskaintzen dioten dedikazioa zenbatzeko**, beren bizitzako beste jarduera baten gisa ikusten dutelako.

«Batzuetan xahutu egin zaitzake, baina katigatu egiten du. Libre dituzun tarteetan sartzen hasten zara, eta azkenean, inplikatu egiten zara. Boluntario gisa hasi, eta militante gisa amaitzen duzu. Azkenean, nahi baino askoz ere gehiago inplikatzeko zara.»

Belaunaldi-txandaketarako zailtasun asko izan ohi dituzte, eta txandaketa eta ordezkapen zaileko karguak izaten dira. Batzuetan erabilgarritasun txikiagoa izatea nahiko luketen profilak izan arren (eta kanpoko eraztun batera igaro), ez dute txandaketarik aurkitzen, eta erakundeko gainerako pertsonen egozten diete konpromiso maila txikiagoa izatea.

«Txandaketa faltan botatzen dugu, eta bai, nekea dago nukleo gogorrean. Baina, tira, gizatalde guztietan gertatzen da hori, gauzak horrela dira.»



Barne-osaera aldatu egiten da erakundearen tamainaren arabera, baita profesionalizazio mailaren arabera ere; hala ere, ez da 8-10 pertsona baino gehiagokoa izaten eta portzentajeari dagokionez erakundeko pertsona kopuru osoaren % 10 baino txikiagoa izan ohi da.

«Egia esan, erakundeetan ez dago errenkadarik sartzeko».

Zuzendaritza-batzarrekin, arduradunen taldeekin, zuzendaritza-batzordeekin eta abarrekin lotu ohi dira, arduraldi jarraitua dute eta erreferentzia dira erakundearen barnean zein kanpoan. Zenbaitetan, eta erakundeak nolabaiteko profesionalizazio-profil bat duenean, egiteko hori pertsona ordainduak izan ohi dute; hain zuzen, horien artean, militantzia-bokazioagatik, ez daude argi zehaztuta parte-hartze boluntarioaren eta ordaindutakoaren arteko rolak, eta ohikoa da gehiegizko arduraldia izatea. Horren arrazoia zera da, askotan boluntarioen rola izan zutela, eta proiektuaren hazkunde bertikalak rol ordaindua onartzera eraman zituela, denbora gehiago eskaini ahal izateko.

Ohikoa da gai-lotura eta lotura geografiko indartsuetan, non proiektu tematiko edo auzo jakin batekoa izatea faktore baztertzaila baiten, eta ez baiten ulertzen premisa horiez kanpo erantzukizun-karguak hartzea.

Txandaketaren erronka erantzukizun handieneko figuretan

Erakundeen erantzukizun handieneko espazioetan txandaketak sortzeko zailtasunak aipatu zituzten alde aurretik egindako beste ikerketa batzuek ere. Esaterako, Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuriak (2007) zehaztu zera zuen jada: «erakundeek inplikazio-jaitsiera handia nabaritu dute [...] bazkide diren pertsonen nahiz boluntarioen artean. [...] Zailtasun handiak aipatzen dira erakundeak zuzentzen dituzten pertsonak txandatzea lortzeko». Era berean, Boluntariotzaren Estatuko Diagnostikoak (2001a) adierazten du «boluntarioek lehen baino prestutasun gutxiago dutela erakunde berari denbora asko eskaintzeko eta erantzukizunak hartzeko erabakiak hartzean».

Txosten honen emaitzek indartu egiten dute ondorio hori; izan ere, erakusten da **erantzukizun handiagoko parte-hartze sozialeko espazioetako txandakazteetan arazo argia** dagoela, eta horrek **erakunde eta talde batzuek irauteari mehatxu zuzena egiten diola**.

«Belaunaldi-txandaketa konplexua da, ez dago asko. Parte hartzen dudak taldeetan, gazteenetakoa naiz, eta 28 urte ditut. Batez bestekoa 40 urtekoa da, gutxi gorabehera. Gertatzen dena zera da: batez beste 5 urte daramatzadala, sartu nintzenez gazteena nintzela eta hala izaten jarraitzen dudala. Eta ez litzateke horrela izan behar».

Arau orokor gisa antzematen da erabaki- eta kudeaketa-organoek (zuzendaritza-batzarrak, biltzarrak...) boluntarioen ehuneko oso txikia erakartzen dutela, eta askotan, ibilbide luzeko pertsonak osatzen dituztela, eta ez dutela ordezkorik aurkitzen.

«Toki guztietan gertatzen da gauza bera. Erakundeetan beti asko dira, baina beti berberak daude. Beti berberak ikusten dituzu, eta zera pentsatzen duzu: horiek ez dute inoiz zuzendaritza-taldea aldatzen?».

«Beti elkartzen garenak gaude hemen. Aurpegi berberak dira beti».

Ikerketa honetan aztertutako profil ia guztietan ematen da egoera hori, eta, konpromiso maila handiena duten pertsonen arabera, zaildu egiten du erakundearen egiturazko jarduera; izan ere, **ekintza zehatzekin lotuta eta konpromiso txikiagoarekin parte hartzeko prest dauden pertsonak soilik topatzen dituzte**. Hau da, oro har, errazagoa da jarduera zehatzak garatzeko laguntza aurkitzea erakundearen nukleo gogorreko egiturazko arloetan lankidetzan aritzeko eta parte hartzeko baino.

«Ahul samar dago astero elkartzeko batzordea. Arratsalde bat libre izateko, asteak igarotzen ditugu tartea aurkitzen».



Horrek **neke-egoerak** sortzen ditu erakundeetan; izan ere, oro har, pertsona berberak dira «gurdia bultzatzen dutenak» eta jarduerak zehazteaz, ildo estrategikoak pentsatzeaz, aurrekontuak kudeatzeaz edo ekintzen egutegiak antolatzeaz arduratzen direnak, eta gainerako parte-hartzaileak, berriz, «giltza eskurago» duten jardueraz arduratzeko itxaroten dute.

«Ez dut sartu nahi izan. Ezin dut, bizitzak ez dit ematen, leku gehiagotan nago, seme-alabak ditut... Leku batean sartuz gero, ondo egiteko da. Kargua uzteko irrikatzen dagoen jendea dago, eta arazoak daude horiek ordezkatzeko».

Gainera, egoera batzuetan, **erakundeek jarduera asko dinamizatzen dituzte pertsona gutxi batzuen ahaleginarekin**, eta oreka oso estua sortzen da; egoera horrek krisi bat sor dezake, edo zenbait erakunde desagertarazi ere egin ditzake, nahiz eta kanpotik ematen duen osasuntsu dagoela. Egia esan, oinarri solidorik ez duten taldeak dira, haien gizarte-oinarriaren egiturazko konpromiso ahula dela-eta.

«Txandaketa beti izan da arazoa. Duela zenbait urte krisi bat izan genuen eta desagertzeaz egon ginen». «Guk esango bagenu bagoazela, greba egiten dugula, hau desagertu egingo litzateke, inork ez luke txandaketa egingo».

Emandako arrazoiek zerikusia dute orokorrean lan handiagoak ondo egin ahal izateko **erabilgarri duten denbora-faltarekin** eta erabaki garrantzitsuak hartzetik eratorritako **erantzukizunari beldurra izatearekin**.

«Batzarlean astero bildu behar duzu, bai edo bai. Eta, gainera, botoa duzu. Eta hori erantzukizun bat da, kritikatu egin zaitzakete erabakitzen duzunagatik, kargu horretarako bozkatu zaituzten arren».

Era berean, aitortzen da **erosoago** sentitzen direla lan horiek beste pertsona batzuek egiten badituzte, eta horrek eragiten duela txandaketa eskaintzeko premiarik ez egotea; izan ere, horretaz arduratzen diren pertsonak behar bezala egiten dute.

«Egin beharrekoa ondo egiten duen jendea dago, eta pena ematen dizu horiek alde egitea. Baina, jakina, ulertu behar da nekatuta daudela eta utzi egin nahi izatea».

Horrek guztiak erakuts dezake **pertsona berriak erantzukizun handiagoko espazioetara hurbildu ahal izateko ekintzak artikulatzeko premia**, bai **administrazioaren** erantzukizunaren arlotik (pauso hori ematen lagunduko luketen sentsibilizazio- eta sustapen-neurrien bidez), bai **erakunde eta taldeetatik euretatik** (komunikatzeko, kudeatzeko eta pertsonak erakartzeko dituzten moduak birplanteatuz), **etorkizuneko bideragarritasuna bermatu** ahal izateko, **egiturak eta prozedurak berritzearen bidez**, **horiek beste profil batzuetarako erakargarriago bihurtzeko**.

2. eraztuna. Boluntariotza.

Bigarren eraztun batean **arduraldi boluntario egonkorra** eskaintzen duten pertsonak daude (asteko orduetara nahiz ibilbide historikoari dagokionez), baina harreman eta arduraldi maila txikiagoa dutenak.

Erakundearen egituran rolik izan ohi ez duten pertsonak dira, haien **lankidetzak ekintza tematiko zehatzekin lotuta** egon ohi da eta agindu zaizkien jarduerak gauzatzen dituzte (baina horien gaineko erabaki estrategikoaren maila oso baxua da edo ez dute). Adibidez, lan zehatzetan parte hartzen dutenak (zuzenean nahiz batzordeen bidez) izango lirateke, baina egiturari dagokionez arduraldirik ez dutenak; beren **parte-hartzea** erakundeko gainerako lanetatik **bakartzen dute argi eta garbi**.

«Berehala botatzen dizute esku bat talde honetan. Baina inork ez dizu hau esaten: hurrengo urtetik aurrera, gutako bi, hiru edo lau zurekin egongo gara guztia nola doan jakiteko, sartzen joateko, eta jakiten joateko egunen batean uzten baduzu ere».



Ildo horretan, eta nukleo gogorreko pertsonen aldetik txandaketa natural gisa antzeman arren, denbora-faltagatik edota erantzukizun handiagoa hartzeari uko egiteak eragiten du txandaketa hori naturala ez izatea; hala ere, badago pertsonen nolabaiteko ehuneko bat intentsitate maila txikiarekin parte hartzen hasi eta militantzia mailarekin gehiago lotuta amaitu zuena.

«Hasieran, boluntario gisa hasten zara, baina denborarekin konpromisoa hartzen joan, eta etortzera behartzen zara».

Eskuarki, eta nukleo gogorrak ez bezala, beren parte-hartzea **lotura emozional txikiagoarekin** ikusten dute, eta jarduera horren eta beren bizitzako beste batzuen artean **alde argiagoa** ezartzeko gai dira; hortaz, erakundearen zati izatearen sentimendua argi izan arren, gai dira dedikazioa zenbatzeko.

Boluntariotza-aniztasunaren kasuan (7.1.1 puntuan ikusiko dugun moduan), erakundearen rol hori intentsitate baxuagoz gauzatzen duten pertsonen nukleo gogorreko rola hartzen duten beste erakunde batzuetan; izan ere, partaidetza-intentsitate desberdinak egiten dituzte bateragarri, liderraren, boluntarioaren edo kolaboratzailearen rola ezarri partaidetza-espazio desberdinetan.

3. eraztuna. Lankidetzak.

Erakunde gehienek lankidetzarako pertsona-talde bat dute une jakinetarako, eta baldintza zehatz batzuen pean, beti daude «esku bat botatzeko» prest (hori da gehien erabiltzen den erreferentziarako eguneroko terminoa).

«Auzo hau borondate handikoa da, jaietan esku bat botatzeko beti dago jendea. Hori asko balioesten da, baina ondo legoke batzorderako jendea egotea».

Ordutegiari dagokionez (argi izan behar dute noiz hasten eta amaitzen den jarduera), gaiari dagokionez (eskuarki, beren esperientzia arloarekin lotuta egon ohi da: itzulpena, informatika, kirola...) eta konpromisoari dagokionez (arduradun bati laguntzea izan ohi da, erantzukizun maila txikiarekin) arduraldi-irizpide zehaztuak behar dituzte pertsona horiek.

«Esaterako, txangoetara laguntzen dizuten gurasoak edo txango jakin bat prestatzeko eskaintzen direnak. Baina inork ez du busti nahi, eta antolakuntza orokorrarekin laguntzeko konpromisoa hartzen du. Esku bat botatzen didate eskatzen dudan guztian. Baina nik eskatu behar izaten du laguntza».

Ez dute ematen eraztunaren urratsa, denbora-faltagatik eta konpromisoa hartzeko borondateagatik; hala ere, egia da boluntariotza-aniztasunaren kasuetan, errepikatu egiten dela erakunde batean nukleo gogorrak izatearen eta beste batzuetan une jakin batzuetarako kolaboratzaileak izatearen eskema.

«Gauza baten edo bestearen arabera, bestelako konpromisoak ditut. Jai Batzordean, batzordean nago, militante gisa; Arrocés del Mundo erakundearen, beste batzorde batean nago, baina boluntario gisa, eta Aldauri erakundearen, berriz, kolaboratzailea naiz».

Hasieran aipatutako moduan, eraztun oso zabala da kopuruari dagokionez, baina alderantziz proportzionala da dedikazioan; gainera, aldakortasun handia egoteak eragiten du erakundeek kolaboratzaileen zerrenda handiak izatea egon daitezkeen bajak estaltzeko.

«Nukleo gogorrekoak ez diren pertsonekin urtebetez-edo konta dezakezu, eta txandaketa prestatzen joan behar duzu. Ekintzetarako, zerrenda bat daukagu, eta ustez beharko dugun lankidetzak bakoitzerako, hiru ordezkari ditugu».

6.2.2. Maila diakronikoa. Eginkizunak. Koordinazioa eta lana zereginen arabera.

Maila diakronikoan, eguneroko lana –aztertutako partaidetza-egitura gehienetan– taldeko egiturazko gogoeta-uneen edo batzorde edo lantalde eraginkorragoen inguruan antolatzen da, eta horietan, IKTen erabilera gero eta handiagoa da.



Aplikazio teknologikoen presentziak parte-hartze soziala nabarmen eraldatu badu ere (9. kapituluan ikus daitekeen moduan), **erabaki garrantzitsuenak aurrez aurreko geruzan hartzen dira**, bileren eta biltzarren bidez, nahiz eta **operatiboa den eguneroko lanean elkarreaginezko eredu argia dagoen geruza digitalaren eta aurrez aurrekoaren artean**.

Erakundeetan, oro har, erabaki nagusiak hartzeko aldizkako denbora-uneei eusten zaie. Geruza digitalaren eragina gorabehera, **aurrez aurreko geruzak izaten jarraitzen du maila estrategikoenetan lana eztabaidatzen eta antolatzen den espazioa**. Hots, aurrez aurreko biltzar edo bilera orokorraren espazioak nahitaezkoa izaten jarraitzen du eta ez dute ordezkatu (eta ez da aurreikusten hori gertatuko denik) eztabaidako espazio digitalek.

«Bileretan elkarren aurpegiak ikustea gustatzen zait, elkar ezagutzea gustatzen zait. Dokumentu bat gaizki ulertu dezakezu, gaizki-ulertuak egon daitezke. Nahiago dut aurrez aurre hitz egitea. Nire ustez, bilerek beharrezkoak izaten jarraitzen dute».

«Posta elektronikoz koordina daitezkeen lanak egon arren... presentzia fisikoko bilerak oso beharrezkoak dira. Lankidetzaz- eta komunikazio-tresnek ez dute ordezkatzeko kontaktu fisikoa; Skype tresnak, adibidez, balio duenerako balio du, entzuteko eta ikusteko, baina gutxi gehiagorako».

«Posta elektronikoen edo teknologia berrien bidez ezinezkoa da 10 edo 15 pertsona aldi berean iritzia ematen aritzea gai konplexuetarako. Gaizki-ulertuak eta atzerapenak sortzen dira. Nahiago dugu aurrez aurre hitz egin. Sistema osagarria da, baina ez ordezkatzekoa».

Gogoeta- eta partaidetza-espazio honen formatua aldatu egiten da, eta, bereziki, barneko bi antolakuntza-eredu nabarmendu daitezke, berezko ezaugarriak dituztenak eta ikuskera desberdinei erantzuten dietenak:

- **Alde batetik, biltzar bidezko ereduaren pean jarduten duten erakundeak daude.** Eredu mota hori **ohikoagoa da izaera aldarrikatzailea edo autokudeaketakoa** duten taldeetan; horietan organo honek agintea du antolakuntza-erabaki garrantzitsuenak hartzeko. **Funtsezko elementua** da talde horiek **euren burua zehaztean**, eta demokratikogotzat eta inklusibogotzat hartzen dute.

«Beti dago biltzar bat. Ez dago inor erabakiak bere aldetik hartzen dituenik; dena eztabaidatzen da biltzarrean. Erabakitzeko modurik demokratikoa da».

«Beste erakunde batzuetatik bereiz gaitzakeena zera da: hemen ez dugula liderrik. Erabaki garrantzitsuak guztion artean hartzen ditugu».

Antzemandako **kontraindikazioen** artean daude, besteak beste, **eraginkortasunik edo azkartasunik ez izatea** erabakiak hartzerakoan (pertsona askoren arteren artean eztabaidatu behar baita); ondorioz, jardueren erritmoa oztota dezake biltzar bidezko erritmoak.

«Mugimendu erabat demokratikoa izan behar dela uste dute kide batzuek, biltzarrak esaten duenaren arabera; hala ere, biltzar bidezko erabakiei eustea zaila da, biltzar bakoitzean dagoen jendearen errotazioaren arabera. Nire ustez, asanblearismo purua oso demokratikoa da, baina ez da behar bezain eraginkorra».

«Gure kasuan, gure tamainagatik, biltzarra nahikoa handia da ordezkagarria izateko eta nahikoa txikia da eraginkorra eta maneiagarria izateko».

- **Beste alde batetik, zuzendaritza-biltzarren bidez funtzionatzen dutenak daude.** Hauetan, erabakiak hartzea nukleo gogorreko pertsonetan dago eskuordetuta; horiek hartzen dituzte erantzukizun maila handiagoak.



Erabakiak azkarrago hartzeko aukera ematen badu ere, arazo nagusietako bat da (arestian aipatu bezala) zuzendaritza-batzarrak **txandatzeko eta birsortzeko zailtasunak** daudela, eta denboran zehar irauten dute.

Bigarren eredu honetan, **biltzar bat egon ohi da askotan, nahiz eta eduki gutxiago izaten dituen eta formalagoa den**; bilera gutxi egin ohi dituzte (urtean behin edo bitan, jarduerak aurkezteko eta kontuak emateko, adibidez).

«Biltzarrak parte-hartze oso eskasa du. Berrehun eta zenbait bazkidetatik hogeita hamarren bat biltzen gara».

ESPazio FISIKOAREN GARRANTZIA

Eguneroko lanean IKTek gero eta eragin handiagoa izan arren, erakundeek espazio fisiko bat behar izaten jarraitzen dute, bai bilera orokorretarako, bai jarduerak garatzeko.

Ildo horretan, erakunde askotarako, biltzeko eta lan egiteko lokal bat izateko aukera funtsezkoa izaten da, eta beren lehentasunen lehen postuan egoten da; izan ere, lokalik gabe, ezin izango lukete jarduerarik garatu eta erabiltzaileei arreta eskaini.

Lokal bat izateak komunitate-harremanak sortzeko aukera ematen du, baita publikoari arreta eskaintzeko programak garatzeko edo auzo bat dinamizatzen duten aisialdiko eta kulturako programazioak gauzatzeko ere.

«Zentroa topatzeko eta harremanak izateko leku bihurtu da. Talde egonkorrak egin dira».

«Egoitzarik egongo ez balitz, ez lirateke etxetik aterako. Horrela, etxetik irteten dira, eta erlazionatu».

Hortaz, parte-hartze soziala sustatzeko baliabide publikoak egotea (elkarteetarako lokalak, gizarte-ehunarentzako zentroak eta etxeak, gizarte-egoitzak eta kultur-etxeak) funtsezkoa da partaidetza-jarduera ahalduzatzeko, batez ere aurrez aurrekoa izaten jarraitzen baitu hein handian.

Gainera, baliabide horiek erabiltzeak ikuspuntu zabala izatea garrantzitsua da, non ez baiten beharrezkoa formalki eratuta egotea erabiltzeko; izan ere, ikusi dugun moduan, partaidetza-jarduera interesgarriak garatzen dituzten talde edo mugimendu guztiek ez dute eman formalki eratzeko urratsa.


«Leku bat izatea oso garrantzitsua da jarduera garatu ahal izateko. Gure taldea gizarte-etxean biltzen da, eta inoiz ez digute oztoporik jarri».

Ildo horretan, beren burua kudeatzen duten eta ezjakintasunagatik edo hala erabaki dutelako bitarteko mota horiek baliatzen ez dituzten erakunde askotarako, lokalak beren baliabide ekonomikoen zati handi bat kontsumitzen du, espazio hori gabe ez luketelako gainerako jarduerak garatzeko aukerarik izango.

«Gure lehentasuna lokala ordaintzea da. Egiten dugun lehenengo gauza da. Leku horretan elkartzen gara, hor egiten ditugu gure jarduerak».

«Gure xedea da lokala konpontzen joatea, hor egiten baititugu jarduerak. Jardueraz betetako agenda bat edukitzeko aukera izatea nahi dugu».

Aurrez aurreko bilera horietatik **ateratako ondorioak erakundeko pertsoneri bidaltzen zaie** (edo zerikusia duten beste dokumentu eta eduki batzuk), jakinaren gainean eta lotuta egote aldera. Are gehiago, batzuetan, erakundeek **informazioa jasotzeko prozedura paraleloak ezartzen dituzte**; horrela, aurrez aurre parte hartu ezin duten pertsonen nolabaiteko presentzia dute erabakiak hartzean.



Hemen, oso ondo balioesten dira **IKTak parte-hartzea erraztea eta harremanari eustea ahalbidetzen duten tresna gisa**, baita norberaren bizitzako edo laneko bizitzako baldintzatzaile partikularrengatik (adibidez, lan askoko boladetan, seme-alabak izatean edo mendekotasuna duten pertsonen kargu izatean) erakundeari denbora bera eskaini ezin zaion uneetan ere.

«Dena bidaltzen da posta elektronikoz. Informazioa iristen da bai edo bai. Informatuta egon nahi baduzu, iristen zaizu. Orain, posta elektronikoa bidez horrenbeste informazio izatearen ondorioz, aurrez aurreko bileretara jende gutxiagoa joan daiteke».

Aurrez aurreko espazio eta une estrategikoen ondoren, **lan tematikoko dinamika askoz ere autonomoagoa antolatzen da**, gehienetan **batzordeen edo baliokideen** bidez; horietan, **IKTen presentzia askoz ere handiagoa da**, hartu beharreko erabakiak hain garrantzitsuak ez direnez, uste baita teknologia tresna baliozkoagoa dela koordinatzeko, ordu gutxiago eskaini behar direla eta malgutasun handiagoa eskaintzen duela. Horrek eragiten du parte-hartzea **bateragarriagoa** izatea bizitza pertsonalarekin, lanekoarekin eta familiakoarekin.

«Batzorde bakoitza autonomia da; onartuta dagoenez, zuk erabakitzen duzu. Baldin eta diru-konturen bat edo oso garrantzitsua den zerbait ez bada; kasu horiek kontsultatu egiten dira edo dagokion bilerara eramaten dira».

«Batzordeak eraginkorragoak izateko dira. Guztioz guztiaz arduratuz gero, ez du zentzu handirik. Logistikaren zatiak, bestela, denbora asko kentzen du, eta, horrela, bilduta gauden denbora benetan guztiok batera egotea behar duten lanei eskaini diezaiokegu».

Eguneroko lan honetan ohikoa da aurrez aurre gutxitan elkartzen diren erakundeak aurkitzea; horiek telefonozko elkarrizketa bidez, Whatsapp taldeen bidez, mezu elektronikoa bidez eta partekatutako dokumentu bidez (*Google Docs* kasu) funtzionatzen dute.

«Batzordeen bidez antolatzeak eragin du parte-hartzea eraginkorrago izatea; ez zara horrenbeste nekatzeko, ez zaude egun osoan bilduta. Batzorde bakoitza desberdina da; nahi duen bezala koordinatzen da. Egia esan, beti elkartzeko leku bat dugu, baina batzorde batzuek joera handiagoa dute teknologia berrietarako, erabaki laburrak hartzen dituzte edo bilera birtual txikiak egiten dituzte Whatsapp edo posta elektronikoa bidez. Horrela, bizitzaren gainerako gauzetara egokitu dezakezu».



«Lanak banatu behar dira. Ezin da pertsona bat guztiaz arduratu, erreta amaitzen baitu eta azkenean, utzi egiten baitu.»

Halaber, eguneroko jarduera tresna teknologikoen bidez jakinarazten da nagusiki; batik bat, web orrien eta blogen bidez, eta kasu askotan, baita sare sozialen bidez ere. Hori bai, zenbait erakundek (kokapenaren, jardueraren eta xede den hartzaileen arabera) komunikatzeko ohiko moduei eusten diete, horma-irudiei, esaterako (bereziki, gizarte-etxeetan edo interesguneetan); horrela, geruza digitala horrenbeste menderatzen ez duten edo hartara sartzeko gaitasun gutxiago duten pertsonak informatuta egoten jarraitzen dute, eta ez dituzte haien partaidetza-aukerak mugatzen.

«Facebook, Twitter, bloga... ditugu. Aterki gisako bat da auzoko talde guztien jardueretarako. Tresna berrietan babestu nahi dugu. Gaur egun, askoz ere azkarrago iristen gara jendearengana, baina oinarritzkoagoak edo klasikoagoak diren bitartekoetan ere oinarritzen gara, hala nola horma-irudietan, nahiz eta indarra galtzen ari diren.»

Logikoki, **erakundeen barne-osaerak zerikusi handia du IKTen garapen mailarekin**. Oro har, gazteak eta denbora libre gutxiago duten pertsonak osatutako erakundeek egiten dute gehiago IKTen aldeko apustua; izan ere, eskaintako denbora maximizatzeko aukera ematen die, eta erakundeari modu deszentralizatuan ekarpena egitekoa, ordutegi-erritmo edo kokapen geografiko jakin batzuen menpe egon beharrik gabe.

«Beste eragile batzuekin koordinatzea zaila zen, guk dena Interneten oinarritzen genuelako eta haiek ez zutelako ideia handirik Interneten.»

Horrek koordinazio-arazoak ekar ditzake aurrez aurrekoagoa den funtzionamendua duten beste erakunde batzuekin; antolakuntza-eredu tradizionalen eta deszentralizatuagoak edo hain aurrez aurrekoak ez direnen artean talkak egon daitezke. Gai hori 9. kapituluaren areagotuko eta sakonduko da.

FUNTSEZKO ALDERDIEN LABURPENA

Boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko lanak sustatzen dituzten erakunde gehienek formalki eraturako forma juridikoa badute ere, **oso aktiboak diren zenbait erakundek erabaki dute beren egitura ez formalizatzea**; aukera bat edo bestea hartzearen atzean arrazoi ideologikoen eta abantaila utilitaristen nahasketa bat dago:

Formalki eraturako erakundeek uste dute forma juridiko batek **bi abantaila mota** dakartzala nagusiki. Batetik, uste dute **berezko balio** batzuekin lotzen dela, adibidez: irudi serioagoa eta gardenagoa eman, ordezkagarritasuna irabazi, eta funtzionamendu hobea izatea eta boluntarioak hobeto hartzea ahalbidetzen duen egitura bat izan. Bestetik, **abantaila utilitaristagoak** zehazten dira; bereziki, diru-laguntzei, lokal publikoei, administrazioarekiko elkarrizketa-foroei edo lan-sareei dagokienez.

Desabantaileri dagokienez, egitura formala lan burokratiko handiagoarekin (nahiz eta, egia esan, diru-laguntzak ematearen eta justifikatzearen ondoriozkoa izan), jarduteko askatasun gutxiago izatearekin (diru-laguntzak eskuratzeko ondoriozkoa; horiek eragiten dute erakundeak gehiago bideratzea kudeaketara, aldarrikapenera baino) eta jarduteko azkartasun gutxiago izatearekin (erabakiak demokratikoagoak baina motelagoak izatea dakarten barne-organoz hornitzean) lotzen dute.

Formalki eratu gabeko erakundeek, aldiz, uste dute horrek azkartasun eta malgutasun handiagoa ematen diela, jarduerari eta erakundearen dimentsioari buruzko kontrol handiagoa eskaintzen eta, oro har, askatasun handiagoa ematen diela, bereziki Administrazioarekin harreman-esparru batean (diru-laguntzaren, lokalen eta elkarrizketaren arlokoa) ez sartzeko ondorioz.

Desabantaileri dagokienez, antzematen dute egitura instituzionalki argituta ez dagoen heinean (estatutuak, oinarriak, etab.), balitekeela antolakuntzaren balioak partekatzen ez dituzten pertsonetara iristea (edo erakundearen balioak ez partekatuak izatea modu berean pertsona guztien artean eta



lotura gehiago izatea proiektuen araberakoa egiturazkoa baino).

Formalki eratu gabeko erakundeen baitan, garrantzitsua da azpimarratzea **norberaren sustapeneko ekimenen papera**. Formalki eratu gabeko plataformak edo taldeak dira, eta pertsona bakarrak bultzatuak eta kudeatuak izan arren, dinamizazio-gaitasun handia dute, eta askotan, ibilbide luzea. Ekimen horiek kudeaketaren erantzukizuna bere gain hartu zuen pertsona bakar batengatik sortu baziren ere, gaur egun duten formak ahalbidetzen diete pertsona horiei hobeto kontrolatzea partaidetza-proiektuaren orientazioa eta dimentsioa.

Forma juridikoa gorabehera, erakunde gehienetan bi **antolakuntza-patroi** zehazten dira; bata, egiturazkoa (sinkronikoa) eta bestea, lan-prozesuekin lotutakoa (diakronikoa).

- **Egitura-antolakuntzari** dagokionez, erakunde gehienak hiru eratzunen inguruan antolatzen dira. Lehenengo nukleoa, txikia da pertsoneri dagokienez, eta intentsitate handikoa da arduraldiari dagokionez (militanteekin bat datoz ildo nagusietan). Gainera, egiturari eusten eta estrategia diseinatzen dute. Bigarren zirkulu batean, pertsona boluntarioek egiten dute lan; egonkorra da, nahiz eta erantzukizun eta lotura maila txikiagoa duten. Azkenik, hirugarren eratzun bat dago; pertsona asko daude bertan, baina lan oso zehatzak eta jakinak egiten dituzte eta aldakortasun handia dute; kolaboratzaileak dira, batik bat.
- **Antolakuntza funtzionalari** dagokionez, prozesu eta lan azpimarragarrienak erabaki garrantzitsuenak hartzen diren (biltzar bat edo batzar bat kasu) espazioetan erabakitzen dira. Hortik aurrera, lana modu autonomoagoan antolatzen da (adibidez, lantalde kooperatiboen eta batzordeen bidez). Aurrez aurreko lana lan digitalarekin nahasi arren, lan digitalek zama handiagoa dute ekintza eraginkorrenak koordinatzeko (espazio pertsonalei une garrantzitsuenetarako eusten zaie). Era berean, geruza digitalak garrantzia handia du sortzen doan informazioa hedatzeko nahiz ekarpenak identifikatzeko edo pertsona berriak erakartzeko, gazteak, bereziki.



7. PARTE-HARTZE SOZIALEAN ETA BOLUNTARIOTZAN ANTZEMANDAKO EREDUAK.

Parte-hartze sozialean joera berriak egotea dokumentatzen hasia zen aurreko diagnostikoetan (Europako Batzordea -2010-, Espainiako Gobernuak -2011a-, Aragoiko Boluntariotzaren Koordinatzailea -2012, SIIS -2012-). Hala ere, ikerketek irizpide beraren pean txertatzen dituzte gure ustez desberdinak diren bi kontzeptu.

- Batetik, **hertsiki tradizionalak ez diren parte-hartze sozialeko ereduak, «egiteko» modu berriak edota ez hain ohikoak** adierazten dituztenak, eta, beraz, parte-hartzea garatzen den moduari gehiago lotuta daudenak, xede den talde tematikoari baino. Kategoria horren baitan daude, ikerketa horien arabera, boluntariotza-aniztasuna, boluntariotza bateratua, ziberboluntariotza edo ziberaktibismoa bezalako partaidetza moduak.

Horiek guztiak «boluntariotza modu berriak» izenburupean jaso arren, uste dugu **berritza soilik ziberboluntariotza eta ziberaktibismoa har daitezkeela; aldiz, boluntariotza-aniztasuna eta boluntariotza bateratua, egia esan, partaidetza modu txikiak edo ez ohikoak izango liriteke**. Nolanahi ere, ikerketa honek laurak aztertuko ditu, parte-hartze sozialeko moduak sakon aztertzea duelako xede.

Eredu horiekin lotuta, gainera, boluntariotzari tradizionalki lotzen zaizkion hainbat lan desberdin daude (hala nola komunikazioa, sare sozialen kudeaketa, diseinu grafikoa, aholkuritza tekniko...); horiek harreman-eredu berri bat ezartzen dute, eskainitako denboran baino gaitasun profesionalean gehiago oinarritutakoa, eta ikuspuntu horretatik, aztertzea merezi dute.

- Bestetik, **partaidetza-profilak** daude, «horien ganean egin beharreko» edo «horietan egin beharreko» modu berriak aipatzen dituztenak. Profilen baitan daude nola **partaidetza-talde berriak** direlako, hala txikiak direlako alde aurretik sakon aztertu ez direnak. Talde honen baitan sar daiteke, besteak beste, etorkinen, adinekoen, gurasoen elkarten eta erlijio-, kultur- edo kirol-mugimenduen parte-hartze soziala.

Arrazoi operatiboengatik nahiz **bereizte aldera, bi kapitulutan banatu nahi izan ditugu. Honetan, erduei eta lanei buruzko ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu**, eta hurrengoan, lanean antzemandako partaidetza-profilak aztertuko dira (ikuspuntu metodologikoaren ildoan jarriko da arreta).

7.1. Boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko beste modu batzuk.

Norberaren burua antzemateko atalean aipatutako **partaidetza-modu nagusiez gain (militantzia, boluntariotza, lankidetzak), badaude hain ohikoak ez diren beste partaidetza-modu batzuk (berritasungatik, edo ez hain ohikoak izateagatik)**. Sarreran adierazitako moduan, **alde aurretik egindako ikerketek «boluntariotza modu berriak» deituriko kategoria beraren pean txertatzen dituzte boluntariotza-aniztasuna, boluntariotza bateratua, ziberaktibismoa eta ziberboluntariotza. Uste dugu kategorizazio hori ez dela zuzena: boluntariotza-aniztasuna eta boluntariotza bateratua forma txikiak dira** (baina ibilbide luzeak), eta **ziberaktibismoa eta ziberboluntariotza har daitezke partaidetza-modu berri gisa**.

Edozein kasutan, **ikerketaren xedeetako bat** aztertutako eremuetan partaidetza-moduen **azterketa sakona egitea** denez, **egiturari eustea erabaki da, eta atal honetan sartzea parte-hartze sozialeko lau formatu horiek**; horietako bi, aurrez aurreko geruzan boluntariotza-aniztasuna eta boluntariotza bateratua) eta beste biak, geruza digitalean (ziberboluntariotza eta ziberaktibismoa). Horietako bakoitza hobeto ulertzeko, definizio labur bat egingo dugu jarraian:



- **Boluntariotza-aniztasuna.** Termino orokor horren baitan (hedatuen dagoen terminoa izateagatik erabiltzen da hemen) **partaidetza-aniztasunaren errealitateak** aipatzen ditugu (**militantzia-aniztasuna, boluntariotza-aniztasuna, lankidetzan-aniztasuna**), parte-hartze sozialean boluntariotzako lanak gauzatzen dituzten pertsonak gara ditzaketenak. Proiektu desberdinetan partaidetza-harremanak dituzten pertsonak dira, nahiz eta **horietako bakoitzean dituzten inplikazio mailak desberdinak izan daitezkeen.**
- **Boluntariotza bateratua.** Boluntariotzaren Aragoiko Koordinatzaileak (2012) emandako definizioaz gainera («aldez aurretik harremanik ez duten GKE bati lankidetzan eskaintzen dioten pertsonak, **larrialdi-egoera** baten ondorioz») eta «larrialdi eta ekitaldi handietan espezializatutako boluntariotza»), **kolaborazio zehatzak** gehitzea erabaki dugu (ekitaldi jakinetarako) edo funtzioari dagokionez oso espezializatuak direnak; betiere, **erantzukizun maila txikia izatearen eta denborari dagokionez dedikazio murriztua** izatearen baldintzarekin –eta denboran mugatua izatearekin–.
- **Ziberboluntariotza.** Ikerketa honetarako, ziberboluntariotza¹³ **urruneko** boluntariotza edo kolaborazio forma gisa hartu dugu, non pertsonak lanak normalean etxean egiten dituen **IKTen bidez**, gehienbat aurrez aurre parte-hartzerik izan gabe. Pertsona horiek **lan hauek** egin ohi dituzte: itzulpenak, diseinu grafikoa eta dokumentuen maketazioa, finantzazio-deialdien bilaketa eta horietara aurkezteko babes teknikoak, komunikazio-kanpainak sortzea eta sare sozialen kudeaketa edo kudeaketako edo legezko aholkularitza.
- **Ziberaktibismoa.** «Gizarte Ekintzako Boluntariotzaren Egoeraren Diagnostikoa»¹⁴ lanaren arabera, «boluntariotzaren osagarria den parte-hartze sozialeko modu bat da, IKTak erabiltzen dituen gizarte-kausetarako. [...] ez dute zertan boluntario formalak izan erakundeetan. Sentsibilizazioarekin lotuta dago, eta batik bat, eragin politikoarekin». Garatutako lan nagusien artean nabarmentzekoak dira «sinadurak, kexak eta eskaerak jasotzea; mezu elektronikoak bidaltzea; estekak/kanpainak zabaltzea kontaktu pertsonalen bidez; edo manifestazio birtualak egitea».

7.1.1. Boluntariotza-aniztasuna.

Boluntariotza-aniztasuna errealitate **txikia da kopuruari dagokionez** (partaidetza-aniztasuna dute pertsonen zati txiki batek), **baina aztertutako profil eta eremu guztietan dago**, batez ere profil batzuetan ohikoa izan arren (erlijiosoan, aldarrikapenezkoan eta autokudeaketakoan kasu).

«Hemen parte hartzen duen jende askok beste leku batzuetan ere parte hartzen du. [...] Askotariko militantzia tradizioa da auzoan. [...] Eta alderantziz ere gertatzen da, auzoko jende asko ezagutzen dugu eta batzuetan lankidetzan eskatzen diegu, une jakinetan».

Diagnostikoa bat dator beste ikerketa batzuek beste errealitate batzuetarako **antzemandakoarekin**; hain zuzen, adierazten dute ohikoa dela erakundeetan pertsona boluntariotza-aniztasunak parte hartzea, haien dedikazioa guztietan berbera izan beharrik gabe. Ildo horretan, txosten honek gehi dezake **persona boluntariotza-aniztasunak** erakunde batean **militantziaren rola** (arduraldi handiagoa izan ohi dute bai emozioei dagokienez, bai denborari dagokionez) eta beste proiektu batean **boluntariotzako rola** (egonkorra, baina arduraldi txikiagoarekin) nahasten dituztela, **eta kolaborazio zehatzak ere egiten dituztela** (horien bidez, interesgarri zaizkien beste erakunde edo mugimendu batzuetako ekintza zehatzak babesten dituzte hitzartutako arloetan edo uneetan).

Horretarako **arrazoia** arrunta da. Bereziki aktiboak diren eta parte-hartze sozial handia duten pertsonak izan arren, **denbora mugatua da eta eguneko orduak lanaren, familiaren eta abarren artean banatu behar dira**. Ondorioz, partaidetza-proiektu guztietan ezin dute konpromiso maila bera onartu.

¹³ Peña Lopezen (2009) arabera, «on-line boluntariotza, lineako boluntariotza edo boluntariotza birtuala» dei geniezaioke.

¹⁴ Espainiako Gobernua (2011a).



Txosten honetan antzeman da **formatu hori ohikoagoa dela profil batzuetan beste batzuetan baino**. Esaterako, **aldarrikapenezko autokudeatutako errealitateetan, erlijio-mugimenduen errealitateetan eta**, hein txikiagoan, **etorkinen boluntariotzako errealitateetan** topatzen dira gehiagotan pertsona boluntario-aniztunak.

«Boluntariotza-aniztasuna [...] mugimenduaren zati bat da. [...]. DNAREN zati bat da. Hemen daude, baina beste leku batzuetan egon ohi dira, ez dira arlo batera mugatzen».

Hala ere, **boluntariotza-aniztasun desberdinak** daude. **Erljio-mugimenduei** dagokienez, boluntariotza-aniztasuna erlijio-sinesmenaren proiektu edo erakunde desberdinetan gertatu ohi da. **Etorkinen** kasuan, lankidetzak askotarikoa da, baina soilik beren komunitateko lan arloetan. Aldiz, **autokudeatutako aldarrikapenezko** taldetan lan egiten duten pertsonen dagokienez, lotura gehiago lotzen da ekintza tematikoarekin (ideologikoki antzeko mugimenduak) edo geografikoekin (auzo jakin baten aldeko apustua, eremu horretako erakunde desberdinekin lankidetzan arituz).

7.1.2. Boluntariotza bateratua.

Boluntariotza bateratua ere errealitatea da aztertutako diagnostikoan, eta halaber, ohiz kanpoko ekitaldiekin gehiago lotzen den interpretazioan (larrialdiak, hondamendiak), nahiz egunerokoagoak diren beste jarduerak batzuetan (ekintza zehatzak edo lan jakinak).

Lehenengo kasuan, **ez da ohikoa erakundeek eta taldeek larrialdi-kasuetan lagun dezaketen pertsonen sare bat izatea**. Aztertutako auzoetan lan egiten duten erakundearen profilak gizarte-larrialdiko profil hori ez edukitzeagatik izan daiteke hori (hortaz, antzeman ahal izateko, beste eragile eta eremu batzuetara jo beharko da).

Ohikoagoa da boluntariotza korporatiboaren bidez bideratzea; boluntariotza mota horretan, lekua ematen zaie lankidetzak bateratu zehatzei, besteak beste: odol-emateak, jostailu-bilketak, elikagaien bankuarekin lankidetzak-kanpainak... Nolanahi ere, partaidetza-errealitate txiki bat denez –hurrengo kapituluaren ikusiko den moduan–, figura hori ere hala izango da.

«Elikagaien bankuaren kanpainetan inplika daitezkeen sustatzen dugu. Dirua biltzen dute lankideei eurei ogitartekoak salduz. [...] Gainera, jostailuen eta jantzien bilketak, odola emateko kanpainak eta abar egiten dira».

Bestalde, **bigarren interpretazioa** (ekintza edota lan zehatzekin lotutakoa) **nahiko ohikoa da kopuruari dagokionez**; kontsultatutako erakunde eta talde ia guztiek dute lankidetzak zehatzetarako hirugarren erantzun bat une jakinetarako (jaiak edo funts-bilketak, manifestazioak, aldarrikapen-ekintzak eta abar). Era berean, ohikoa da, baita ere, lan oso zehatzak egiten dituzten pertsonak izatea (ezagutza teknikoekin lotuta); betiere, horiek konpromiso maila txikiagoa dute, denbora-arduraldi murriztua eta denbora-muga argia (aldez aurretik jakiten dute zenbait denbora iraungo duen eta zenbat denborarako izango den).

«Jaiak iristean, beti dago jendea esku bat botatzeko, txosna muntatzeko, txandak egiteko, jardueretan lankidetzan aritzeko...».

«Gauza zehatzetarako izanez gero eta jarduerak gidatuta emanez gero, ez dago arazorik jendea aurkitzeko».

«Jaiegun batean jartzen dugun taberna batekin dirua ateratzen dugu klubetarako. Eta beraz aurrera eramateko laguntza eskatzen dugunean, inoiz ez da jenderik falta».



7.1.3. Ziberboluntariotza.

Oro har, eta beste azterketa batzuek dagoeneko aipatutakoarekin bat etorrita, urrunean boluntariotza-lanak egiteak **gutxiengoa** izaten jarraitzen du, eta erakundeen askotan agertzen den arren, **txikia da pertsonen kopuruari dagokionez**.

Gainera, adierazi behar dugu ziberboluntariotzaren pean erakunde parte-hartzaileek hainbat funtzio identifikatzen dituztela:

Hasteko, **barneko ziberboluntariotza-lanak** identifikatzen ditugu, hau da, kide aktiboek urrunetik egindako lanak (adibidez, lehenengo edo bigarren antolakuntza-eraztunekoak), parte-hartze sozial boluntarioa bizitzaren gainerako alderdiekin hobeto uztartzeko (lanekoa, pertsonala, familiakoa).

«Internet bidez boluntariotza egiteak aukera ematen du hori ordutegirik gabe egiteko, ahal duzunean egiteko; hots, bulegotik egin dezakezu, adibidez».

Zentzu horretan, eta 9. kapituluari aurkeztuko den moduan, **IKTak laguntza handia ematen diete pertsona horiei, eta boluntariotzari denbora gehiago eskaintzeko aukera ematen diete**; izan ere, lantokitik edo etxetik egin ditzakete lanak, arduraldia aurrez aurre eskaini beharrik gabe.

«Lanak banatzen ditugu, eta etxetik egin ditzaket. Teknologia berriei pixka bat errazagoa da».

«Arratsalde bat libre izateko, hiru aste igarotzen ditugu tartea aurkitzen».

Posta elektronikoa eta Whatsapp tresna (eta, hein txikiagoan, sare sozialak) laguntza handiak dira; bereziki, aurrez aurre elkartuta kudeaketa zailagoa den talde edo erakundeetan; urrunean lan egiteko sistema eraginkorrek garatu dira (arestian azaldutako moduan, atal espezifiko batean zabalduko da), eta errotik egindako aldaketa izan da azken urteetan.

«Gure kasuan, orain, Whatsapp, sare sozial eta abarrekin, geldiezina izango litzateke. Whatsapp aplikaziorik ez zegoenez, eta blogak eta sare sozialak erabiltzea ohikoa ez zenez, kudeaketa nekagarria zen; guztia telefono eta SMS bidez egiten genuen».

Bigarren, **kanpoko ziberboluntariotza-lanak** daude. Lan espezifikoak dira, zuzenean lotuta daude gaitasun profesionalekin, eta kolaboratzaileek egiten dituzte (3. eraztuna). Konpromiso eta arduraldi maila txikiagoa dute, eta lan hauek egin ohi dituzte, besteak beste (jarraian hitz egingo da hauei buruz): itzulpenak, diru-laguntzen deialdiak babestea, komunikazioa eta sare sozialak kudeatzea...

Partaidetza modu txikiagoa da kontsultatutako erakundeen eta taldeen artean. Horien zati txiki batek aipatu du partaidetza mota hori dutela, nahiz eta onuragarria dela uste duten; izan ere, gaur egun denbora-faltagatik edota ezagutzarrik ez izateagatik deskuidatzen dituzten lanak egiteko aukera emango lieke.

«Ez dugu denborarik sare sozialak eguneratzeko, etxea txukuntzeko, lan egiteko, haurrak zaintzeko... Horretan laguntza pixka bat ondo etorriko litzazuke...».

«Itzulpena [...] boluntariotzako arlo gisa planteatuko genukeen. Ez da gauzatu, ez dugulako izan».

7.1.4. Ziberaktibismoa.

Ziberboluntariotzak baino presentzia txikiagoa du ziberaktibismoak aztertutako erakundeen eta taldeen artean. Oro har, **gutxi erabilitako parte-hartze modu** bat da, **IKTak erakartzeko edo mobilizatzeko gutxi erabiltzen** diren moduan; **aldarrikapenezko eta autokudeatutako ekimen** (Plataforma de Afectados por



la Hipoteca), **erlijio-ekimen** (Santa Clara parrokia) edo **hezkuntza-ekimen** (Sin Colegios en Miribilla plataforma) batzuek **soilik txertatu dituzte ziberkatibismoaren bereizgarri batzuk** beren jardueretan. Hain zuzen, hurrengo kapituluan ikusiko dugu hori.

Aztertutako gainerako erakundeetan eta taldeetan, **ziberaktibismoa oso gutxi erabiltzen da, ez da jarduteko modu orokortua eta ez da zuzenean sustatzen parte hartzeko modu hau** (eta gehienera ere, bigarren mailako egiturek –koordinatzaileek, federazioek eta abar– antolatutako eta interesgarritzat jotako ekimenak hedatzen dira beren gizarte-oinarrian).

Ziberaktibismoa, ordea, azkenaldian **garrantzia ukaezina hartu duen parte-hartze sozialeko modu** bat da. Nazioarteko fenomenoek, [Occupy Wall Street](#) kasu, edo, estatu mailan, M15 mugimenduak esaterako, erakutsi dute **jarduteko modu berri bat dagoela, aurreko partaidetza-egiturekin hain lotuta ez dagoena, baina aspaldi ikusten ez zen jendea mobilizatzeko gaitasuna duena**.

Ezinbestean gizarte-ehunak bultzatuta ez dauden partaidetza-sistemak dira, haien jarduera dimentsio geografikotik harago doa, eta Internet bidez egituratzen da funtsean. Deialdiari eta kudeaketari dagokionez sare sozialetan (Twitter edo Facebook kasu) edo aplikazioetan (Whatsapp, esaterako) oinarritzen diren mugimenduak dira. Tresna horiek aukera ematen dute oihartzun mediatikoa egiteko eta herritarrek deitzeko gaitasuna esponenziala izateko, eta talde mota guztietara iristen da (besteak beste, eremu geografikoaren, gizarte-klasearen, adinaren, ideologiaren edo gizartearen eta ekonomiaren nahiz gizartearen eta hezkuntzaren mailaren aldagaiak alde batera utzita).

Hori horrela, **pertsona berriak deitzeko gaitasuna dute**, aldeztu aurretik badauden bideen bidez parte hartu ohi dutenetatik bestelakoak; horrek **hautsi egiten du nahikoa endogamikoa** izateko joera **eta partaidetza-proiektuan dagoen txandakatze-falta**, eta ikusi dugun moduan, hori da parte-hartze sozialaren eta boluntariotzaren arloan arazo nagusietako bat da.

Horrek **gogoeta** bat egitera eraman gaitzake; hain zuzen, ea **gaur egungo partaidetza-egiturek talde berri horien premiei erantzuten dieten, ez baitira egungo gizarte-mugimenduak beren ekintzak bideratzen dituztenak**; aldiz, haietatik kanpo jarduten ez badute, paraleloan jarduten baitute. Ziberaktibismoaren bidez parte hartzen duten pertsonak **agian ez dute aurkitu** gizarte-ehunean haien ustez jarduteko beharrezkoak diren antolakuntza-moduak, -gaitasunak eta -ereduak, eta, ondorioz, **beste modu batean antolatzea erabaki dute**. Bide horretan, gainera, gizarte-ehunaren edo gizarte-mugimenduen bidezko partaidetza-esperientziarik ez duten pertsonengana iritsi dira kasu askotan, eta mugimendu berri hauek parte hartzeko espazio gisa identifikatzen dituzte.

Eragin boteretsua dute, bai elementu orokorretarako, bai zehatzetarako. [Ferrerás \(2011\)](#) egileak M15 mugimenduaren bere analisia adierazten duen moduan, «M15 mugimendua Interneten sortu zen [...], eta hauteskunde-kanpainaren garaian agenda mediatikoak eta politikoak aldatzea ekarri zuen». **Eragiteko gaitasun nabaria du, baita ere, ekintza zehatzetan**, hala nola [aldaketa zehatzak](#) lortu dituzten [Twitter](#) bidez egituratutako kanpaina kritikoei buruzkoetan, esaterako, baina nahi gabeko [ondorio negatiboak](#) ere izan dituzte batzuetan. Ondorioz, zenbait egilek aipatu dute «zaindarien zaindari» bihurtzeko (Doval eta Martínez, 2012), ziberaktibismoaren sakabanatzeak eta deszentralizazioak berak kontrolatzeko zaila izatea eragiten baitu eta erantzukizunak eskatzea zaildu egiten baitu.

Arestian adierazi dugun moduan, **errealitate geografikoetatik at dagoen parte-hartze sozialeko modu** bat da, eta hiru errealitate geografikoetako azterketa sakon batean oinarritutako ikerketa-eredu batek **ez du berau jasotzea lortzen**, nahiz eta Bilbo Zaharra (EAEko gizarte-jardueren arloko ekimen berritzaileenak eta deszentralizatuenak gauzatzen dira), Zabalgana (gizartearen eta demografiaren profilagatik jaiotzeko pertsona digital asko daude) edo Zumarraga/Urretxu (partaidetza-osagai handiak dituzten ekimenak egiten dira) bezalako eremuak hautatu diren.

Hori dela-eta, **ikerketa honek ezin du asko argitu parte-hartze sozialeko eredu hori, ikerketaren ardatza** (geografikoa eta tematikoa) **ez baita egokiena** ziberaktibismoaren ezaugarriak ikertzeko.



Hala ere, ikerketa honen esparruaren baitan, eta **irizpide geografikoak efektu mugatzailea izan arren**, aztertutako eremuetan **intentsitate baxuko ziberaktibismo-ekimen batzuk antzeman dira** taldeetatik eta erakundeetatik kanpo (formalki eratuak edo formalki eratu gabeak), nahiz eta ia bakarrik **aldaketa zehatzak lortzeko sinadura-bilketen arloko banakako ekimenen ingurukoak izan**, [Change](#) edo [Petición Pública](#) bezalako plataformen bidez.

Oro har, hirigintza-aldaketei buruzko eskaerak dira, talde formalen bidez kapitalizatuta ez daudenak (taldeko ekimenen bat egon badagoen arren); aldiz, **aldaketa jakin bat lortu nahi duen eta helburua lortu ondoren desagertuko den** herritarren eskaera bat gauzatzea erakusten dute.

7.2. Harremanen eredu berria boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko lanetan.

Tradizionalki, **boluntariotzari atxikitako lanak zuzeneko arretako eta programen garapenerako funtzioak babestearekin** (taldeei laguntzea, lan osagarriekin laguntzea, etab.) nahiz **kudeaketa- eta administrazio-lanak babestearekin**¹⁵ lotu dira.

Lan mota horiek **asko aztertu dira eta ulertzen dugu ez direla dokumentu honetan sakon aztertu behar**. Nahikoa da esatea **aztertutako erakunde guztietan direla komun**.

Nahiko berritzailea den elementu gisa, adierazi behar da pertsona ordainduak dituzten erakundeetan pertsona horiek izan arren kudeaketako eta administrazioeko lanez arduratzen direnak, **krisi ekonomikoko egungo egoeraren ondorioz, erakundetako batzuek boluntarioetara jo dutela** lan horiek egiteko (erakundeek kontratazioak egiteko bitartekorik ez dutenean).

«Kudeaketako eta administrazioeko lanak horretarako kontratatutako gerenteak egiten ditu».

«Aurrekontuak, balantzea... liberatutako pertsonak egiten ditu horiek guztiak».

«Boluntariotzaren, kontabilitatearen, finantzaketaren eta abarren arloko kudeaketan laguntzen ari diren boluntarioak ditugu».

«Gaur egun, programen zuzendaritza eta kudeaketa boluntarioek egiten dute, ez dagoelako baliabide ekonomikorik».

Nolanahi ere, interesgarriagoa da (gutxiago aztertu delako eta gero eta gehiago gauzatzen delako) **eskaini daitekeen denborarekin lotutakoa baino ezagutza eta gaitasun profesionalekin lotuagoa dagoen parte-hartze sozialeko beste modu batzuk azterzea**.

Bestela esanda, antzemandako boluntariotza-lan ugarik **harremanen eredu berria ezarri dute boluntarioen eta erakundeen eta taldeen artean**; izan ere, **haien oinarria ez da «zenbat denbora eskaintzen dudana», «ekarpena zertan egiteko gai naiz» baizik**, eta, beraz, erakundeetan sartzeko modua eta **ezarritako harreman mota bestelakoa da**.

Boluntarioek gauzatzen dituzte lan horiek gaiari dagokionez **ezagutza tekniko espezifikoak** dituztelako, eta erakundeari laguntzen diote lan osagarrietan. **Zehatzagoak eta espezializatuagoak** dira, eta **aurrez aurreko arduraldi txikiagoa** eskatzen dutenak –kasu askotan–, eta batik bat, egitura edo nukleo gogorrek **harreman txikiagoa** dutenak; hortaz, konpromiso maila txikiagoa da.

Boluntarioaren eta erakundearen artean harreman mota desberdin bat egituratzen du horrek; izan ere, oinarrian ez dago eskaintzen diren ordu kopurua (azterketetan aldagai nagusia izan ohi zen), gauzatzen duen lan mota eta erakundeari ekartzen dion **balio erantsia** baizik. Mota honetako lan hauek antzeman dira batik bat:

¹⁵ Eusko Jaurlaritza (2012)



- **Komunikazioa, diseinua eta sare sozialak.** Komunikazioko, diseinu grafikoko, dokumentuen maketazioko eta sare sozialen kudeaketako lanak oso ohikoak dira boluntarioen artean, askotan ziberboluntariotzaren bidez eta gaiari dagokionez ezagutza teknikoak dituzten pertsonen eskutik.

Ohikoa da programazio, diseinu grafiko eta *social media* arloko ezagutzak dituzten pertsonak erakundeei laguntzea sare sozialak eguneratuta izaten gutxi edo gehiago, web orriak eguneratzen eta berritzen eta une jakinetan horma-irudiak diseinatzen. Aitzitik, jarduerari buruzko blogak egituraren baitako boluntarioek garatzen dituzte, horietan erakundearen egunerokoari buruzko informazio gehiago jartzen baita.

«Bloga igande arratsaldean eguneratu ohi dut, txangoetatik itzultzen garenean».

«Hainbat pertsona arduratzen dira web orriaz eta Twitter tresnaz; ezagutzaren arabera, batzuek web orria programatzeaz eta editatzeaz arduratzen dira, eta beste hainbat, berriz, sare sozialen kudeaketaren komunikazioaz».

«Horma-irudien eta logotipoen arloko irudien lana egin behar denean, boluntarioei lankidetzaz eskatzen zaie».

Arduraldi hori urrunean egiten da askotan, eta erakundearen barnekoenak diren nukleoetakoak ez diren profilen eskutik; ondorioz, batzuetan, **persona horrek erakundea utzitakoan** (edo denbora gutxiago eskaintzen dionean), **sare sozialen edo web orrien arloko lanak kaltetu egiten dira**, eta askotan, gelditu edo ezagutza txikiagoarekin egiten dira.

- **Itzulpengintza eta hizkuntzak** Hainbat hizkuntzatan komunikatzea eta materialak egitea boluntarioen edo kolaboratzaileen ohiko lanetako bat da, nahiz eta garatzen den jardueraren eta jarduten den eremuaren arabera. Adibidez, oro har Zumarraga/Urretxuko erakunde gehienak euskaraz eta gaztelaniaz era berean komunikatzen badira ere, Bilbo Zaharrean eta Zabalganan komunikazioa gaztelaniaz egiten da, batik bat. Ondorioz, azken bi eremu horietan barne-erabilerako materialak gaztelaniaz soilik egon ohi dira, adibidez, hura baita hizkuntza erabiliena.

«Gure taldean euskara eta gaztelania menperatzen duten pertsonak daude, talde bakoitzari bere ama hizkuntzan erantzuteko. Materiala bi hizkuntzatan argitaratzen da».

Nolanahi ere, publiko orokorrari zabalduko zaizkion edukiak izanez gero (horma-irudiak, liburuxkak, txostenak, etab.), erakundeek arreta berezia jartzen dute euskaraz nahiz gaztelaniaz izan daitezen. Era berean, Bilbo Zaharrean eta San Frantziskon ohikoa da, baita ere, materialak beste hizkuntza batzuetan ere argitaratzea, hala nola: ingelesa, frantsesa, arabiera, wolof edo urdu.

«Gure erakundearen lanerako bi hizkuntza ditugu: arabiera eta gaztelania. Eskala txikiagoan, euskara eta Afrikako tokiko hizkuntzak erabiltzen ditugu».

Lan horiek guztiak ez dira erakundetik kanpo ordainduta egiteko eskatzen; aldiz, itzulpenak egiteaz boluntarioak arduratzen dira. Hain zuzen, edukiak ingelesera, frantsesera edo EAEd kanpoko beste hizkuntza batzuetara itzultzea izan ohi da etorkin boluntarioak lankidetzan hasten direnean egiten duten lehenengo lanetako bat.

- **Bestelako zereginak.** Hain ohikoa izan ez arren, kolaboratzaileek ezagutzen dituzten gai jakinetan laguntza eskaintzen dituzten hiru funtzio antzeman dira gutxienez. Hain justu ere, honako hauek:



- **Informatika.** Zenbait erakundek kolaboratzaileak dituzte ekipamendu informatikoen mantentze-lanak egiteko, egunean jartzeko, konponketa zehatzak egiteko... Horrela, zerbitzu hori egiteko azpikontratazioa saihesten dute.
- **Lege-aholkularitza.** Gizartean esku hartzen duten, etorkinei laguntzen dieten... erakundeen artean, lankidetzan espezifikoa izan ohi dituzte zuzenbidean ordainduta jarduten direnen aldetik, baina zenbait kasutan kontsultetan laguntzeko eskaintzen dira *pro bono* (eta lege-ordezkaritzekin ere laguntzen diete).
- **Aholkularitza teknikoa.** Erakunde hauetako asko diru-laguntzen menpe daudenez, deialdien eta justifikazioen aldietan kanpoko pertsonen laguntza izan ohi dute, eta administrazioaren eta diru-laguntzen sarea ezagutzen dutenez, eskaerekin laguntzen diete. Hori gertatzen da bai txikiak izateagatik lan guztiari aurre egin ezin dioten erakundeetan, bai osaeragatik prozedurak ezagutzen ez dituzten erakundeetan (adibidez, helduak edo etorkinak).

Aitzitik, eta Boluntariotzaren Estatuko Diagnostikoak (2011a) adierazten bazuen ere **prestakuntzaren, antolakuntza-kalitatearen eta ingurumen-kudeaketaren arloko boluntariotza** agertzen zela, lan honen emaitzetatik ezin da ondorioztatu lan horiek errealitatea direnik, aztertutako eremuetan, bederen.

Prestakuntzari dagokionez zehazki, boluntariotza-funtzioa ez da ohikoa, eta erakunde oso gutxi trbatzen dituzte teknikariak edo boluntarioak jardura horretarako soilik erakundearekin edo taldearekin lankidetzan aritzen diren kanpoko boluntarioen bidez.

«Boluntarioak ditugu, sektoreko profesionalak, eta unean-unean, hitzaldiak eta trebakuntzak eskaintzen dituzte».

Eskuarki, boluntarioei eskainitako prestakuntza ordaindutako langileek edo lankidetzan denbora gehiago daramaten eta konpromiso sendoa duten erakundeko pertsonak eskaintzen dute, harrera egiteko edo erakundean boluntariotzako lanak egiten laguntzeko. **Horrek ez dakar joera berririk**, prozedura tradizionala eta ohikoa da baizik.

«Boluntarioa iristean, harrera egiten zaio eta trebatu egiten da».

Halaber, adierazi behar da aztertutako kasu bakar batean ere ez dela antzeman antolakuntza-kalitateko edo ingurumen-kudeaketako hobekuntzak ezartzen jarduten duten boluntariorik. Hain zuzen, alderdi hori joera gisa aurkeztu zuen arestian aipatutako estatuko diagnostikoak.

FUNTSEZKO ALDERDIEN LABURPENA

Parte hartzeko modu nagusiez gain (militantzia, boluntariotza, lankidetzan), **hain ohikoak ez diren parte hartzeko beste modu batzuk** daude (berriak izateagatik nahiz hain ohikoak ez izateagatik); **nolabaiteko nahasketa** sortu da horien inguruan, kategoria beraren pean sailkatu izan baitira (boluntariotza modu berriak).

Nolanahi ere, ulertzen dugu parte-hartze sozialeko modu horien baitan, **guztiak ez direla berriak**. Zehatz-mehatz, **boluntariotza-aniztasuna eta boluntariotza bateratua** moduek ibilbide luzea dute, nahiz eta gutxiago aztertu diren eta kopuruz txikiak diren.

- **Boluntariotza-aniztasuna.** Partaidetza-aniztasuna (boluntariotza-aniztasun hartzen dugu kontuan hemen, baina militantzia-aniztasuna edo lankidetzan-aniztasuna ere aipa genitzake, adibidez) parte-hartze sozialeko eredu bat da, eta partaide kopuru txikia du, kopuru osoarekin alderatuta. Aztertutako ia erakunde guztietan agertzen da, figura jakinetan izan arren. Gainera, batzuetan partaidetza-aniztasunean jarduten duten pertsonak militanteak dira erakunde batean, boluntarioak beste batean, eta kolaboratzaileak hirugarren batean, denbora-arrazoi hutsengatik.



- **Boluntariotza bateratua.** Definizio zorrotzenaren arabera, ez da ohikoa ikerketa honetan parte hartu duten erakundeen artean. Hala ere, interpretazio zabalago bat eginez gero (kolaborazio jakinen ildoan), ohikoagoa da, eta lankidetzako hirugarren eraztunarekin lotu ohi da.

Aldiz, **ziberaktibismoa eta ziberboluntariotza** har daitezke **partaidetza modu berritatzat**.

- **Ziberboluntariotza.** Ez da horrenbeste agertzen joera orokor gisa (geruza digitaletik soilik laguntzen duten pertsonak), aurrez aurreko partaidetzaren zati gisa baizik; zenbait lan Interneten bidez eta teknologia berriak erabiliz egiten dira, partaidetza eta laneko bizitza, bizitza pertsonala eta familiako bizitza uztartu ahal izateko. Ziberboluntarioak kolaboratzaileak badira (kanpokoagoak dira eta arduraldi txikiagoa dute), lan oso zehatzak egin ohi dituzte; hala nola itzulpenak, diseinu grafikoa, sare sozialen kudeaketa eta abar.
- **Ziberaktibismoa.** Erakundeen eta taldeen artean formula ezohikoena da, eta ia salbuespenezkoa da. Ziberaktibismoko ekimen gehienak ekimen pertsonal ez-antolatuekin dute zerikusia, eta aldaketa zehatz bat lortzea dute xede (sinadurak bilduz, sare sozialetan kanpainak eginez...). Orain arte, erakundeek ez dute administrazioarekin lehentasunezko aldarrikapen modu gisa hartzen, eta nahiago dute dagoeneko badauden bideetara jotzea. Edonola ere, muga geografikoak gainditzen dituen partaidetza modu bat denez, tokiko eta auzoko ikuspuntu batean oinarritutako ikuspegi batek ez ditu eskaintzen tresna onenak alderdi hori jasotzeko.

Eredu horiekin lotuta, gainera, boluntariotzari **tradizionalki lotzen zaizkion hainbat lan desberdin daude** (zuzeneko arreta eskaintzea edo kudeaketan laguntzea); horiek **harreman-eredu berri bat ezartzen dute, eta eskaintako denboran baino gaitasun profesionaletan gehiago oinarritzen da.** Ondorioz, paradigma tradizionala hausten da, hein batean.

Bestelako harreman-eredu bat ezartzen duten lan berri horien artean daude, adibidez, **sare sozialen kudeaketa, diseinu grafikoa, aholkularitza teknikoa edo juridikoa eta dokumentuen itzulpena.** Horiei dagokienez, lotura-unitatea ez da «zenbat denbora eskaintzen dudan», «zein lanetan ematen dut balioa» baizik.



8. BOLUNTARIOTZAKO ETA PARTE-HARTZE SOZIALEKO PROFILAK ETA IDENTIFIKATUTAKO PRAKTIKA BERRIAK.

Aurreko kapituluaren sarreran adierazitako moduan, kapitulu honetan Bilbon, Vitoria-Gasteizen eta Zumarraga/Urretxun sortutako erakundeen eta taldeen profilak aurkeztuko ditugu. Horiek garrantzitsuak dira parte-hartze sozialeko eremuak sortzean, boluntariotzari eta asoziazionismoari buruzko interpretazio zorrotzen arabera tradizionalki aintzat hartutakoez harago.

Bigarren kapituluan testuinguruan kokatutakoaren ildoan urrats bat gehiago emanez, aurreko diagnostikoetan aurreikusitako batzuek gain¹⁶ (adinekoen boluntariotza eta boluntariotza korporatiboa kasu), **parte-hartze sozialeko eta boluntariotzako beste profil batzuk gehitu dira; horiek analisia aberasten dute eta normalean, ekimen mota hauetatik kanpo geratu izan dira** (edo albo batetik aztertu izan dira), gizarte-mugimenduak edo talde informalak barne:

- **Adinekoen/adinekoentzako boluntariotza.**
- Boluntariotza tekniko eta profesionala (azterketa-gunea areagotuz eta **boluntariotza korporatiboa** aintzat hartzeaz gain, **erakunde profesionalak** eta **eredu ekonomiko alternatibo berrietatik** datorren parte-hartze soziala ere kontuan hartuz).
- **Etorkinen/etorkinentzako boluntariotza.**
- **Erliziozko parte-hartze soziala.**
- **Aldarrikapenezko mugimendu autokudeatuak.**
- **Guraso-elkarteak.**
- **Auzo-mugimenduak.**
- **Kultur- eta kirol-ehuna.**

Halaber, **praktika edo egiteko modu berriak antzemandako profiletan**, elementu bereizle edota berri hori aztertuko da berariaz.

8.1. Adinekoen/adinekoentzako boluntariotza.

Aztertutako hiru errealitatetik bitan **boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko** esperientziak **daude adinekoen eskutik eta adinekoentzat**. Oro har, adinekoentzako erakundeen edo zentroyen ereduak dira zentzu klasikoan, nahiz eta egiteko modu berriak dituzten esperientzia berriak ere badaude.

Antzemandako ezaugarriak xehatuago aurkeztuko ditugun arren jarraian, zentzu klasikoan adinekoen erakundeek hitz egitean erretiratuen zentroak, erakundeak eta egoitzak izan ohi direnei buruz ari gara (Euskadi osoko auzoetan banatzen dira, eredu antzeko samarrekin), eta hein txikiagoan, adinekoak laguntzeko eta babesteko erakundeak.

Forma juridiko formala.

Ikerketan parte hartu duten erakunde guztiek kasu guztietan legez eraturako forma juridiko bat dute, normalean erakunde edo fundazio gisa. Ezaugarri normaltzat eta oinarritzotzat hartzen dute boluntarioek, eta uste dute haiena bezalako egitura batek formalki araututa egon behar duela eta ez dutela pentsatu beste moduren batera izan zitekeela.

Partaidetza-eskasia.

Erakunde mota guztietan antzemandako ezaugarri orokorra izan arren, adinekoen artean partaidetza gutxiago adierazten da, bereziki erantzukizun-karguak hartzeari dagokionez; oro har, partaidetza-erantzukizunak pertsona bereberak hartzen dituzte beren gain beti.

¹⁶ Aurreko kapituluaren aipaturakoak: *Europako Batzordea (2010), Espainiako Gobernua (2011a) eta Boluntariotzaren Aragoiko Koordinatzailea (2012)*.



«200 bazkideetatik seik eramaten dute hau aurrera, eta sei horietatik, hiruk dituzte erantzukizunak».

Orokorrean, erretiratuen zentroek eta erakundeek hiru eraztunen eskema betetzen dute, nahiz eta horien indarra txikiagoa den. Nukleo sustatzailea oso murrizta izan ohi da, baina indartsua intentsitatean, eta jarduerak antolatzeaz eta erakundea kudeatzeaz arduratzen direnak oso gutxi dira bazkideetako pertsona kopuru osoarekin alderatuta. Hori gertatzen da, baita ere, boluntarioen eraztunean; horien kopurua eta partaidetza oso txikia da.

«Arratsaldez soilik irekitzen dugun arren, goizean ere etortzen naiz guztia prestatzera. Gustatuko litzaidake noizbait dena prestatzen aritu behar ez izatea, baina uzten badugu, ez litzateke zentrorik izango, itxi egingo litzateke, ziur».

Jauzi oso handia dago hirugarren eraztunari dagokionez; eraztun hori lotura oso txikiko pertsona asko osatzen dute, eta batzuetan, zerbitzuen erabiltzaile gisa ikusten dute gehiago beren burua, boluntario baino.

Ikerketa egitean, antzeman da eredu horrek salbuespenak badituela; hala nola Gipuzkoako Nagusilan. Zumarragari dagokionez (sakonago aztertu da), erakunde horrek boluntario kopuru handia eta egonkorra mobilizatzen du, eta hazi egin da azken urteetan. Pertsona horiek erakundearekin lotura maila handia dute beren hitzetan, eta asteko lau ordu eskaintzen diete erakundeari.

Halaber, **ez dira ohikoak boluntariotza-aniztasunaren edo boluntariotza bateratuaren figurak**, salbuespen jakin batzuetatik harago, eta agian, Nagusilan bezalako erakundeak arau horren salbuespena dira, boluntariotza leialagoa dutelako.

Alde horren justifikazioa **partaidetza-eredu desberdina** izatea dela ematen du, **aisialdiko eta sozializatzeko zentro bat izatera atxiki gabe**, eta, aldiz, zailtasunak dituzten **beste pertsona batzuei laguntzeko**; hori **motibatzaileagoa da, eta beste pertsona mota batzuk erakartzen ditu**, aktiboagoak eta konprometituagoak.

«Gure xedea da urteei bizia ematea. Boluntariotza bizigarria nahi dugu, gizarterako balio erantsiarekin. Jende askok bizitzaren ilunabarrean bakardadeak soilik egiten die lagun».

Belaunaldi-txandaketaren falta.

Parte-hartzearen eskasia horrek berarekin dakar belaunaldi-txandaren falta oso larria izatea, eta erakundeen euren iraunkortasuna zailtzea; izan ere, zuzendaritza-batzordeak eta nukleo gogorrak gero eta txikiagoak dira kopuruz, eta ez dira beste pertsona batzuk sartzen.

Egoera hori oso zabaldua dago zentzu klasikoan adinekoen erakundeen gizarte-ehunean; bazkide kopuru nahiko handia dute, baina ez dira antolakuntzarekin eta kudeaketarekin lotzen, batez ere zerbitzuak hartzearekin baizik.

«Hemen daramazkidan urteetan, eta ia hamabost egin bete behar dira, ez du inor ikusi borondatez batzordera aurkezten. Jendeak ez du nahi, nahi duzuna jarri eta berdin da. Horri buruz hitz egiten duzu eta leku guztietan esaten dizute berdin daudela. Ez dago tartean sartu nahi duen inor. Niri egina eman diezadatelara. Arazo bat da».

Hortaz, belaunaldi-txandaren falta eta egiturazko eta kudeaketako lanetan konpromiso-falta, partaidetza-eredu guztietan orokortua izan arren, are larriagoa da erakunde mota hauetan; ondorioz, bazkideen proportzio oso handia behar da gutxieneko zuzendaritza-egitura bat izateko.

Norberaren burua antzemateari buruzko gogoetarik ez egotea.

Oro har, adinekoen erakundeetan boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko lanak egiten dituzten pertsonak ez dute beren burua definitzeko buruzko gogoetarik egin; gainera, haientzat gai hori ez da



garrantzitsua. «Boluntario», «militante» edo «kolaboratzaile» terminoa atxikitzeak ez die baliorik ematen, eta ez dute denborarik igaro gogoeta hori egiten.

Soilik ezartzen da nolabaiteko aldea dagoela lankidetzak jakinak egitera joaten diren pertsonen («kolaboratzaile» izendatzen dira horiek) eta egiturazko karguak dituzten («zuzendaritza-batzorde» gisa erlazionatzen dira) edo antolatutako jardueretara erabiltzaile gisa joaten diren pertsonen artean («bazkide» deitzen zaie arrunki).

Parte hartzeko motibazioak.

Oro har, bi motibazio autozentratu daude boluntariotzako edo parte-hartze sozialeko lanak egiteko. Batetik, **ondo egindako lan batekin ongi sentitzearen poztasuna bera**; ohikoa da egindako lanarekin bikaintasuna nahi izatearen diskurtsoa. Orokorrean, norberarentzako eta ingurukoentzako baliagarriak diren jarduerekin bizitza bete nahi da.

«Inplikatu egiten zara. Bikaintasuna bilatzen duzu. Ahal izanez gero, gauzak ondo egin nahi dituzu.»

Bestetik, inguruko **gizarte-aitortza** da partaidetzarako motibazio nagusietako bat, eta oso positiboki balioesten dira ondo ateratako jarduerak egindakoan jasotzen dituzten zorion-agurrak eta esker onak.

«Pozik gaude hartzen gaituzten moduarekin, eskertzen dizuten moduarekin. Egunen batean ez bazara joaten gaixo zaudelako, berehala galdetzen dizute ea nola zauden. Berehala kezkatzen dira. Etxera iritsi, eta nekatuta egoten zara, baina zeure buruari zera esaten diozu: gaur zerbait egin dut.»

Motibazioen **jatorriari** dagokionez, oro har, elkarriketatuek baieztatzen dute eguneroko bizitzan aktiboak izan direla beti, eta uste dute haiek orain gehiago parte hartzen badute ere erretiratuta egoteagatik eta denbora libre gehiago izateagatik, bizitzako aurreko urteetan sozialki aktiboa izan ez den pertsona bat ez dela orain hasiko partaidetza-erantzukizunak bere gain hartzen denbora libre gehiago izateagatik; aldiz, zentroetara eta erakundetara modu pasiboagoan joatera mugatuko da.

Lokalaren garrantzia.

Arestian aipatu bezala, lokal bat izatea partaidetzaren gauzatze-elementu bat da eskuarki (nahiz eta eragin handiagoa duen erakunde batzuetan beste batzuetan baino). Adinekoen kasuan, oro har, funtsezko elementua da.

Batetik, **parte-hartzeko joan behar den leku bat delako, elkartzeko leku bat delako**, lagunak eta harremanak egiteko leku bat delako eta **bizitza aktiboago bati lotuta jarraitzeko leku bat delako**.

«Egoitzarik egongo ez balitz, ez lirateke etxetik aterako. Abuztuan, itxi egiten dugu, eta arratsalde osoa banku batean eserita ikusten ditugu. Horrela, etxetik irteten dira, eta erlazionatu.»

Hortaz, lokal bat izateak (bereiziki, kalean) ikusgarri egiteko aukera ematen du, eta **jarduerak erakustekoa; modu horretan erakartzen dituzte pertsonak**. Izan ere, orokorrean, adin handia dutelako tratua eta erlazionatzeko modua aurrez aurrekoa da nagusiki.

Teknologiaren erabilera eskasa.

Oro har, nagusiagoak diren boluntarioek erlazioak aurrez aurrekoak izatea nahiago dute, eta elementu teknologikoak, nola posta elektronikoa, hala *Whatsapp* edo web orriak, gutxi erabiltzen dituzte. Are gehiago, ikerketan parte hartu dutenek argi eta garbi esan dutenaren arabera, **jardueretan dimentsio teknologiko handiagoa sartzen ahalegindu ziren esperientziak porrot egin dute**. Nolanahi ere, ikerketan parte hartu duten gizarte-erakunde gehienek badute, adibidez, posta elektronikoko helbide bat, baina nagusiki pertsona bakarrak gainbegiratzen du eta ez du erakunde osoak erabiltzen.

«Funtsean, jendearengana ahoz ahokoaren bidez iritsi gara. Norbaiti laguntzera joaten zarela ikusten zaituzte, eta zure lagunek esaten dizute haiek ere lagundu nahi dutela.»



Nagusilan izan daiteke kontsultatutako erakundeen artean salbuespen argia; izan ere, ahalegina egiten dute kontzienteki jardueretan eta barne-koordinazioan teknologiaren erabilera handiagoa txertatzeko pixkanaka, probintziatik barne-lekualdaketa saihesteko modu gisa nahiz komunikazioak aritzeko bitarteko gisa.

«Informazio guztia posta elektronikoz bidaltzen digute. Ahalegina egiten dugu teknologia berriak bultzatzeko».

Ildo horretan, web orria eta posta elektronikoa oso ondo balioetsita daude, eta laguntza ekonomikoa lortzen ahalegintzen ere ari dira bideokonferentzien sistema bat ezartzeko, udalerrri desberdinetako pertsonekin komunikatzeko aukera izateko, mugitu beharrik gabe.

Belaunaldiartekotasunaren garrantzia.

Elementu berritzaile gisa adierazi behar da adineko boluntarioentzat beren jardueretan parte hartzen duten eta kudeaketan laguntzen dieten gazteagoak egotea positiboki hartzen dela aintzat. Hala ere, ez da ohikoa, eta antzemandako esperientziak salbuespena izan daitezke, araua izan ordez.

Esaterako, aztertutako kasu jakin batean, San Frantziskoko egoitzan, boluntarioek boluntario gazteagoen lankidetzak dituzte gai jakinetan (kontuen kudeaketa, diru-laguntzen aurkezpena, gai informatikoak, etab.) eta oso positiboki balioesten dituzte.

«Gazteak dauden zentro bat, bizirik dagoen zentro bat da. Beste gauza bata da. Jendea askoz ere alaiago dago. Girorik ez badago, zertarako egingo zara bazkide?».

Gainera, jardueretako eta espazio komunitario (zerbitzu orokorrak, taberna eta abar, esaterako) bizikidetzak berak «jarduerari bizi» apur bat gehiago ematen diola usten dute, eta xede hori da –arestian aipatutako moduan– adinekoek lortu nahi duten helburuetako bat beren partaidetza-jardueran.

8.2. Boluntariotza tekniko eta profesionala.

Estatuko Diagnostikoak¹⁷ adierazitako boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko **joera berrien** baitan, eta Boluntariotzaren Euskal Estrategiaren¹⁸, erronketako baten gisa aitortuta, **arloteknikoekin eta profesionalarekin lotutakoak** daude; bereziki, **enpresatako boluntariotzari edo boluntariotza korporatiboari** buruzkoak (hala ere, esperientzia klasikoa da, eta ibilbide luzekoa).

Horrez gainera, **parte-hartze sozialeko beste bi esperientzia antzeman** dira gutxienez; horietako bat **erakunde profesionaleko** partaidetzarekin lotuta dago (ohikoenak dira merkataritzako eta ostalaritzako elkarteak) eta, bestetik, **eredu ekonomiko alternatiboekin lotutako parte-hartze sozialeko moduak daude, ondare komunarekin lerrotatuta.**

Azken eredu hori, **oso txikia izan arren, berritzaileagoa eta interesgarriagoa** da (estatuko diagnostikoen ez baita antzematen, eta berezko jarduera-ezaugarri berezituak ematen baititu), eta oso lotuta dago San Frantzisko auzoarekin eta Bilbo Zaharrarekin, Bilbon.

Egia esan, guztiak dira **partaidetza-esperientzia txikiak** aztertutako eremuetan; izan ere, eremu horietan lan egiten duten gizarte-ehunaren bidezko jardueren ugaritasunak eragiten du parte hartzeko bide nagusiak ez izatea. Nolanahi ere, elkarren artean oso bestelakoak direnez, **horietako bakoitzaren azterketa labur bat** eskainiko da jarraian, horien ezaugarriak hobeto ezagutze aldera.

¹⁷ Espainiako Gobernua. 2011a.

¹⁸ Eusko Jaurlaritza. 2013.



8.2.1. Boluntariotza korporatiboa.

Observatorio del Voluntariado Corporativo erakundeak honela **definitzen** du: «enpresa batek sustatutako eta bultzatutako jardueren multzoa da, eta horien xedea da langileak tartean sartzea eta libreki parte hartzea, beren denbora, gaitasunak eta talentua eskainiz irabazi asmorik gabeko kausetan, proiektuetan eta erakundeetan¹⁹»

Parte-hartze sozialeko bide bat da, eta Europako Batzordeak ezarri du garatu eta indartu beharreko parte-hartze sozialeko aukera bat dela; gainera, adibidez, ekintza espezifikoak gehitu ditu Boluntariotzaren Europako Urtean, 2011n.

Observatorio del Voluntariado Corporativo erakundeak berak adierazten badu ere estatuan 2011-2013 artean programa mota horiek hartu zituzten enpresen kopurua ia % 12 areagotu zela, figura horretan geldialdia egon dela ere aipatzen du. Gertaera hori, ikerketa honetan aztertutako esperientziaren arabera, berretsita geratuko litzateke, batik bat **krisi ekonomikoaren ondorioengatik**; horiek bi emaitza txar ekarri dituzte:

- Alde batetik, enpresek murriztu egin behar izan dituzte ekarpen teknikoak eta ekonomikoak programa horiei, horietako askoren emaitzen kontuei bereziki eragin baitie.
- Beste alde batetik, enpresa askotan dauden lan-egoera ahuleki eragin dute behetik egindako lan-negoizazioetako uneetan (soldata-murrizketekin, Enplegu Erregulazioko Espedienteak, etab.) enpresa bidezko parte-hartze soziala ez ikustea gehiengoarentzako parte-hartze sozialeko bide gisa.

«Boluntariotza korporatiboko programak urritu egin dira krisigatik. Batetik, eskuragarri dagoen dirua murriztu da, eta bestetik, enpresa bidezko parte-hartzea murriztu da. Krisi ekonomikoa faktore oso garrantzitsua da. Langileen soldata murriztea negoziatzen ari badira, ez dago parte-hartze argirik, jakina».

Ezaugarri orokorrak.

Aztertutako esperientziatik ondorioztatzen da ez dela parte-hartze sozialeko bide nagusietako bat; zian ere, **oro har, boluntariotza mota hori nahiko ezezaguna da, parte-hartze baxukoa da eta funtsean, ekintza zehatzetara edota jakinetara bideratuta dago.**

Hain zuzen, Arcelor Mittalen kasutik abiatuta, Euskadik eta, zehazki, Gipuzkoak –estatuko beste eremu batzuetako esperientziekin alderatuta **parte-hartze sozialeko maila baxuagoak ditu boluntariotza korporatiboaren bidez**, eta formula hori gutxiago ezagutzen da.

«Boluntariotzaren figura ez da ondo ulertzen, azaldu egin behar da. Jendeak hondamendi handien edo emaitza ikusgarriak dituzten kanpaina zehatzen aurrean bakarrik erantzuten du: jostailuen, arropen, betaurrekoen edo sakelakoen bilketa, janari- edo odol-emateak, etab. Hor, boluntariotza eta gizarte-marketina nahasten dira pixka bat».

Arrazoi nagusietako bat **beste partaidetza-egitura mota batzuen bidez parte-hartze sozialeko jarduerak garatzeko aukera asko egotea** dela dirudi, batik bat erreferentziako eremuetan kokatutako hirugarren sektoreko gizarte-erakundeak.

«Gipuzkoan, ikuspuntu korporatibotik atxikimendu gutxiago dago. Aldiz, jarduera askoz handiagoa dago gizartearen arloan; herrietako gizarte-ehunari hertsiki lotuta daude».

Hori erabat bateragarria da identifikatutako beste ondorioetako batekin; izan ere, **boluntariotza korporatiboa** eremu horietan **parte-hartze sozialeko aukera nagusietako bat izan ez arren, eremu**

¹⁹ [Boluntariotza Korporatiboaren Behatokia](#). Web orria.



horietako enpresetako langileak aktiboagoak dira beste eremu batzuetakoak baino, bereziki ekintza zehatzei dagokienez.

«Odola emateko Gipuzkoako kanpainak emaitza askoz ere handiagoak ateratzen ditu beste edozein lantegietakoarekin alderatuta».

Hortaz, lantokiak dauden eremuetan **hirugarren sektorearen indarrak programa mota horien aplikagarritasuna edo premia murrizten duela** esan dezakegu; enpresetako langileek ez dituzte beren parte-hartzea bideratzeko lehentasunezko bide gisa ikusten, eta beste gizarte-erakunde mota batzuk nahiago dituzte.

Boluntariotza korporatiboko jarduerak.

Salbuespenetan izan ezik, laneko ordutegitik kanpo egiten diren eta, normalean, aste barruan egiten diren jarduerak direnez, boluntariotza korporatiboko programek **ekintza nahiko zehatzetan** jarri dute arreta, bereziki bi arlo nagusitan: ingurumena eta gizartea.

- **Ingurumenari dagokionez, ekintza boluntario mota horiek** osatzen dute laneko arlo nagusietako bat boluntariotza korporatiboaren baitan, eta estatuko estrategian (2011b) eta euskal estrategian (2011b) jasotakoarekin lerrotatuta dago boluntariotzaren arloan; hain zuzen, txosten horiek jasotzen dute ingurumena dela hedatzeko balio nagusietako bat. Ohikoa da ibaibideak eta itsasadarrak, beste inguru natural batzuk edo plantazio ekologiko eta iraunkorrak garbitzeko ekintza jakinak topatzea; betiere, asteburuko ekintza gisa ikusita, adibidez, Petronor edo Telefonica enpresetan.
- **Gizartearen arloari** dagokionez, baterako jarduerak antzematen dira baita ere, ekintza zehatzak ardatz hartuta, hala nola: odola, jostailuak eta elikagaiak emateko kanpainak, eskaera handiko uneetan, bereziki (esaterako, hondamendi naturaletan, Eguberrietan, etab.). Adibide mota horiek ohikoak dira enpresa handietan, Arcelor Mittalen kasu.

Nolanahi ere, **jarduera mota horiez harago doazen programak** daude –hala nola ikerketa honetan aztertutako kasuan–, eta horien arrakasta areagotzen ahalegintzen dira, **eremu bakoitzaren errealitate geografikora, gizartearen eta demografiaren errealitatera, eta gizartearen eta ekonomiaren errealitatera egokituta**; izan ere, programa edo funtzionatzeko modu batek arrakasta izan dezake eremu batean, eta ez du interesik pizten beste batean.

«Ezaugarri bat da boluntariotza lantegi bakoitzak aukeratzen duenera egokitzea, komunitateak lagundu nahi duenera, alegia».

Zehazki, aztertutako kasuan hainbat partaidetza moda sustatzen dira. Espezifikoak dira eremu bakoitzean, eta orokorrean, Gizarte Erantzukizun Korporatiboko edo Boluntariotza Korporatiboko zuzendaritzen gainbegiratuaren pean langileek eurek proposatzen dituzte:

- Lehenik, arestian aipatutako **programa zuzenak** daude. Horietan, enpresak berak jartzen ditu abian boluntariotza-programak (normalean, gizartearen edo ingurumenaren arloan), eta horien bidez parte har dezakete boluntarioek.
- Bigarren, enpresaren **ekarpen ekonomikoak** daude; horietan, enpresak hornidura ekonomiko bat ematen die proiektuei, zuzenean (adibidez, gizarte-erakunde bati ekarpen jakin bat) nahiz zeharka (esaterako, lankidetzeta-bidaia eta -egonaldia erraztuz). Nahasketa bat ere badago; horren bidez, gizarte-ekintza jakin baterako funtsak biltzen dira (gizarte-erakunde baten aldeko lasterketa bat edo artikuluak saltzearen bidezko funts-bilketa solidario bat, adibidez).
- Hirugarren, **sentsibilizatzeko eta boluntariotza sustatzeko jarduerak** daude; horietan, enpresak zubi- edo lotura-lanak egiten ditu langileen eta eremu horretako hirugarren sektoreko erakundeen artean. Horretarako, erakunde horiek beren jarduerak aurkezteko ekitaldiak antolatzen ditu



(adibidez, boluntariotzaren aste edo egun baten inguruan), boluntarioen kopuruak gora egin dezan horietan; izan ere, azken xedea ez da enpresako bertako programetan parte hartzea, gizarte-erakundeekin zuzenean lankidetzan aritzea baizik.

Programen eragina.

Oro har, **boluntariotza korporatiboko programei buruzko nolabaiteko ezjakintasuna** antzeman da, eta enpresetatik hori arintzen ahalegintzen dira hedapen-ekintzak antolatuz, boluntariotzako egunei edo astei buruz, adibidez.

Ekitaldi horiek, aipatu bezala, langileei boluntariotza-programak aurkezteaz gainera, enpresa batzuek eragin-eremuan beste gizarte-erakunde batzuek garatzen dituzten jarduerak aurkezteko erakusleihogisa erabiltzen dute, eta langileek erakunde horiekin lankidetzan jardun daitezzen errazten dute.

Hain zuzen, boluntariotza korporatiboko programen bidez parte-hartze boluntarioak ez bezala, **formula honek emaitza oso onak izaten ditu batzuetan**; enpresaren papera zera da: hirugarren erakunde batzuetan partaidetza errazten duena izatea, eta ez horrenbeste bideratzailea izatea bere baliabideen bidez.

«Batzuetan, enpresaren egitekoa sustatzea da, zubi-lanak egitea, GKEak aurkezteko, eta gero, pertsonak bereizi egiten dira, eta modu pribatuan kolaboratzen dute erakunde horiekin. Dei bati erantzun zioten eta gero, ez dakigu zertan dabiltzan».

Funtzionatzeko moduak.

Arestian aipatutako moduan, gehienetan **laneko jardunalditik kanpo** egiten dira jarduerak, **modu zehatzean** eta ordutegi jakinekin (argi daude hasierako eta amaierako datak).

Halaber, enpresen zuzendaritzek parte-hartzea bultzatzen badute ere (barneko bitartekoetan hedatuz eta batzuetan, ekarpen ekonomikoak eginez), **proiektu jakin baten lidergoa boluntarioek hartu behar dute barnean**.

Ildo horretan, boluntariotza mota horren inguruan egindako gogoeta zera da: **parte-hartze sozialeko beste mota batzuen egoera antzekoa da, jarduerak antolatzeaz eta diseinatzeaz arduratzen diren pertsonen nukleo txiki bat baitago** (jarduera pertsonalean eta profesionalean aktiboagoak direnekin bat etorri ohi dira), **eta bigarren talde batek arduraldi txikiagoa baitu**; azken horiek jardueretan lankidetzan aritzen dira baldin eta **ekintza zehatzak badira eta konpromisoari eta intentsitate-orduei dagokienez mugatuta** badaude.

8.2.2. Elkarte profesionalak.

Aztertutako errealitate geografikoetan, **elkarte profesionalekin lotutako partaidetza-espazioak** ere badaude, eta horien bokazioa lotuta dago talde **profesional jakin baten hobekuntza ekonomikoarekin**.

Ohikoa da **merkataritza-elkarteak** egotea (ekimenak daude Zumarragan/Urretxun nahiz Bilboko Zazpi Kaletan eta Bilbo Zaharrean), nahiz eta **bestelako elkarte profesionalak** ere aztertu diren (hala nola Ikaslan Araba, Arabako Lanbide Heziketako Institutu Publikoen Elkarteak).

Oro har, **parte-hartze sozialeko maila eta boluntarioen konpromiso oso txikiko erakundeak dira, eta partaidetza-dinamizazioaren egiteko nagusia langile ordainduak hartzen dute euren gain, eta, orokorrean, bazkideek erakundea zerbitzuak eta laguntzak jasotzeko baliabide gisa ikusten dute**.

«Kudeaketaren, kalitatearen eta administrazioaren, komunikazioaren, diseinuaren eta sare sozialen, itzulpenen eta hizkuntzen eta abarren arloko lanak horretarako kontratatutako gerenteak egiten ditu».

Antzeman da **hiru eratzunen inguruko partaidetza-egituraren eredu orokorra betetzen dela**, nahiz eta kasu honetan, **nukleo gogorra** (egiturazko jarduerak pentsatzen eta garatzen dituen) **langile**



ordainduak osatzen duten, eta **bigarren maila, zuzendaritza-batzordeak** (txandakakoa). **Hirugarren eraztuna bazkideek** osatzen dute; horiek parte-hartzea ekintza zehatzetara mugatzen da soilik (biltzarra edo jarduera oso zehatzak egitea).

«Lan gehiena teknikariak eta zuzendaritza-batzordeak egiten du. Bazkideei asko kostatzen zaie parte hartzea. Bazkideek ulertzen dute kuotekin ez dutela zertan parte hartu. Bazkide gisa zerbitzuak jasotzea da batik bat, etengabeko lankidetzat bat izan ordez».

Aztertutako gainerako gizarte-erakundeetan bezala, igarri da **arazo garbi bat dagoela erantzukizun handiko karguak txandatzera, eta larriagoa ere bada** erakunde mota hauetan, konpromiso maila eskasa delako eta neurri txikiagoan antzematen dutelako erakundea benetan espazio asoziatibo bat dela (aldiz, lehiakortasuna hobetzeko zerbitzuak eskaintzeko eta agintari eskudunen aurrean presioa egiteko baliabide gisa eratzera bideratzen da batik bat). Horrek eragin du zenbait erakundek nahitaez parte hartu beharreko esparruak diseinatzea (karguak zozkatu egiten dira bazkideen artean), barne-konpromisoa eta -partaidetza areagotzeko.

«Biltzarrean partaidetza gutxi dago, interes bereziko zerbait jarri ezean. Hain zuzen, nahitaezko partaidetza-sistema berri bat ezarri da, erakundea barnetik hobeto ezagutzeko, orduan ohartzen baitira nola funtzionatzen duen. Denak erakundearen zati sentitzen ahalegintzeko modu bat da».

Teknologiaren erabilerari dagokionez, **aurrez aurreko kontaktua funtsezkotzat** hartzen bada ere, **tresna teknologikoek egiteko garrantzitsua dute** barne-koordinazioan eta bazkideentzako arretan; izan ere, ordutegi komertzialengatik edo profesionalengatik zaila da aurrez aurreko dinamika parte-hartzaileak ezartzea.

8.2.3. Ekonomia alternatiboa edo/eta ondare komunaren ekonomia.

Parte-hartze soziala eta boluntariotza irabazi asmorik gabeko erakundeetatik soilik (elkarrekin gehienbat) egin daitekeela dioten interpretazio tradizioaletatik harago, azken urteetan **esparru alternatibo berriak sortu dira ekonomiaren arloan**, enpresa-proiektuak beste modu batera ulertzen dituzte eta **eredu ekonomiko sozialago, kolaboratzaileago eta parte-hartzaileago bat bilatu nahi dute**. Interpretazio horiek guztiak ondare komunaren ideiarekin hertsiki lerrokatzen ez badira ere, azken ideia hori indar handiagoarekin agertu da.

[Colabora-Bora](#), elkartearen definizioaren arabera, ondare komuna «guztion ongirako gobernantza eredu bat da. Komunitatean ondasunak eta baliabideak (ukigarriak eta ukiezinak) ekoizteko eta kudeatzeko modua da, pertsona guztioi dagokiguna, edo hobeto esanda, inori ez dagokiona. Ez da berria kontzeptu juridiko-filosofiko hori, baina azken urteetan berriz ere indarra hartu du eta zabaldu da jendartera, batez ere, software librea eta *open source* mugimendua edo Elinor Ostromi, 2009an, ondasun komunak gobernatzeari egindako ekarpenengatik emandako Ekonomiako Nobel saria direla medio».

Ondare komuna «gai edo arazo baten inguruan bildutako komunitate bateko kideen arteko elkarrekintzatik sortzen da. [...] Ez dago ondare komunik komunitaterik gabe, eta alderantziz. Hortaz, xede nagusia da ikusgarri egitea hazten ari diren komunitateak [...], pertsona guztion artean mundu bidezkoago bat eraikitzeko borondatearekin, mundu bat komun.

Ereduekin alternatiboekin (ondare komuna kasu) **arloan ekonomikoan bestelakoa den sistema baten alde egiten dute, komunitatetik gizarteratzea eta parte-hartzea bultzatu nahi duena**; sistema horrek argia egin die **partaidetza-ekimen batzuei**, hain zuzen, **hertsiki irabazi asmorik gabeak izan beharrik ez duten erakundeetatik** egindakoak edo ekimen komunaren inguruan jarduera profesionala garatzen duten pertsonak elkartzen diren erakundeetatik egindakoak. Hain justu, pertsona horientzat **ez da arraroa bizimodua ateratzeko modua eta komunitaterako onura bat sortzea uztartzea**.

Forma horretatik eratorritako partaidetza nahiko berria da, baina aurkitu ditugu horren **adibide batzuk, funtsean San Frantziskoko eta Bilbo Zaharreko eremuan**. Horietan, ondare komunaren eredu



ekonomiko baten inguruan parte-hartze sozialeko jarduerak garatzen dituzte, eta gainera, **eremu horretako beste gizarte-ekimen batzuekin lotura handia dute**.

Horren adibidetzat har daiteke, esaterako, [DDT Banaketak](#). Bilbo Zaharreko ekimen bat da, eta beren burua honela zehazten dute: «askotariko esperientziatik etorritako pertsonen artean sortutako talde bat da; kontrainformazioaren, fanzineen eta irrati libren, gaztetxeen, talde antimilitaristen eta musika-egoerari buruzko zinemen arloetatik nahiz sormenezko eta aldarrikapenezko gainerako adierazpenetatik, Euskal Herriko geografia osoan komun direnak». Erakunde horrek ekimenak egiten ditu auzo honetan, auzoko beste eragile batzuekin lotuta.

[Caóstica](#) jaialdiaren kasua ere azpimarragarria da; doakoa den eta Bilbo Zaharrean egiten den film labur alternatiboen jaialdi bat da, finantzaketa mistoko (esparru publikotik nahiz pribatutik –*crowdfunding* kasu– datozen iturriekin) bitartekoak dituen ikus-entzunezko errealizazioaren munduko profesionalen talde batek bultzatzen du.

Nabarmenezkoa da, baita ere, [“El huerto de SanFran”](#); gizarte-enpresa batek bultzatzen du, eta topaketa iraunkorreko eta ekologikoko espazio bat sortzea du xede auzoko pertsona guztientzat (kulturarteko ikuspuntu batetik landuz). Gainera, baratzea hirira hurbiltzen du, eta lurra lantzen irakasten du (hezkuntzaren osagaitik lan eginez).

Era berean, [Colabora-Bora](#) ekimenaren esperientzia bera nabarmen daiteke. Ekimen horrek ondare komuneko proiektuak bultzatzen eta dinamizatzen ditu, eta eragile mistoak jartzen ditu lanean elkarrekin, ekimen hibridoak sortzeko.

Kasu guztietan, **ekimenezko gaiarekin zerikusi handiagoa dute geografiarekin baino**; izan ere, **beren egitekoa gizarte- eta ekonomia-jarduera mota bati buruzkoa da funtsean**, eta beste latitude (eta, oro har, irekita daude beste eremu geografiko batzuek parte hartzera) batzuei ere aplikatu dakieke (eta hala espero dute). Soilik esan daiteke **Bilbo Zaharreko eta San Frantziskoko ezaugarri bereziak erraztu eta bultzatu egin dutela eremu honetan gauzatzea**.

8.3. Etorकिनak.

Etorकिनen boluntariotzaren parte-hartze sozialeko modua nahiko gutxi ikertu da, eta indarra hartu da azken urteetan denboran zehar egonkorra den biztanle etorkinen nolabaiteko bolumena duten eremu geografikoetan.

Aztertutako hiru errealitate geografikoetan, mugimendu indartsu gisa soilik antzeman da Bilboko esparruan, Bilbo Zaharraren inguruan eta bereziki, San Frantziskon hirian ondo errotuta dagoen kultura anitzeko errealitatea baitago. Bertan aurkitu dugun partaidetza-aniztasuna aberatsa da etorkinen kasuan, eta ikerketa honetatik kanpo geratu ezin zitekeen fenomeno bat osatzen du.

Parte hartzeko espazioak.

Auzoan, «**etorkinetzat**» (pertsona etorkinak nahiz bertan jaiotakoak) eta «**etorkinek**» (normalean, eremu horretara iritsitako pertsonen soilik osatuak) lan egiten duten erakundeak bizi dira; horien funtzionamendua bestelakoa da barneko moduen edo xedeen arabera:

- **Lehenengo kasuan, hasiera batean**, gure gizartearen **kanpotik etorritako pertsonen gizarteratzearen, laneratzearen eta kulturaren txertatzearen alde lan egiteko osatutako erakundeak** dira. Horien adibide dira Etorकिनekin Bat edo Solidaridad Internacional (ikerketa honetan parte hartu dute) erakundeak.
- **Bigarren kasuari dagokionez, etorkinek** finkatu ondoren **sortutako erakundeak dira** beren kultura erakusteko, norberari laguntzeko taldeak sortzeko eta elkarren artean eta komunitatean



erlazionatzeko. Auzoan, bigarren mota horretako erakunde asko daude, eta askotan, komunitateka multzokatuta daude; esaterako, marokoarra edo senegaldarra.

Funtzionatzeko sistema.

Oro har, parte-hartze sozialaren arloan barneko funtzionamendu-sistemak **ez dira hain egituruak eta arinagoak dira** etorkinak ez direnenak baino; era deszentralizatuagoan funtzionatzen dute, eta **dokumentu idatzi gutxiago dituzte.**

«Ez dut inon idatzita. Eta nola dakizu etorriko direla? Hitza eman didatelako».

Orokorrean, **hitzean eta konpromisoan oinarritutako sare informal** bat dago, eta ez dira dokumentatzen erabakiak eta prozesuak paperean, ez behintzat erakunde egituratuenean egin dezaketen neurrian.

«Ez dituzte guk erabiltzen ditugun arauak erabiltzen, baina horrek ez du esan nahi ez dutenik parte-hartze sozialik. Guri paperek akitzen gaituzte. Hori ez dute haiek. Hala ere, horrek ez du esan nahi funtzionatzen duen erakunde bat ez dutenik. Funtzionamendu zuzenagoa dute, sakelako, whatsapp, posta elektronikoa, sare sozial eta abarren bidez... eta kuotekin funtzionatzen duten erakundeak dituzte...».

«Paperik egon ez arren, dena antolatuta dago. [...] Erantzukizun finkoak eta erantzukizun aldagarriak daude, baina lan bakoitzerako ordezkioak dituzte, ez huts egiteko. [...] Eta funtzionatu egiten du sistemak, tartean aktarik edo paperik egon ez arren».

Bestalde, eta **teknologiaren presentzia garrantzitsua izan arren, komunikatzeko eta lan egiteko modu nagusia harreman pertsonala** da, guztiek ezin baitute Internetera sartu. Posta elektronikoa eta whatsapp tresnak koordinatzeko eta komunikatzeko modu arruntak bilakatzen hasi arren, telefono-deiak eta bereziki, bilera pertsonalak dira barne-koordinazioa egiteko eta informatzeko bide nagusiak; askotan, ahoz aho egiten dute komunitateko kideen bidez.

Era berean, etorkinen erakunde **jarduerak autofinantzatuta** izan ohi dira. Kontsultatutako erakunde gehienek beren bitartekoen bidez funtzionatzen dute, **diru-laguntza publikoetara jotzea arrotza eta zaila** egiten baitzaie, hizkuntzaren eta administrazio-prozeduraren aldetik zailtasunak dituztelako.

«Etorkinen erakunde guztiek ez dakite nola jo diru-laguntza publikoetara. Orduan, boluntarioekin eta beren baliabideekin egiten dute egiten dutena».

«Egiten ditugun jarduera guztiak, guk ordaintzen ditugu, dena. Diru-laguntzak egon arren, jendeak ez dakienez nola funtzionatzen duen, nahiago du bakarrik egin. Eta, gainera, guretzat zaila da aurkeztea, gure gaztelania mailagatik. Batzuetan, laguntza eskatzen diegu beste koordinatzaile batzuei, baina horiek ere egiteko asko dituzte, beren gauzetan daude».

Gutxiengoan kasuan, autofinantzaketa horren xedea da ez egotea kanpoko laguntzen menpe (eta administrazioaren aldetik ustezko kontrol handiagoaren menpe), eta autofinantzaketan parte hartzen duen komunitate bat bilatu nahi dute, erakundea benetan partaidetza-bitarteko osoago bat izan dadin.

«Pixka bat baztertuta sentitzen gara erakundearen aldetik. Ez dugu denborarik galtzen Udalak, Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiak zerbait ordain diezagun. Nahi dugulako egiten dugu, kalean gaude, ez eliteekin».

Antzemandako **forma juridiko** nagusia, adierazi bezala, **erakundea** da; izan ere, etorkinek **garrantzia handia** ematen diote **eraketa formalari**, eta **seriotasun-, legezketasun- eta gardentasun- balioekin lotzen dute**, besteak beste. Erakundearen formalizazio juridikoak **ez du zerikusirik**, beste erakunde batzuetan bezala, **funts publikoetara sartzeko bokazio handiagoarekin** edo agintariekin komunikazio handiago izatearekin.



Erakunde formal eta publiko gisa ikusia izateko premia **egoitza sozialerako lokal bat alokatzean eta egokitzean gauzatu** ohi da, **topagune asoziatibo** bihur dadin. Lokala **funtszeko espazio bat da partaidetza-harremanetan**, topagune eta lanerako gune gisa nahiz beren jarduera komunitateari erakusteko, eta kuoten eta ekarpenen zati handi bat erabiltzen da horretarako.

«Lokala oso garrantzitsua da. Lokala ordaintzearekin zerikusia duen dena lehenesten da. [...] Lokala da gainerakoa gertatzea ahalbidetzen duen lekua».

Parte hartzeko motibazioak.

Etorkin boluntarioek erakusten dute boluntarioa izateko edo parte-hartze soziala egiteko motibazio nagusizat bizi diren **komunitateari laguntzeko** desira, beren apaltasunekin gizarteari ekarpena eginez.

«Boluntariotza gai kulturala da. Egiten duzulako egiten duzu, egin behar duzulako. Gauza asko egin nahi dituzu. Kontratu moral bat da. Zer naiz ni laguntzen ez badut?».

Oro har, beren aldetik balizko immobilismoa egotearekin, harrera-gizartearekiko konpromiso-falta edukitzearekin eta bizimodu bereizi eta paralelo bat izatearekin lotutako **estereotipoak aldatzen** laguntzeko bide gisa ikusten dute.

«Boluntariotzak afrikarrak alferrak izatearen, lagundu nahi ez izatearen eta ezagutzera eman nahi ez izatearen ideiak aldatzeko aukera ematen digu. Mitoak eta estereotipoak hausten ditu. Parte hartuz erakusten da hori. Gizarterako modu bat da».

Horrela, **gizartean txertatuago sentitzeaz** gain, batetik, gizarte-ahultasunek egoera okerragoan dauden pertsoneri (beren burua ikusten dute egoera horietan, eurak iritsitakoan jasan baitzuten) laguntzeko aprobetxatu dezakete, eta, bestetik, beren esperientziaren eta kulturaren zati bat erakuts diezaiokete gizarteari.

«Ezin gara kanpoan geratu. Parte hartu behar dugu, honen zati garelako. Hemen bizi garen guztiona da herria. Eta zuk onartu behar duzu hemengoa naizela, hemen bizi eta parte hartzen dudalako. Parte hartzen duzu, eta parte-hartze horrek hemengoa egiten zaitu. Hemengoa sentitzen naiz, eta hemengoa den norbaitek hemengotzat har nazan nahi dut».

Gainera, **ahalduntzearekin eta autoestimua indartzearekin** lotuta dagoen norbanakoaren dimentsio bat ere badago; izan ere, iritsitakoan hasieran duten desorientazio-prozesuaren ondoren (gizartearen eta familiaren arloko konexiorik gabe eta hizkuntza menderatu gabe), boluntariotzak ahalbidetzen die gizarte-rol aktiboagoa edukitzea, non euren gaitasun baliagarriak erakusten baitituzten, autoestimua indartuz eta jatorrizko lekuetan izan zitzaketen parte-hartze sozialeko kokapenak berreskuratuz.

«Afrikar emakumea borrokalaria da, dinamikoa eta langilea. Baina iristen denean, galduta sentitzen da eta alferrikakoa dela pentsatzen du, ezin duelako bertako hizkuntzan hitz egin eta komunikatu. Dakiena erakutsi eta irakatsi ahal izateko espazio bat errazteak lagundu egiten dio autoestimua indartzen eta ikusten dena ez dagoela galduta. Parte hartuz baliagarriak sentitzen dira».

«Erakunde batetik deitzen dizutenean eta hitz egitera joaten zarenean, nabaritzen duzu jendeak begiratu eta entzun egiten zaituela; baloratuta sentitzen zara. Ulertzen duzu badituzula gauzak esateko, eta emateko».

Azkenik, **kultura erakusteko, tradizioak eta hizkuntza praktikatzeko eta sustraiak ez galtzeko modu bat** da, bereiziki beren seme-alabak Euskadin jaio diren heinean eta familiaretekoen jatorrizko hizkuntza edo haien kultur-ezaugarri nagusiak jakiten ez duten heinean.



Parte-hartzearen balaztak.

Etorkin bakoitzaren bizitza pertsonalaren eta laneko bizitzaren egoera, oro har, **ahulagoa da, komunitatean errotze txikiagoa duelako eta lan-ezegonkortasun handiagoa duelako**. Ildo horretan, horien parte-hartzeari dagokionez, haien **barneko beldurrak** areagotzen dituzten hiru **balazta** nagusi identifikatu dira, eta horietan jardun egin behar da, beren partaidetza-ahalduntzea areagotzeko:

«Boluntarioek gauzak egin nahi dituzte, baina ez dakite non eta nola. Galduago daude, eta gainera, beren moduak dituzte. Parte hartzeko bideak sortuz gero, ordea, parte hartu nahi dute. Baditugu arrakasta izan duten istorioak».

- Hasteko, **hizkuntza ez ezagutzea** gakoa da. Ohikoena da etorkinek (Latinoamerikatik datozenek salbu) gaztelania ez ezagutzea (eta euskara hein handiagoan); horrek parte-hartzea asko mugatzen du. Hori dela-eta, ikasten hasi ondoren, boluntariotzan giltzarri-lanetan jarduten dute hasieran, hizkuntza-lantegietako erabiltzaileekin, adibidez.

«Hizkuntzak eta parte hartu ahal izateko nora joan behar den ez jakiteak eragiten dute etorkinek parte hartzen ez dugula ikustea jendeak, eta haiei iruditzea hesiaren alde batean daudela, hesiaren beste aldean jendea egon arren edo egotea gustatuko litzaiokeen arren. Eta parte hartzeko irrikatan daude, baina ez dakite non. Zenbaitetan, parte hartu nahi dute, baina hizkuntzak ez die uzten, ez dute behar beste ulertzen. Eta, hala ere, besoekin goizeko zortzietan lan egiteko deitzen diezu, eta hemen daude».

- Bigarren, **administrazio-egitura ez ezagutzea** ere parte-hartzea mugatzen du. Gizarte-egoitzen, kultur-etxeen, gizarte-erakundeen programen, diruz lagundu daitezkeen sistemen eta abarren funtzionamendua ez ezagutzea eragozpen bat da parte hartzeko eta parte-hartzea bultzatzeko.

«Ez dakit nora jo parte hartzeko. Nora joan behar dut? Nik frantseseko eskolak eman ditzaket, baina ez dakit nora jo egiten dakidan apurra jendeari eskaini ahal izateko eta partekatzeko. Horrek zaildu egiten du guk parte hartzea».

- Hirugarren, **arbuia izateko beldurra** azpimarratu behar da, nola nahikoa kalitateko gauzak egin ezin direla edo emateko ezer dutela pentsatzeari dagokionez, hala gizarte-arbuia orokorragoari dagokionez, bereziki etorkinak ez direnekin partekatutako jarduerak badira.

«Hasieran, hasteko beldur handia nuen. Baina zer eskainiko dut nik? Nire gaztelania mailarekin? Inoiz egin ez duzun zerbait da. Asko laguntzen digu hemengo norbaitek animatzeak, bultzatzeak, laguntzeak. Nik zera pentsatzen nuen: senegaldar bateak paraguaitar bati lagunduko dio gaztelaniaz hitz egiten? Eta jabetzen zara ahal duzula».

«Parte ez hartzeko arrazoietakoa bat arbuia izateko beldurra da. Eta horrek aldatu egin behar du; nik nahiago dut borrokatzea. Kostatu egingo zaizu, baina gauzak lortuko dituzu. Ez da isildu eta ezkutatu behar. Baina gehienek bide erraza hartzen dute».

Eskuarki, etorkinen artean, errazagoa da boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko lanak egiten dituztenen artean gizonak aurkitzea. Boluntarioak izan nahi duten edo parte-hartze soziala egin nahi duten emakumeen egoera ahulagoa da oraindik; izan ere, horiek **espazio publikoan duten presentzia** txikiagoa da, eta, beraz, partaidetza-espazioetarako sarbidea ere bai. Ondorioz, zailagoa da emakume horien artean parte hartzea bultzatzea.

Espazio publikoaren (gehienbat, gizonak hartua) eta espazio pribatuaren (emakumeek hartua) dikotomia are handiagoa da etorkinen talde batzuen kasuan. Hori horrela, emakume etorkinek hizkuntza ez jakitearen partaidetza-hesiari arlo pribatuan isolatzeak eragindako babes-sareen falta gehitzen diote, baita ahalduntze-falta eta, batzuetan, interes-falta ere, ugalketa-esferarekin hertsiki ez lotutakotik urruntzen diren gaiengatik. Horrek eragiten du erakundeetan duten presentzia gizonak dutena baino baxuagoa izatea.



«Emakumeen parte hartzea, izan afrikarrena, izan euskaldunena, arlo pribatuan da. Hor borroka bat daukagu. Parte-hartzea bultzatzeko, jarduera jakinak sortu behar dira; desaktibatuta ez badago, motibazio jakin bat dagoenean soilik aktibatzen da».

«Ez da erraza etxeetatik irtetea afrikar emakumeentzat. Kontaktua eta hurbiltasuna behar da emakumeek konfiantza hartzeko. Deitzen diezu eta hamarrek esaten dizute baietz, baina bost etortzen dira... Haurrengatik izan daiteke, garraiorako dirurik ez dutelako... Parte hartzeko zailtasun gehiago dituztela ulertu behar da».

Hortaz, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan haien parte-hartzea bultzatzeko; besteak beste, hauek:

- Haien ahalduntzea bultzatzeko premia; haiena ere baden espazio publikoa ezagutu dezaten eta parte har dezaten.
- Parte hartzeko ordutegiak; partaidetza-ekintza eta familiako bizitza uztartze ahalbidetzeko ordutegiak planteatu behar dira.
- Jardueren iraupena.
- Seme-alabak zaintzeko baliabideak; seme-alabak eta mendeko beste pertsona batzuk zaintzeko arduradun nagusiak direlako. Proposatzen zaizkien jarduerak uztartze-baliabideak eman behar dituzte aldi berean.
- Garraio publikoaren kostua; mugimendu eta ordutegi-erabilgarritasun txikiagoa baitute.

«Hautzaindegiak jarri eta garraioa erraztu behar dira, besteak beste, eta oso erabilgarria den zerbait izan behar da... Izan ere, parte-hartzea eragozten duten zailtasun asko eta oinarrizkoaren inguruan kezkatzen dira. Emakumeei deitzen badiozu erlaxatzeko lantegi batean parte hartzeko, emakumearentzat oso ona izango da eta oso ondo legoke parte hartuko balu, baina harentzat ez du lehentasunik une horretan, eta ez dat etorriko».

Gizonen kasuan, **lan-ezgonkortasunak** areagotu egiten du parte-hartzean duten aldakortasuna, penintsulako edozein puntutan lan-aukeraren bat izateak berehala lekualdatzera motibatuko baititu, eta boluntariotza-jarduna utzi egingo du; askotan, alde aurretik abisatu gabe. Aldiz, langabezia daudenean, areagotu egingo da.

«Langabezia geratu nintzenean, eta egunean zortzi orduz leku berera joan beharrik ez neukanean, pentsatu nuen agian denbora gehiago eskaini niezaiokeela honi».

«Boluntarioa zara, denbora libre gehiago duzulako. Gizonek errazago dute. Emakumeek egun osoa beteta dute, konplexuagoa da haientzat».

Boluntariotza, militantzia eta lankidetzak.

Arestian aipatu bezala, etorkin boluntarioen artean ere aldeak daude **beren burua antzemateari** dagokionez, eta terminoen ezaugarriak funtzio jakinekin lotzen dira, etorkinak ez direnen antzeko moduan.

Hala ere, interesgarria da «**etorkinentzako**» lan egiten duten erakundeekin **parte hartzen** dutenean, **boluntariotzat** definitzen dute, eta arduraldia arautuago dago, ordutegi itxiagoak dituzte eta funtzio zehatzagoak.

Nolanahi ere, «**etorkinen**» **gizarte-ehunean** jarduten dutenean, beren burua gehiago lotzen dute **militantziarekin**, ez baitute beren bizi pertsonala boluntariotzatik bereizten, eta modu naturalean txertatzen dute. Gainera, ordutegiari eta emozioei dagokienez, gehiago inplikatzeko dira. Prozesu naturala da, «egin beharreko zerbaiten» moduan onartua, eta horrekiko ez dira hesiak edo bereizketak ezartzen; aldiz, beren bizitzaren kontinuuma da.




Azkenik, **kolaborazioen** figura ere antzeman da etorkin batzuen artean; horiek, oro har, aktiboagoak dira, eta harremanen sare oso zabala dutenez, naturaltasunez jasotzen dituzte beste erakunde batzuetako proiektu jakinetarako kolaborazio zehatzak egiteko deiak.

Etorkinen partaidetza-ahalduntzearen prozesua.

Egindako lanetik abiatuta, arau nahiko komun bat identifika daiteke etorkinen partaidetza-ahalduntzearen prozesuan. Prozesu horretan, pertsona batzuk beren parte-hartze soziala areagotzen dute patroi horri jarraituz. Etorkinak ez diren boluntarioen artean, batzuek lehen fase horretan geratzen dira, beste batzuek bigarrenera iristen dira, edo hirugarren eta gutxiengo bat hurrengo unetara igarotzen da.

Lehenengo unean, etorkinen parte-hartze soziala erakundeen lehen talde baten bidez bideratu zen, etorkinak gizarte-erakundeetara programen **erabiltzaile** gisa jotzen baitute. Lehen fase horietan, boluntariotzarekin ohitzen dira, hizkuntzaren, informatikaren, lana lortu aurreko lantegien eta lanaren lantegien, eta abarren arloko ezagutza-programen erabiltzaileak izanez.



Bigarren unean batean, pertsonak (erakundearen laguntzarekin) bere gaitasunak identifikatzen ditu boluntariotzaren arloan, eta erakundearekin **lankidetzan hasten da**, erabiltzaile hasiberriei lagunduz. Komunitateari ekarpena egiteko gaitasuna aurkitzen duen unean, bere indarrak identifikatuz; askotan, hizkuntzarekin edo lan-gaitasun partikularrekin dute zerikusia.

«Geratzeko aukera sortu zen, taldeari laguntzeko. Gaztelania pixka bat dakit, ondo hitz egiten dudala uste dut, eta itzultzaile- edo bitartekari-lanak egin ditzaket. Horrela, aktibo egoteko, ikasteko, parte hartzeko eta zeure burua erakusteko modu bat da».

Hirugarren unean batean, eta erakundeetan partaidetza boluntarioa egonkorra denean eta harremanen sarea indartuta eta zabaldua dagoenean, **partaidetza-esparrua zabaltzeko prozesu** bat hasten da, **erakunde mota berri bat sustatzera** eramaten duena; kasu honetan, gehiago lotzen da jatorrizko komunitatearekin. Adibidez, jatorrizko herriari buruzko erakunde bat sortzeko edo horrelako batean parte hartzeko unea da.

Laugarren fase batean, **pertsona aktiboek boluntariotza-aniztasunerako** pausoa ematen dute, eta hirugarren erakunde batzuekin lankidetzan aritzen dira. Harremanen sarea hazi ahala, gai zehatzen inguruan lankidetzan hasten dira beste erakunde batzuekin, gizarte-rol aktiboagoa izanez.

«Boluntariotzaren ideia hemendik hartzen joan naiz, hainbat erakunderekin lan egin dut: Médicos del Mundo, on Gehitu, Etorkinekin Bat, ostatuarekin....Senegaldarren elkarte bat ere sortu dugu».



Azkenik, gizarte-konpromiso handiagoa beren gain hartzen duen gutxiengo bat auzoan edota komunitatean **erreferentziatzeko pertsona** gisa identifikatzen dira, eta **miliantziarantz** kulunkatzen dira, bizitza pertsonalaren eta partaidetza-jardunaren artean bereizketarik ez dagoelako. Ildo horretan, **ordutegi- eta emozio-inplikazio handiagoa** onartzen dute lankidetzan aritzen diren proiektuetan, eta ia edozein unetan daude laguntzeko prest.

Figura hau, gainera, bereiziki markatuta dago etorkinen artean, naturaltasunez onartzen baitute ezagutzen ez dituzten pertsonen eskaerak jaso ahal izatea; telefono mugikorra eta posta elektronikoa erabiltzen dute komunikatzeko modu gisa komunitateari irekita.

«Hau askotan gertatzen da; sakelakoak jotzen dizu eta ezagutzen ez duzun norbaitek deitzen dizu. Eta, jakina, zu behartuta zaude hari erantzutera. Eta gero, zeure buruari galdetzen diozu: nola lortu du nire telefono-zenbakia? Edo hona etortzen dira eta zugatik galdetzen dute, ezagutu ere egin gabe. Zu zarela esaten diezu eta zuzenean galdetzen dizute: urliak esan dit hemendik igarotzeko eta zuk badakizulako...».

8.4. Erlijiozko parte-hartze soziala.

Erlijiozko parte-hartze sozialeko mugimenduei dagokienez, lau aztertu dira; horietako bi, kristau katolikoak, eta beste biak, musulmanak. Mugimendu kristauen kasuan, **Acción Católica EKO-AGC** (Bilbo) eta **Santa Clara parrokia** -haren jarduera-taldeekin, hala nola: Hazi Taldea, Eskaut Taldea edo Grupo de Solidaridad- (Vitoria-Gasteiz) erakundeek parte hartu dute. Mugimendu musulmanei dagokienez, **Mezquita Al Forkan** (Bilbo) eta **Asociación Sociocultural Islámica Al Forkan** (aurrekoarekin oso lotuta egiten du lan) erakundeen ikuspuntua eskuratu dugu.

Parte-hartzearen motibazioak eta jatorria.

Erlijio-sinesmena edozein delarik ere, parte hartu duten erakundeek baieztatu dute parte-hartze sozialarekin duten konpromisoa bizimodu jakin batetik datorrela, erlijio-balioekin lotua dagoena: balio horiek gainerakoei laguntzea eta partaidetza bultzatzen dute talde baten bidez komunitatea hobetzeko.

«Hau da nire bizimodua, txikitatik bizi izan dut».

«Parte hartzea ez da estra bat [...] mugimenduaren zati da».

Motibazio horien jatorria **partaidetza sustatzen den aurretiko egituretatik** etorri izan ohi da, erlijio-komunitateko egitura formalak erabiliz parte-hartze hori bideratzeko. Adibidez, **katolikoek kasuan, ohikoa da aisialdiko egituren bidez parte hartzen hasi izana**; egitura horiek komunitateari laguntzeko eta bertan parte hartzeko balioak lantzen joan dira aisialdiko taldeen eta monitoreen egituraren bidez.

«Nire kasuan, partaidetza-kultura aspalditik dator, aisialdiko taldeen garaitik. Arlo horretan, monitoreen papera funtsezkoa da».

Meskitaren kasuan, komunitatea elkartzea ahalbidetzen duten liturgia-garaia da. Erlijio-elementuak baliatuz, deialdiak egiten dizkiete komunitateko kideei gainerako proiektuetan parte har dezaten. Hau da, **zati erlijiosoa komunitate horrek egiten duen lanaren zati txiki bat izan arren, horrek – komunitatea biltzen den unea delako– ahalbidetzen du boluntarioak antolatzea eta erakartzea** gizartearen eta kulturaren arloko gainerako jardueretan parte hartzeko, hala nola honelako eskolak: arabiera, kultura islamikoa, bitartekaritze-taldeak, autolaguntza-taldeak, etab.

«Gure kasuan, zati erlijiosoa gure lanaren % 1 ere ez da. Kultur-jarduerak erakartzen dute jendea, ez erlijiosok [...] Guretzat, zatirik garrantzitsuena haurren hezkuntza-oinarria da: arabierako eta kultura islamikoko eskolak. Eta mundu guztiari irekita dago, musulmana ere ez den jende asko etortzen zaigu».



Norbere burua antzematea Militantzia gisa eta besteren antzematea gizartetik.

Kontsultatuko pertsona guztiek **baieztatu dute militante sentitzen direla, konpromiso maila handia dutelako eta mugimendua berez zerbait bezala bizi dutelako**, beren bizirik askaezina den zati gisa. Ildo horretan, ez dituzte zenbatzen mugimenduari eskainitako orduak, eta ez dute ulertzen mugimenduan ez dagoen norbaitek erantzukizun-lanak egin ahal izatea mugimenduan.

«Militante gisa ikusten gara. Ez dago antolakuntza bertikalik, gu gara meskita. Meskitan laguntzen duen jende askok ordubete hartzen dute egunean edozein lan mota egiteko».

«Militante gisa, sarean lan egin arren, ez diogu horrela deitzen, gure konfigurazioaren zati da, ez dugu ulertzen lana beste modu batera [...] Ez galdetu zer egin dezakeen mugimenduak zuegatik, mugimenduagatik zuek zer egin dezakezun baizik».

Bestalde, **antzematen dute gizarteak ez duela ezagutzen, oro har, beren lana** (mugimendu kristauetan nahiz musulmanetan) eta **supraegiturek beren komunitatetik urruntzen dituela**, oinarri mailan beti berezko bezala bizitzen ez dituzten mezuak sortuz.

«Jendeak katolizismotik dakiena estrapolatzen du eta Islamerako onartzen du. Eta ez da gauza bera [...] Jendeak ez gaitu ezagutzen. Eta horrek kalte egin diezaguke. Lan horrek bere denbora eta bitartekoak behar ditu».

«Klerikalek urrunduez hitz egin ohi dute, elizatik urruntzen diren kristauetz. Guk planteamendua aldatu dugu; gu gara urrundu garenak, eta, beraz, nola hurbildu behar dugun pentsatu behar dugu. Eta hurbiltzea zera da: parrokia-esparru osoa ahal bezain gehien irekitzea, inolako oztoporik gabe. Ikuspegi positiboa bilatzea, estigmatizatu gabe».

Partaidetza-aniztasuna, baina zerikusia duten taldeetan.

Konpromiso maila horrek eragiten du partaidetza-aniztasuna ohikoa izatea, nahiz eta, oro har, beren erlijio-sinesmenarekin lotutako mugimendu, talde edo erakundeetan izan (adibidez, elizbarrutiko laguntza zuzeneko erakundeekin edo meskitak bultzatutako kultur- edo hezkuntza-proiektuekin).

Arduraldi-aniztasunak, halaber, agenda-zailtasunak sortzen ditu egungoen jarduera berrietan parte hartzeko edo konpromiso kota handiagoak onartzeko; izan ere, militantziaz eratorritako jarduera boluntarioak eta bizitza pertsonaleko, familia bizitzako eta laneko bizitako jarduerak eurek eragiten dute denbora estra edukitzeko aukera oso mugatua izatea.

«Denbora-erabilgarritasuna oso txikia da... [...], eta normalean entzuten dugu nahi dutela, baina ezin dutela [...]». Eta hori parte-hartzea errazteko uztartze-baliabideak jartzen ditugunik... Adibidez, haurtzaindegiak jartzen ditugu eguneko erretiroetan. Errealitateak ematen diguna daukagu eta malguak izan behar dugu».

«Oso zaila da meskitan lankidetzan aritzen diren pertsonen beste erakunde batean lankidetzan aritzea. Meskitako jarduera osoa da. Beste meskita batean ekarpena egin dezakezu, ordea; hainbat meskitatan ekarpena egiten duten pertsonak badaude».

«Zertan huts egiten dugun... zergatik ez duen funtzionatzen... bizitza errealerara jo behar duzu; militantea zara, bai, baina zure bizitzan gauza gehiago ere bazara, eta ez duzu denborarik, ez honetarako, ez beste gauza batzuetarako... Zure bizitzan, militantea izatea ez da zure lehenengo titulua... irakaslea zara, aita zara... eta amaieran esan dezakezu talde bateko militantea zarela».

Erakundeetan formalki eratutako egiturak, baina euren burua mugimendu gisa ikusten dutenak.

Era berean, aztertutako mugimendu guztiek erakunde gisa forma juridiko formala eratuta duten arren, oro har, euren ikuspegiaren arabera, egitura horren erabilgarritasun bakarra dela maila formalean erregistratuta egotea (eskakizun publikoak betez) eta interes-fofoetara sartzeari (hein txikiagoan).



«Erakunde gisa erregistratuta gaude. Baina gu ez gara erakunde bat, gu mugimendu bat gara».

Hala ere, aho batez esaten dute barne-ikuspegia ez dela erakunde batena; aldiz, bestelako zerbait da, eta gehiago lotzen da mugimendu pertsonal eta militante batekin, partekatutako balio batzuetan eta berezko bizimodu batean oinarrituta.

Eraztunen egitura betetzea eta nukleo gogorra bultzatzaile nagusia izatea.

Oro har, aztertutako mugimenduek eraztunen egituraren eredua betetzen dute; eredu horretan, jardueraren nukleo bultzatzaile bat dago, bigarren mailan boluntarioak daude (militanteak) eta hirugarren pertsona-talde kolaboratzaile bat dago, jarduera zehatzetan haiekin kontaktzeko.

«Beti dago baietz esaten duen jendea, eta tentagarria da beti pertsona berari eskatzea, badagoelako beti gaizki datorkion norbait... Gero, egian esan, gai zehatz eta jakinetarako konprometitzen diren pertsonak badaude, etengabeko dedikazioa eskatzen ez diezunak, baina badago jendea une jakinetan esku bat botatzeko».

Ezaugarri bereizgarria zera litzateke: nukleo gogorra langile liberatuz osatuta egotea (laikoa nahiz erlijioso –apaiz bat, imam bat–); horiek dinamizatzen dute jarduera eta lidergoaren papera dute. Gainera, ordaindutako funtzioei dagokienez, arduraldian baino gehiagoan jarduten dute; egunaren gehiengoan militantaren arduraldia da.

«Hau ez da diruagatik egiten».

«Koldo izan da lotura. Hark sartu ninduen eta motibatu ninduen».

«Eskatu denbora denborarik ez duenari. Gustatzen zaizkizun gauzak egiten dituzunean ez duzu arazorik denbora aurkitzeko. Antolatu egiten zara. Azkenean, bizimodu bat da».

«Badakizu orduak daudela lanetik kanpo, baina zerbitzu- eta bokazio-lan bat dago, ikusten duzu zure lanak balio duela, ez duzu aparteko denbora gisa zenbatzen».

8.5. Aldarrikapenezko mugimendu sozial autokudeatuak.

Boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko ikerketetatik kanpo geratu ohi den partaidetza-ekimenetako bat eta txosten honek landu duena da autokudeaketan oinarritutako aldarrikapenezko taldeak eta mugimenduak.

Presentzia.

Bilbo Zaharra eta San Frantzisko eremuetan jarduten duen (eta indartsu) eredu bat da (Zumarragan eta Urretxun mota horretako beste ekimen batzuk badauden arren), nahiz eta jardute-bokazioa –gizarte-eraldaketako eredu batekin zerikusia duelako– **kokapen geografikotik harago joan**.

Ildo horretan, **kokapenarekin zerikusi handia duten ekimenak** badauden arren (Kultur de Bilbi, Gaztetxeak...), **beste batzuek gaiarekin lotura handiagoa dute** (esaterako, Plataforma de Afectados por la Hipoteca), eta beharrezkotzat jotako lekuan jarduten dute.

Forma juridikoaren falta.

Identifikatutako kasu guztietan, **formalki eratu gabeko taldeak edo mugimenduak** dira; izan ere, haien **autokudeaketa**-bokazioagatik beren baliabideak eskuratzen ahalegintzen dira, eta administrazioaren diru-laguntzen menpe ez egoten. Elementu bereizgarria da, berezko identifikazio ideologikoa duena: «bide ofizialetatik kanpo» lan egin ahal izatea.

«Forma juridikorik ez izatea lotuta dago izateko eta egiteko modu batekin. Berdin zaigu ohiko politikariak esaten duena. Ez dugu nahi eta ez dugu behar loturarik».



Era berean, aldarrikatzailea denez eta ekintza zuzenak egiteko joera dutenez, forma juridikorik ez izatea eta publikoki ez erregistratzea jardueretan **askatasun handiagoz** jarduteko **elementu** gisa ikusten da, horien ondorioz egon daitezkeen erantzukizunak mugatzen baititu.

«100 horma-irudi itsastera banao, brotxa eskuan dudala harrapatzen ez banaute, ezin didate isunik jarri».

Batzar bidezko ereduaren garrantzia.

Aztertutako ekimenetan, **biltzar bidezko ereduak** indar handia dauka, eta erabaki-organo nagusia da. Ez da egitura formala eta eraginik gabea; aldiz, eztabaidarako espazio bat da bereziki; erabaki garrantzitsuenak hartzen dira bertan eta barnean demokratikoak diren egiturak izatearen berme gisa hartzen da.

«Zuzendaritza- eta antolakuntza-zatia, funtsean, biltzarra da».

«Beti dago biltzar bat [...] dena eztabaidatzen da biltzarrean».

Ekintzara bideratzea eta antolakuntza-malgutasuna izatea.

Ekintzara erabat bideratutako taldeak dira, egoera bat aldatzeko edo errealitate (geografikoa edo tematikoa) jakin bat eraldatzeko tresna edo bide gisa eratu baitziren. Hortaz, euren buruaren antzematea lotuago dago egoera bat aldatzeko jardutearekin gogoeta teoriko sakon batekin baino.

«Bazeuden taldean lehen, baina ez gintuenez konbentzitzen haien funtzionatzeko moduak, gure jarduna muntatzea erabaki genuen, gure oinarriekin. Guk jardun egin nahi genuen, ez egun osoa eztabaidatzen egon».

Ekintzara begira egote horretatik eratorrita, antolakuntza- eta lan-egitura malguak osatzen dituzte, eta ahalegintzen dira parte hartzen duten pertsonen kausei ekarpena egin ahal izatea haien egoera pertsonala, familiakoa edo lanekoa edozein delarik ere, eta beti aurkituz haien bizitzako unera egokitzen den partaidetza-bide bat.

«Jendea aldatzen doa, nahikoa berritzen da. Bizitzak ez du denerako ematen [...] ohikoa bihur daiteke.

Proiektu honek funtzionatzen du, gorabeherak izan arren, baina funtzionatzen du auzoko jendez hornitzen delako eta proiektuak auzoa zerbitzatzen badu, beti egongo da parte hartzeko prest dagoen jendea».

Militantzia norbere burua antzemateko modu gisa eta militantzia-aniztasuna parte hartzeko ohiko modu gisa.

Hori horrela izan arren, oro har, horri buruzko gogoeta-prozesu bati ekin ondoren, **militante gisa identifikatzen dute euren burua argi eta garbi**, eta konpromiso maila handia dute erakundeetan. **Boluntariotzako edo lankidetzako terminoak arrotzak** zaizkie, eta egitura instituzionalagoekin edo instituzionalizatuagoekin lotzen dituzte, baita malgutasun eta lotura maila baxuagoarekin ere.

Are gehiago, eskuarki, **erakunde batean militante gisa aritzeaz gain**, egun nagusi den eredu aldatu ahal izateko ulertzen dute denbora asko jardun behar direla parte-hartze sozialeko jardueretan, eta jarduera batekin baino gehiagorekin lotzen dira. Horrela, **ohikoa da militante-aniztun gisa hartzea euren burua**, nahiz eta horrek konpromiso maila handiagorekin dosi bat eskatzen duen (auzoarekin eta jarduera zehatzekin).

«Hemen parte hartzen duen jende askok beste leku batzuetan ere parte hartzen du. Militantzia-aniztunegiak gara. Askotariko militantzia tradizioa da auzoan».



Sareko lan orokortu eta hurbiltasuna errealitate geografikoarekin edo tematikoarekin.

Askotariko militantzia horrek zuzeneko lanarekin duen loturak lankidetzaren sare informal oso aktiboak sortzen dituzte beste talde kide batzuekin, nola errealitate geografiko berean lan egiten dutelako, hala helburu berberak lortu nahi dituztelako.

Horrela, interakzioak sortzen dira etengabe (baterako proiektuen bidez), eta horiek erraztu egiten dute askotariko militantzia horretan jardutea, naturalki sortzen baitira partekatutako lanaren espazio zabalak.

«Harreman handia dugu auzoko beste eragile batzuekin. [...] Guztiok ezagutzen dugu elkar eta [...] elkarri asko laguntzen diogu».

IKTen erabilera handia.

Jarduera hori guztia garatu ahal izateko, teknologia erabili ohi da, bereziki eguneroko lana koordinatzeko (ez da hori gertatzen eztabaidarako eta erabaki garrantzitsuak hartzeko; horiek aurrez aurrekoak izaten jarraitzen dute biltzar-espazioetan).

«Internet asko erabiltzen dugu. Eskura ditugun teknologia guztiak aprobetxatzen ditugu barne-antolakuntzarako eta jendeari begirako erakusleiko gisa. [...] Gaur egun, askoz ere azkarrago iristen zara horrela jendearengana. [...] Lankidetzaren tresnak ditugu, erabakiak biltzarrean hartzen diren arren».

Tresna oso erabilia da, bai egiten diren jarduerak zabaltzeko, bai erakundeko kideak jakinaren gainean edukitzeko (adibidez, hainbat batzordetako lanari buruz), eta, batez ere, eguneroko lanean errentagarritasuna lortzeko (aurrez aurreko bilerak egin behar izan gabe, eta laneko eta familiako bizitzarekin uztartu ahal izateko).

8.6. Guraso-elkarteak.

Gurasoen mugimendu asoziatiboa oso garrantzitsua da kopuruari dagokionez, euskal ikastetxe guztiak dutelako guraso-elkarte bat. Ikerketa honen kasuan, adibidez, Bilbo Zaharreko (Miribillako Gurasoak), Zumarraga/Urretxuko (UGLE, La Salle, José María Iparragirre) eta Zabalganako (Mariturri, Zabalgana Eskola) erakundeek **hartu dute parte**, baita hezkuntza-zentro berriak aldarrikatzen dituzten eta ikastetxe bakar bati ere atxikita ez dauden erakundeek ere (Plataforma sin Colegios en Miribilla de Bilbao edo Zabalturri Elkarte de Zabalgana).

Horien artean, **oso bestelakoak dira abiapuntuko egoerak, lanaren xedeak, parte-hartze sozialeko mailak eta antolakuntza-ereduak**, eta errealitate desberdinak sortzen dira (gaitasunari, orientazioari, lan-metodoei eta abarrei dagokienez). Dena den, zenbait patroik partekatzen dituzte:

Forma juridiko formala.

Parte hartu duten erakunde guztiak forma juridiko formal bat dute, erakunde gisa. Horretarako arrazoi nagusietako bat da diru-laguntzak lortzea beren jarduera garatzeko eta ordezkagarritasuna lortzeko dagozkion bideetan (Eskola Kontseilua, administrazioekin elkarriketa...).

«Erakunde gisako forma juridikoa daukagu hasieratik. Modu oso naturalean sortu zen, horren abantailen artean baitzegoen, adibidez, administrazioei aldarrikapenak egitea».

Hori bai, forma estandarizatua izan arren, forma juridikorik gabe jarduten duten esperientziak daude (Plataforma Sin Colegios en Miribilla edo Plataforma Ibaiondo kasu) eta horregatik ez dute izan ordezkagarritasun maila baxuagorik, beste bitarteko batzuen bitartez lortu zutelako (hala nola sinadurabilketa, erakunde formalizatuetakoa kideen presentzia, etab.).

«Astebetean bakarrik 1.200 sinadura baino gehiago jaso nituen». «Mugikorra kea zeriola neukan. Forma juridikorik ez izateak ez zigun kontraindikaziorik ekarri. (Politikariek) berdin hartzen ziguten».



Biltzar bidezko ereduaren eta lan-batzordeen nahasketa.

Erakunde handienek ikerketa honetan aurkeztu den funtzionamendu-eredu diakronikoari jarraituz jarduten dute, hau da, biltzar bat dute, non erabaki garrantzitsuenak hartzen baitituzten, eta zenbait batzorde eraginkor ere bai; azken horiek autonomoagoak dira eta gaian interes handiena duten pertsonak kudeatzen dituzte.

«Lanak banatu behar dira. Ezin da pertsona bat guztiaz arduratu, erreta amaitzen baitu eta azkenean, utzi egiten baitu.»

Tamaina dela-eta jarduera maila baxuagoa duten beste erakunde batzuetan, biltzarra kontseilu bihurtu ohi da, nahiz eta asteko denbora-dedikazio finkoa izaten jarraitzen duten eta modu irekian jasotzen dituzten gai berriren bat ezagutarazi edo proposatu nahi duten familiak. Horietan, egitura eraginkorra ere murriztu egiten da, izapideak sinpletuz eta modu informala goan lan eginez.

«Ez dago paperetan aritu beharrik; ahoz ahokoa da, ez dago zailtasunik gauzak adierazteko. Ez dugu aktarik egiten, ez dugu kontu-libururik...».

Aurrez aurreko geruza eta geruza digitala nahasten dituen eguneroko funtzionamendua.

Eguneroko koordinazioa ikastetxetako espazio komunak oinarri hartuta (jolastokiak, parkeak, ikastetxe-sarrerak eta -irteerak) nahiz IKTak erabiliz (posta elektronikoa, Whatsapp... bidez) gauzatzen da. Horrela, parte-hartze sozial boluntarioa errazago uztartzen da laneko bizitzarekin, familiako bizitzarekin eta bizitza pertsonalarekin.

«Egunero elkartzen gara jolastokian, eta hitz egiten dugu. Baina Whatsapp aplikazioko talde bat ere badugu, eta gauzak errazten ditu horrek.»

Partaidetza-autozentratu eta aldarrikapenezko osagai indartsudun baterako motibazioak.

Seme-alaben hezkuntza hobetzeko xede ia bakarrarekin antolatzen eta parte hartzen dute pertsonak, **eta parte-hartze hori desagertu egiten da seme-alabek ikastetxea uzten dutenean, eta hein txikiagoan, helburuak lortzen dituztenean** (gai jakin bati buruzko jarduera zehatz bat bultzatzen duten pertsonen kasuan).

«Inplikazio nagusia zure seme-alabak dira, hezkuntza egokia eta kalitatezkoa izatea nahi duzu, eta gauzak egitea ikastetxean. Eta inplikatzeko hasten zara, sartzen, eta beti falta dira eskuak.»

«Nire seme-alabengatik nahi dut ikastetxean jarduera bat eskaintzea. Eta, hortaz, nik mugitu behar dut gaia. Hasieran, familiako interes batengatik mugitzen zara, baina azkenean, haur guztien alde lan egiten duzu.»

Ikastetxearen abiapuntuaren arabera, **haren funtzionamendua ikasleentzako jarduerak sortzera** (eskola-txangoak, kultur-jarduerak, etab.) edo **barneko arazoak konpontzera** (ikasleen eta irakasleen arteko arazoak, koordinazioa zuzendaritza-egiturarekin...) **bideratuta dago**.

Nolanahi ere, **oso arrunta da erakunde askok aldarrikapenezko ekintzen osagarri asko izatea**; normalean, ikastetxeetan plazarik falta izatearekin, etorkizuneko irtenbiderik ez egotearekin (berezik, Bilboko eta Vitoria-Gasteizko haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan, non horiek jarduten duten auzo berrietan bigarren hezkuntzako zentrorik oraindik ere eraiki ez baiten) edo ikastetxearen baldintzekin eurekin (eraikin aurrefabrikatuak, itoginak, berogailuen funtzionamendu txarra, ekipamendu-falta...) lotuta egoten dira.

Era berean, azpimarratu behar da **guraso-elkarte askotan erlazio-espazioak sortzen direla eta adiskidetasunak ezartzen direla**; parte hartzen duten pertsonak aldizkako biltzarretan eta batzarretan jartzen dira harremanetan komunitatearekin eta antzeko adina eta interesak dituzten pertsonekin harremanak indartzen dituzte.



Konpromiso- eta txandaketa-falta erantzukizun handieneko organoetan.

Aztertutako gainerako erakundeetan bezala, erakunde hauetarako errazagoa da lankidetzaz zehatzak aurkitzea (jaietarako, lantegietarako...) erakundearen egiturazko kudeaketarako (biltzarren dinamizazioa, zuzendaritza-batzordea...) baino, nahiz eta parte-hartzeari dagokionez arrakasta handiagoa duten barne-funtzionamenduko ereduak dituzten erakundeak badauden.

«Jendeak ez du ezertarako interesik, berdin zaio. Betikoak elkartzen gara hemen, aurpegi berberak».

«Bizitza handia izan arren, oso gutxiren artean dinamizatzen genuen mugimendua zen. Akigarria izan zen. Inork ez zuen lekukoa hartu».

Horrek horietako asko eraman ditu batzorde-sistema bat ezartzera, non lan-ildo berri bat sortzea onartzeko talde sustatzaile bat egon behar duen hura abian jartzeaz arduratuko dena, egitura egonkorra lan gehiagorekin ez saturatzeko, pertsona berrien inplikazioa, parte-hartze soziala eta erantzukidetasuna sustatuz.

«Hemen, zerbaitetan interesa duen norbait batzorde baten buru da. Jendea gehiago inplikatzeko du eredu horrek; batzorde bakoitzaren buru norbait ez badago, ez du balio. Erantzukide egin behar da».

Profil oso feminizatua eta lana euskaraz egitearen osagai indartsua duena.

Beste erakunde batzuk ez bezala (non gizonen eta emakumeen arteko profil-banaketa orekatuago baitagoen), guraso-elkarteen kasuan ohikoa da emakumeek osatzea gizonen osatzea baino, eta zenbait kasutan hegemonikoa edo ia eskusiboa da. Horrek zerikusia du erakunde horietan garatzen diren jarduerekin, oso lotuta baitaude seme-alaben zaintzarekin eta arretarekin, eta lan horiek tradizionalki emakumeek egin izanarekin lotzen dira.

Gainera, behatu da gizonen parte hartzen duten kasuetan erabaki-karguak (presidentziak) edo kudeaketa ekonomikoko lanak egiten dituztela, hein handiagoan espazio publikoak gizonen duten jardunarekin lotuta.

«Zer galdera ona. Baditugu gizonak, baina gutxiago. Emakume gehiago egon ohi gara gizonak baino. Hori bai, inplikaturik dagoena, oso inplikaturik egoten da; idazkariak, diruzainak, presidente bat.... izan ditugu».

Era berean, ohikoa da euskaraz erlazionatzea eta lan egitea, hezkuntza-eredu zabalduena D ereduaren heinean. Ildo horretan, Bilbo Zaharreko esperientzia (arrazoi horregatik beragatik) salbuespena da.

Sareko lana beste erakunde batzuekin, irizpide geografikoengatik eta tematikoengatik.

Hezkuntza-erakundeak eta guraso-elkarrekin lankidetzaz harremanak dituzte antzeko beste erakunde batzuekin (beste eremu batzuetan kokatuta daudenak baina interesak dituztenak komun) nahiz eragin-eremu bereko elkarrekin.

«Beste erakunde batzuekin lankidetzaz aritzen gara haien jarduerak oihartzuna izan dezaten eta ikastetxeko pertsona gehiagotara irits daitezen».

Zabalgana edo Bilbo Zaharra eremuetan lankidetzaz sare oso aktiboak daude eremuko beste erakunde batzuekin (Zabalgana Batuz, Zabalortu, Zabalturri, Txorrosolo, Hasi eta Hezi erakundeekin –lehenengo kasuan- edo Susterra, Bakuva, Bige edo Plataforma Ibaiondo erakundeekin –bigarren kasuan-).

Norbere burua boluntario edo kolaboratzaile gisa ikustea eta boluntariotza-aniztasunaren osagaiak izatea.

Parte hartzen duten pertsonen artean ohiko kezka izan ez arren, gogoeta egin ondoren, boluntariotza eta kolaborazio terminoekin identifikatu ohi dira beren jardueraz zehatzeko. Era berean, eta eragin-eremu bereko beste gizarte-eragile batzuekin sarean lan asko egiten denez, ohikoa da boluntariotza-



aniztasuneko adibideak aurkitzea; horietan ere lankidetzan aritzen dira, intentsitate baxuagoarekin bada ere.

«Kontua ez da guztiok beste GKE batekoak garela, baina badaude pertsonak beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzen direnak; hori bai, neurri txikiagoan, ez baitu denerako ematen».

8.7. Auzo-mugimenduak.

Aztertutako eremuetan ohikoak diren beste gizarte-mugimenduetako bat auzo-ehunari dagokiona da; bereziki aktiboa da Zabalganen eta hein txikiagoan Bilbo Zaharrean, non herritarren parte-hartzea gizarte-oinarri handiagoko komunitate-garapenerako beste erakunde mota batzuen bidez ere bideratzen den.

Auzo-mugimenduan bi profil berezitu bizi dira elkarrekin ikuspuntuari eta lan-metodoei dagokienez, eta gizartearen eta demografiaren nahiz gizartearen eta ekonomiaren profil desberdinei erantzuten diete auzo horietan. Barne-antolakuntzako ikusmolde, teknologiaren erabilera, norberaren burua antzemateko modu edo motibazio desberdin bihurtzen da hori.

Parte hartzeko motibazioak. Onura zuzenak.

Ehun asoziatibo hau, oro har, auzoa edo udalerrira hobetzearen alde borroka egiteko osatzen da, nola azpiegiturak gehiago garatu daitezten lortzen ahaleginduz (garraioa, garbiketa, herritarren eta hezkuntzako ekipamenduak, etab.) –hori litzateke Zabalganaren kasua–, hala herritarren bizikidetzan eta herritarren arazoak konpontzean hobekuntzak lortzen ahaleginduz –Asociación Vecinal Labetxo erakundearen lan nagusietako bat, adibidez–.

«Gure helburuak dira auzo-bizikidetzara ona izatea [...] eta gizarte-ingurua eta inguru fisikoa hobetzea».

Horrek motibatu egiten du denboran irauten duten partaidetza-taldeak badaude ere (eta baldintzen hobekuntza orokorraren alde lan egiten dutenak), beste pertsona batzuek partaidetza-eredu zehatzagoak garatzea, eragiten dien arazo jakin bat konpontzearekin lotuta (parte hartzeari utziz konpontzen denean).

Aldiz, **balaztek** zerikusia dute barne mailan herritarren inplikazio txikiarekin eta kanpo mailan beren egitekoaren aitortza-faltarekin, bereziki administrazio eskudunen aldetik.

«Aitortzen ez badizute ere, zuk badakizu egin duzula eta zuk lortu izanaren asebetetzea duzu».

Barne-antolamendua. Talde sustatzaileak edo zuzendaritza-batzordeak.

Barne-antolakuntzari dagokionez, erakunde guztiek ordezkatze-karguak dituzte, zuzendaritza-batzordeen mailan. Oro har, herritarren mugimenduen gizarte-oinarri murriztua dela-eta, pertsona gutxi arduratzen dira lan ohikoenez eta ikusgarritasuna presidentearen figurak bereganatzen du.

«Biltzar bidezko metodoa daukagu, eta denbora libre eskaini nahi duen pertsona orori irekita dago. [...] Denboraren eta pertsonaren lehentasunen arabera, lan batzuk edo beste batzuk izendatzen dira».

Eredu honek salbuespenak ere baditu. Zabalgana Batuz erakundearen kasuan, adibidez, bozeramaileen aniztasuna dago. Era berean, baieztatzen dute araudiak eskatzen duen kargu-egitura dutela, nahiz eta egunerokoan horik ez erabiltzeko barne-eredu bat egituratzen ahalegintzen den. Hau da, maila formaleko barne-egitura bat du, baina egunerokoan, lanak batzordeen bidez banatzen dira eta modu horizontalagoan, lanetara, denbora baliagarria eta pertsona bakoitzaren gaitasunetara egokitzen ahaleginduz.

«Erakundeko lanak pertsona bakoitzaren bizitza eta betebeharrak berezietara moldatzen ditugu».
«Karguak modu sinbolikoan hartzen ditugu. Ez dago auzo-liderrik».



Norberaren burua boluntario gisa eta konpromiso handieneko karguetan militante gisa ikustea orokorrean.

Auzoetako gizarte-ehunetan parte hartzen duten pertsonen boluntario gisa ikusi ohi dute euren burua, nahiz eta konpromiso eta arduraldi handieneko profilen kasuan, militantziaren figurarekin bat etorri gehienbat.

«Batuetan xahutu egin zaitzake, baina katigatu egiten du. Libre dituzun tarteetan sartzen hasten zara, eta azkenean, inplikatu egiten zara. Boluntario gisa hasi, eta militante gisa amaitzen duzu. Azkenean, nahi baino askoz ere gehiago inplikatzeko zara.»

Sareko lana eremuko beste talde batzuekin.

Beste erakunde mota batzuek ez bezala, parte hartzeko motibazioak lotura geografikoarekin dute garbi; izan ere, jarduten duten auzoko edo eremuko baldintzak hobetzea da haien xedea. Eremu berean lan egiten duten beste erakunde eta mugimendu batzuekin lankidetzaren sareak ezartzera eramaten du horrek, eta interesgarritzat jotako proiektuak bultzatzen dituzte.

Teknologia modu desberdinean erabiltzea.

IKTen erabileraren mailan, adibidez, Bilbon Labetxo nahiz Miribilla erakundeek aurrez aurrekoagoa den jarduera-profila dute eta teknologiarekin ez hain lotua (gutxiago erabiliz; orokorrean, barne-koordinazio zehatzetarako edo proiektu jakinetarako); ondorioz, zenbait tirabira izan dituzte lankidetzaren arloan eremu horretako beste erakunde batzuekin.

Aldiz, Vitoria-Gasteizen, Zabalgana Batuz erakundeak lanaren zati bat aurrez aurre egiten badu ere (geruza horretan hartzen dira erabaki garrantzitsuenak), egunerokoan modu oso eraginkorrean jarduten da IKTak erabiliz barne-koordinaziorako (posta elektronikoa, Whatsapp, etab.) nahiz jarduera kanpora begira hedatzeko eta presio-neurriak sortzeko (web orriak, blogak, Twitter, etab.).

«Orduak balioetsiz gero, aurrez aurre ordu asko daude erakunde mailan, baina baita lan-batzordeetan ere. Baina Whatsapp tresna konstantea da, dena posta elektronikoz partekatzen dugu...».

8.8 Kulturaren eta kirolaren arloko erakundeak eta taldeak.

Kulturaren eta kirolaren arloko gizarte-erakundeak dira parte-hartze sozialaren eta boluntariotzaren adierazle nagusietako batzuk, eta **gizarte-ehun handia eta aberatsa** osatzen dute **EAEn**, euskara, dantza, futbola, saskibaloia, eskubaloia, mendi-taldeak eta abar sustatuz.

Aztertutako hiru errealitatetan daude (besteak beste, erakunde hauek: Zintzo Mintzo, Sigi-Saga, Ortzadar, LaSalle Mendi Taldea edo CB Urola EK), eta egindako landa-lanak ahalbidetu du zenbait **arau komun** lortzea **horien artean** eta ondorioak ezartzea komun erakunde mota horiei dagokienez:

Berezko forma juridikoa.

Kirol-klub eta -talde guztiek **forma juridiko formalizatua** dute, nola **kirol-klub** gisa, hala **elkarte** gisa. Bi arazoiei zor zaie hori, batik bat:

Batetik, **kirol arlokoak**; izan ere, forma juridiko hori beharrezkoa da araututako lehiaketetan parte hartu ahal izateko eta kirol-aseguruak lortzeko. Bestetik, **ekonomiaren arlokoak**; izan ere, beharrezkoa da jarduerarako diru-laguntzak eskuratzeko, eta azken hau kultur- nahiz kirol-erakundetan gertatzen da.

Dena den, formalizatu gabeko forma juridikoa duten erakundeak ere badaude, lehiaketakoa ez den kirolera bideratutako aisialdiko taldeen moduan batik bat (esaterako, xendzaletasunaren eta mendiaren kasuan) edo euskal taldeen sustapenean. Mota horretako esperientzia zehatzak aztertu ziren Zumarragako LaSalle Mendi Taldea eta Sigi Saga Dantza Taldea erakundeetan (informazio gehiago lor daiteke ikerketa honetako banakako parte-hartze sozialeko esperientzien atalean).



Diru-laguntzekiko mendekotasuna.

Kanpo-finantzaketa jotzea ez da gai txikia, beste erakunde batzuek ez bezala, kirolaren bidezko parte-hartze sozialeko egiturak **ez direlako autonomoak ekonomikoki**, ez baitute betetzen **autofinantzaketaren** helburua.

Doan lagatako **udal-lokal** bat izan ohi dute (kultur-etxeetan, gizarte-egoitzetan, kiroldegietan edo ikastetxeetan) eta administrazio publikoren bateko **diru-laguntza bat izendatzen zaie urtero** (normalean, udalarena edo foru aldundiarena).

«Foru aldundiaren dirua jasotzen dugu. Ikastetxeetako kirol-talde guztiek jasotzen duten dirua da. Eta hemen kuota bat kobratzen den arren, ez dugu estaltzen».

Nahiz eta, adierazitako diskurtsoaren arabera, azken urteetako **ekarpen** publikoen **murrizketa etengabeak** jardueren kopurua murriztea ekarri duen (eta, beraz, baita parte-hartzea ere), horiek egiten ari dira **bitarteko gutxiagorekin eta** talde horietako boluntarioen **ahalegin pertsonal eta ekonomiko handiago batekin**.

«Administrazioaren laguntza eskertzen dugu. Baina laguntza ekonomikoak murrizten joan dira urtez urte, eta horrek zaildu egiten du jarduerak garatu ahal izatea. Dirua galtzeaz gaude une honetan, eta dagoeneko galdu ez badugu, kudeaketa ekonomiko ona izan dugulako da».

Gainera, **kirolaren arloan barne-etzabaidarako elementu** bat da; izan ere, lehiaketako a ez den kirol-taldeetako bat baztertuta sentitzen da jasotako esleipen ekonomikoetan, lehiaketan aritzen diren klubekin alderatuta.

«Uste dugu aldeak daudela lehiaketakoak diren eta lehiaketakoak ez diren kirolen babesean. Eta uste dugu lehiaketan aritzen ez diren eta 40 urtetik gora praktika daitezkeen kirolak gehiago bultzatu beharko lirатеkeela».

Parte-hartze soziala sustatzeko jarduera handia.

Erakunde horien ezaugarrietako bat da **mobilizatzeo gaitasun handia** dutela beste erakunde batzuekin alderatuta. Kirol-klubek (lehiaketakoak izan zein ez) eta kultur-taldeek eta -jarduerak **jende asko mobilizatzen dute, nola asteko (asteburuetan), hala modu zehatzean (jaiak)**, eta harremanen sare handiak sortzen dituzte, besteak beste.

Oro har, parte-hartzaile asko izaten dituzte –batik bat kirolaren kasuan– (aztertutako kasuetan, eta klub txikiak izan arren, asteburuetan erakunde bakoitzak 60-150 pertsona artean mobilizatzen ditu). **Gainera, jarduera maila handiko parte-hartzaileak dira**, asteko aisialdiaren zati baita.

Hori bai, beste talde batzuetan bezala, **zailtasun handiagoak** antzeman dira **emakumeen kirola mobilizatzeo**; bereziki, haurren adinetik hasita. Pertsonen ehunekoa (antolakuntza-egituretan nahiz partaidetza-espazioetan) handiagoa da beti gizonetan.

Eraztunen egituraren betetze argia.

Beharrezko konpromiso-eraztunen inguruko antolakuntza-egitura ohikoari dagokionez, aipatu behar da kirol-taldeetan ikusten dela argien eredu hori betetzen dela.

Oro har, **taldeek nukleo gogor bat dute** (edo zuzendaritza-batzarra), **jarduerak antolatzeaz** (egutegia, irteera, autobusak, etab.) **nahiz antolakuntza-egitura bera kudeatzeaz** (aurrekontuak, komunikazioa, etab.) **arduratzten dena**. Kopuruz talde txikia da, arduraldiaren intentsitatean indartsua, eta txandaketa-falta du (aipatutako moduan).



«Jendea zuk egiten duzunaren zain dagoela sentitzen duzu, erantzukizun handiagoa hartzen duzu. Denek zu begiratzen zaituzte, guztiaz arduratzen zara. Faltan botatzen dut norbaitek zera esatea: ez kezkatu, honetaz ni arduratuko naiz».

Boluntariotza egonkorreko bigarren eraztun bat ere badago argi eta garbi, eta **konpromiso maila txikiagoa** du. Oro har, beren gain ekintza zehatzak hartzen dituzten pertsonak dira, baina ez dute antolakuntzaren egituraren parte hartzen erabaki estrategikoenak hartzerakoan. Monitorea, taldeen arduradunak, ordezkariek, entrenatzaileak eta abar dira.

«Presidenteak sartzen ditu ordu gehien, eta gainerakook esku bat botatzen dugu».

Azkenik, **kolaboratzaile zehatzez osatutako hirugarren eraztun** bat ere ikus daiteke une jakinetan laguntzeko prest, boluntario baten zuzendaritzapean eta, betiere, denboran (orduei eta egunei dagokienez) eta erantzukizunean mugatuta dauden lanetarako.

«Edozeinen lankidetzat daukat. Ez daukat arazorik inori laguntza eskatzeko. Berehala botatzen dizute esku bat talde honetan gai jakin baterako».

Hirugarren eraztuna **oso markatua da kultur-erakundeetan**; izan ere, ekintza zehatzak antolatzeko, besteak beste, egituren eta txosten haurrentzako ekitaldien antolakuntzan (antzerkiak, txangoak, etab.) laguntzeko pertsonak behar dira.

Txandaketa-falta erantzukizun handieneko espazioetan.

Eraztun antolatzaileen kasuan bezala, ezin hobeto betetzen dute **txandaketa-faltaren patroio orokorra, bereziki ordu gehiago eskaini behar diren eta, batik bat, konpromiso** handiagoa behar den arloetan.

«Jendeari gehiago kostatzen zaio bileretara etortzea, gero, agian, pentsatzen dutelako hor eutsiko diezula gauza gehiagotarako».

«Niri gustatuko litzaidake norbaitek esatea hurrengo urteko hogeitxangoetatik hamar berak egingo dituela. Ez dut kexarik txango zehatz bat antolatzeko laguntzari dagokienez, faltan botatzen dudana zera da: lau guraso hartu eta ni egiten ari naizena egitea nirekin: izapideak, diru-laguntzen kudeaketa, autobusen antolaketa...».

Gainera, kasu batzuetan egoera **larriagoa** da, eta **taldearen iraupena bera mehatxatzen du** arduradunek denbora asko daramatelako eta pertsona berriak hasten ez direla ikusten dutelako; nekea pilatzen zaie eta txandaketa bat bilatzen dute –kasu askotan– erakundearen jarraitzeko baina erantzukizun maila baxuagoarekin.

«Iazko talde batean zera esan zuten: aizu, honaino iritsi gara, eta ez dugu jarraitu behar. Izan ere, urte asko zeramaten txandaketa eskatzen, eta inork ez zien ematen. Eta jendeak ikusi zuenean besteek esan zutela ez zutela jarraituko, elkartu egin ziren, eta aurrera atera zuten berriro. Hordagoa bota behar izan zuten».

«Nik uzten badut, ez dakit taldea desagertu ere egingo litzatekeen. Ez dakit nire lana inork hartuko lukeen».

Nolanahi ere, erantzukizun txikiagoko postuei dagokienez barne-osasun hobea dute erakunde hauek, eta nahiko erraza da –elkarrizketatutakoen hitzen arabera– «edozertan esku bat botatzeko» pertsonak aurkitzea, lan zehatzetan laguntzeko prest dauden pertsona asko baitaude.

«Orain gehiago kostatzen da jendeak parte hartzea. Orain zailagoa da taldeetarako eta zuzendaritza-bazarretarako ordezkariek aurkitzea. Nire ustez, konpromiso-falta da. Aldiz, haurrekin partiduetan egoteko arazo gutxiago daude. Gauza zehatzetarako izanez gero eta jarduera gidatuta emanez gero, ez dago arazorik jendea aurkitzeko».



Norbere burua boluntario gisa ikustea, garrantzia berezirik eman gabe.

Norberaren parte-hartzearen paperari buruzko gogoeta egitea ez da ohikoa. Oro har, «izen bat jartzen» denbora igaro ez duten pertsonak dira; aldiz, **egindako lanengatik aintzatesten dira**.

Nolanahi ere, ohiko izenak **boluntariotza** (erantzukizun handieneko pertsonen artean) edo **kolaboratzailea** (lotura zehatzagoak dituztenen artean) dira. Era berean, **termino berriak agertzen dira**, jarduera mota hauetako berezkoak, hala nola **zaleak edo animatzaileak**, **pertsona bakoitzaren aisialdiarekin eta zaletasunekin oso lotuta dauden ardurak dituztelako**.

«Boluntariotza GKE-etan soilik egiten dela ematen duen arren, nik uste dut gurean beste pertsona batzuentzat lan egiteari boluntariotza deituko niokeela»-

«Ez dakit, esango nuke animatzaileak edo, agian, zaleak ere bagarela... Gustatzen zaigulako egiten dugu».

Parte hartzeko arrazoi pertsonalak edo familiakoak.

Kulturaren arloaren antzeko moduan, kirolaren arloko praktikak direnez, **parte hartzeko arrazoiek zaletasun pertsonalekin** edo familiakoekin **dute zerikusia askotan** (seme-alaben zaletasunagatik); izan ere, haurren kirol-klubetan edo kultur-erakundeetan ohikoa da helduak lankidetzan hastea seme-alabak erakunde horietan kirola, antzerkia edo dantzak egiten hasten direnean. Kirolari dagokionez, ohikoa da pertsona horiek praktikatzen zuten kirol-jarduera uztean taldeetan partaidetza-espazioak betetzen hastea, nola entrenatzaile gisa, hala ordezkarri gisa.

«Motibazioak askotarikoak dira. Baina asko gara taldeko gaztetxoek gurusoak. Eta beste batzuk jokalaria edo jokalaria ohiak dira».

Era berean, ohikoa da erakundeetan erantzukizun-karguak hartzea komunitatean oihartzuna duen ondo egindako lan batekin zerikusia duen **gizarte-aitorpenarekin eta norberaren ongizate-sentimenduaren** lotutako arrazoiengatik.

«Uste dut zerbitzu ona eskaintzen dugulako daukagula jendea. Txangoak oso ondo prestatzen ditugu eta horrek eragiten du jendeak parte hartzea eta egiten duguna balioestea».

Azkenik, adierazi da, baita ere, kirol-klubetan eta -taldeetan parte hartzea **gizarte-harremanak sortzeko modu bat dela, familiako edo** laneko zirkulutik kanpo **adiskidetasun-sare bat ehuntzekoa** eta adiskidetasunen zirkulua zabaltzekoa.

«Taldeak aukera eman dit belaualdi askotako lagunak egiteko eta beste herri batzuetako jendea ere ezagutzeko; horiek ez nituzkeen inoiz ezagutuko bestela. Hori gustuko dut».

«Lagunen sozializazioa egiten dugu. Hemendik bikoteak atera dira, eta ezkondu egin dira. Eta bakartiek lagun-taldeak egin dituzte».

Parte-hartzearen intentsitatea, eta, beraz, erantzukizunak onartzea, pertsonen izateko moduaren beraren arabera izango da; izan ere, txosten osoan aipatzen ari garen moduan, parte-hartzea eta boluntariotza pertsonen izateko moduarekin hertsiki lotuta dago.

Parte hartzeari uzteko arrazoiei dagokienez, bizitzako etapekin izan ohi dute zerikusia, eta parte-hartzea seme-alaben jaiotzaren edo adinaren arabera erregulatzen da (edo mendeko pertsonen zereginak hartzearen arabera). Parte-hartzea malguagoa da, klub hauen jarduera aisialdiarekin lotuta baitago (eta ez bizitzeko era bati, beste erakunde mota batzuk bezala).

Nolanahi ere, aipatzen da erantzukizun handiagoko eginkizunetan aritu diren pertsonen, hori egiteari uzten diotenean ez dutela kontaktua erabat galtzen; aldiz, ekintza zehatzetan lankidetzan aritzeko prest



egoten dira. Horrela, eratzunen arteko igarobide bat ezarriko litzateke, eta handitu edo txikitu egingo litzateke ardura bizitzako une bakoitzaren arabera.

Ordu asko eskaintzea.

Oro har, kirol- eta kultur-egituretako partaidetza boluntarioei beste erakunde batzuei baino ordu gehiago eskaini behar zaizkie; ohikoa da asteko 8-10 ordu eskaintzea.

«Guztion ongiaren alde laguntze ari gara, eta ez ardoak hartzen. Eta horrek, astean ordu asko eramaten ditu».

Horrez gainera, eta elementu bereizle gisa, **asteburuak dira jarduera hauen ardatz nagusia** (aisialdi-osagaia duela-eta, dantza-erromeriak, mendi-irteerak edo lehiaketak asteburuetan izaten dira), nahiz eta aste barruan orduak eskaintzen zaizkion (antolakuntza-egitura, plangintza, koordinazioa, entrenamenduak, jendearentzako arreta, etab.).

Horrek eragin dezake **boluntariotza-aniztasuna** antzeman den arren, **ohikoa ez izatea**. Formula nahiko zehatza da, eta ezinbestez kirolarekin zerikusia duten beste arlo batuetan ere gauzatzen da.

«Gehienek klubean egiten dutena bakarrik egiten dute, baina gutxi batzuk aritzen dira ziklismoaren, euskararen, txistuaren, Saharako haurren eta abarren arloetan».

«Hemen zaila da erakunde batean baino gehiagotan egotea. Hemen egiteko asko dago. Gainera, seme-alabak eta bilobak dituzte. Nola egingo duzu, bada!».

Funtzionatzeko sistemak.

Erakunde horiek, oro har, betetzen dute antzemandako eredua: **erabaki garrantzitsuenak aurrez aurreko geruzaren espazioetan hartzen dira**, eta **eguneroko kudeaketa modu autonomoagoan** egiten da.

Normalean, **astero bilerak edo biltzarrak antolatzen dira**, eta horietan, erakundeetako nukleo gogorrek ildo estrategikoenak ezartzen dituzte eta asteko gainerako jarduerak planifikatzen dituzte. **Oinarri horren gainean, asteko gainerako lana autonomoagoa da**, eta norbanakoen erantzukizunen arabera banatzen da (adibidez, jendearen arretaren, web orri edota sare sozialen, jardueren prestaketaren eta abarren arloko arduradunak). Bereizketa hori gaitasunen eta adinen arabera egin ohi da; eskuarki, gazteenak dira IKTen arloaz arduratzen direnak.

IKTen zeregina.

Oro har, **egunerokoan asko erabiltzen dituzte** (garrantzia txikiagoko jardueretan), eta **erabilera bikoitza ematen diete**:

Batetik, **barneko lana sinpletzeko** modu bat da, eramangarriagoa egiten du eta aukera ematen du **hobeto uztartzeko laneko eta familiako bizitzarekin**, aurrez aurre jardun beharreko orduak murrizten baititu.

«Lehen aurrez aurrekoagoa zen; orain, lanak banatuz gero, etxetik lan egin dezaket».

Bestetik, **eragina duen komunitatea jakinaren gainean izateko modu bat da**, argitaratu egiten dituztelako txangoei buruzko informazio interesgarria, partiduak, emaitzak, ibilbidea... Are gehiago, uste da sare sozialak **belaunaldi gazteagoekin hobeto erlazionatzeko modu bat direla, eta horrela, kirolera erakartzea lortzeko**.

«Facebookek aukera ematen du gazteek parte hartzeko; argazkiak igotzen dituzte, iruzkindu egiten dituzte...».

«Dinamika aldatu beharra daukagu. Sare sozialak jartzeko ideia gazteak informatzeko eta erakarri ahal izateko da».



FUNTSEZKO ALDERDIEN LABURPENA.

Aurreko kapituluan adierazitako moduan, boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko profilei dagokienez nolabaiteko nahasketa bat egon da baita ere, eta «joera berri» deitu zaie berriak ez diren partaidetza-profilei, nahiz eta, agian, gutxiago aztertutakoak diren boluntariotzan baino gizarte-mugimenduen arloan kokatu direlako –ikuspuntu teoriko erredukzionista batean–.

Ikerketa honek, ikuspuntu zabalagoa duenez eta, ondorioz, lausoagoa, jarraian azaltzen diren profil hauek identifikatu ditu. Profiletako batzuk badira **berriak argi eta garbi** (boluntariotza teknikoa eta profesionala, ekonomia alternatibotik eta ondare komunitet datorrena), eta beste batzuk **–etengabe indartu direlako eta ekimen espezifiko berritzaileak agertu direlako– zenbait berritasun dituzte** dinamika eraginkorretan (hala nola etorkinen edo adinekoen boluntariotza).

Gainera, **hirugarren talde** bat ere txertatu da (besteak beste: erlijio-mugimenduak, autokudeatutako aldarrikapenezkoak, kulturalak eta kiroletakoak, auzokoa, hezkuntzakoak, etab.); berau berritzailea ez den arren, **ez da ikertu eskuarki** (boluntariotzarekin baino gizarte-mugimenduekin lotutako kontzeptualizazio teorikokoa izateagatik).

- **Adinekoen/adinekoentzako boluntariotza.** Adinekoen boluntariotza da, eta, oro har, adinekoei arreta eskaintzen zaie. Formalki eraturako erakundeen bidez egiten da; partaidetza eta txandaketa maila txikia dute, eta IKTak ere gutxi erabiltzen dituzte. Komunitatearen bizi-kalitatea hobetzen duen, norberaren ongizate handiagoa sortzen duen eta inguruko aitortza eragiten duen ondo egindako lanaren gogobetetzea da motibazio nagusia.
- **Boluntariotza teknikoa eta profesionala.** Boluntariotza korporatiboaz eta erakunde profesionaletakoaz gainera (forma tradizionalenak), ekonomia alternatiboko ereduetatik eratorritako boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko moduak agertu direla antzeman da. Lehenengo bietan, partaidetza zehatzagoa eta txikiagoa da. Horietan ez bezala, gizarte-ekonomiak eta ondare komunekoak sortze dituen partaidetza-ereduetan, parte-hartze soziala negozio-ereduarekin zuzenean lotuta dago, eta ulertzen da ekonomiak parte-hartzaileagoa izan behar duela eta komunitateari onura sortu behar diola.
- **Etorkinen/etorkinentzako boluntariotza.** Bilbo Zaharrean eta San Frantziskon ardatzuta dago oso (gizartearen eta demografiaren arloko profilagatik), eta etorkinek boluntariotza-lanak egiten dituzte bai «etorkinentzako», bai «etorkinen» erakundeen bidez. Ezaugarri nagusien artean azpimarratzekoak dira, besteak beste, formalki eraturako erakundeak izan arren, barne-prozedurak ez daudela hain protokolizatuta eta IKTak bestela erabiltzen dituztela (telefonoa eta Whatsapp, batez ere). Motibazioei dagokienez, gizarteratutako egotearen (hartu dituzten gizarte-erakundeak jasotako itzuliz) eta norberaren ahalduzko sententzia handiagoa dute, eta boluntariotza estereotipoak aldatzeko modu gisa erabiltzen dute. Hizkuntza eta administrazio-egitura ez ezagutzea dira, aldiz, parte-hartzearen balazta nagusietako bi. Genero-rolak eta partaidetza sustatzeko moduak nabarmenagoak dira, eta, beraz, desberdinak dira emakumeentzat eta gizonentzat.
- **Erljioaren arloko boluntariotza.** Erljio-sinesmena gorabehera (kristautasuna, islama), erlijio-bizipenak dituzten pertsonak boluntariotzarako eta parte-hartze sozialerako joera handiagoa dute, erlijioek sustatzen dituzten balioen ondorioz. Normalean, beren burua militante gisa ikusten dute, eta batzuetan, partaidetza-aniztasuna dute. Nahiz eta erakundeak formalki eraturik egon, arrazoi formalengatik egiten dut hori kontzientzia ideologikogatik baino, eta mugimendu gisa gehiago ikusten dute euren burua erakunde gisa baino.
- **Boluntariotza aldarrikapenezko talde autokudeatuetan.** Bilbon eta San Frantziskon ardatzuta daude oso baita ere (Urretxun/Zumarragan eta Zabalaganan ere agertzen diren arren), eta ezaugarri nagusietatik harreman emozionala dutela zuzeneko ekintzarekin gogoetarekin baino, eta administrazio publikoen egituretatik urrun dagoen taldeko hautematea dutela. Biltzar bidezko



eredua da, ez dute forma juridiko formalik eta funtsak beren bitartekoen bidez lortzen ahalegintzen dira, diru-laguntzen menpe egon gabe. Oro har, beren burua militante eta partaidetza-anizdun gisa ikusten dute, eta beste erakunde batzuekin sarean lan egitea (tematikoki edo geografikoki antzekoak) eta IKTak asko erabiltzea dira haien ezaugarri berezile azpimarragarrienetako batzuk.

- **Boluntariotza familiaren eta hezkuntzaren arloko erakundeetan, bereziki guraso-elkarteak.** Erakunde mota hori kopuruz ugaria da aztertutako eremuetan, eta, normalean, egitura juridiko formalen bidez (erakundeak) bideratzen dira, nahiz eta plataformak ere badauden. Ez dute interes berezirik jartzen beren burua ikusteko moduari buruzko gogoeta teorikoan, eta motibazio nagusiak autozentratua daude eta zerikusia dute beren seme-alaben ongizatea eta hezkuntza-kalitatea hobetzearekin. Barne-antolakuntzako ereduari dagokionez, biltzarrak (erabaki garrantzitsuenetarako) eta lan-batzordeak eta -taldeak daude (proiektu eta ekintza zehatzetarako), eta zailtasun handiagoak dituzte erantzukizun handieneko postuetan txandaketak egiteko (egiturak, batzarrak, etab.).
- **Boluntariotza auzo-erakundeetan eta -taldeetan.** Auzo-mugimenduak, oro har, aztertutako hiru errealitateetan agertzen dira, nahiz eta horien lan-intentsitatea eta gizarte-oinarriaren ordezkarritasuna desberdina izan. Parte hartzeko arrazoiak ere autozentratuak dira, eta bizi diren auzorako hobekuntzak lortzearekin lotuta dago. Antolatzeko moduari dagokionez, biltzar bidezko eredua eta talde eragileak nahasten ditu baita ere, eta, era berean, zailtasunak dituzte erantzukizun handieneko postuak betetzeko. IKTen erabilera desberdina da erakundearen arabera; norberaren lanean gehiago oinarritutako ereduak daude, eta, aldiz, tresna telematikoetan oinarritutako partaidetza-egitura handiago bat dutenak ere badaude, erakundeari eskainitako denbora bizi pertsonaleko, laneko bizitzako eta familiako bizitzako gainerako alderdiekin hobeto uztartu dezakete.
- **Boluntariotza kulturaren eta kirolaren arloko erakundeetan eta taldeetan.** Aisialdiari, kulturari eta kirolari dagokionez, gizarte-ehuna (formala edo ez-formala) indartsua da aztertutako eremuetan, euskal kulturaren eta kirolaren arloan bereziki. Erakunde formalak (batik bat, lehiaketako kiroletan, klub gisa eratzeko) eta ez-formalak (dantzaren, mendiaren, euskararen, musikaren eta abarren arloko taldeak) nahasten dira; besteak beste, azpimarratzekoak dira banakoek sustatzen dituzten eta oso aktiboak diren talde batzuk. Norberaren zaletasunak, sare sozialak ezartzea eta komunitate-aitorpena dira parte hartzeko motibazio nagusietako batzuk. Norberari buruzko gogoeta maila baxua da, eta garrantzi gutxi ematen zaio. Teknologia asko erabiltzen da, eguneroko ardua bizitza pertsonalarekin, laneko bizitzarekin eta familiako bizitzarekin laguntzen baitu, eta komunitatea programatutako jardueren jakinaren gainean izateko balio baitu. Halaber, erantzukizun-espazioetan txandaketa egiteko zailtasun handienak dituzten profiletako bat da, eta kolaborazioak eta boluntariotza izateko erraztasun handienak dituenetako bat ere bada.



9. IKT-AK ETA HAIEN ERAGINA BOLUNTARIOTZAN ETA PARTE-HARTZE SOZIALEAN.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko moduak indartsuen eraldatu dituzten elementuetako bat dira, eta eragin nabarmena dute nola barneko lanean, hala komunikazioan eta sentsibilizazioan.

Nolanahi ere, **eraginaren intentsitatea aldatu egiten da** eremuaren eta erakunde motaren arabera, eta, beraz, **ikerketa honen xede espezifikoa da IKTak aztertzea parte-hartze soziala eta boluntariotza sustatzeko tresna gisa**. Horretarako, entzute aktiboko prozesu oso batez gain, IKTen erabilerari eta horiek boluntariotzan eta parte-hartze sozialean duten eraginari buruzko modulu espezifikoak txertatu ziren gizarte-ikerketako prozesuaren galdetegietan, elkarrizketetan eta lantaldeetan.

9.1. IKTak eta geruza digitalaren erabilera.

Aldez aurretik egindako zenbait ikerketen arabera²⁰ gartutako ziberekimenak boluntariotzan joera integral berriztat hartzen badira ere, aztertutako eremuetako diagnostiko honen emaitzek aukera ematen dute soilik baieztatzeko **ekimen digitalak jarduera orokorraren isla direla nagusiki, eta oso eskasak direla geruza digitalean soilik agertzen diren ekimenak**.

Hain zuzen, errealitatea gehiago bat etortzen da Aragoiko Boluntariotzaren Koordinatzaileak (2012) identifikatutakoarekin, zera baitzioen: «erakunde guztiek IKTen erabilera **joera gisa** ikusten du, **baina gehienek oinarrizko mailan**». Era berean, gehiago bat etortzen da Chandra Fundazioaren (egun, Fundación Hazlo Posible) eta Centro de Estudios Tomillo erakundeak esandakoarekin, 2009an baieztatu baitzuten, eta oraindik ere erabat indarrean baitago zera: «**arrakala digitala** dago Internet kanpoko eta barneko komunikaziorako, proiektuen ikusgarritasunerako, sentsibilizaziorako edo gardentasuneko bitarteko gisa erabiltzen duten erakundeen eta tresna horien garrantziaz nekez jabetzen diren eta web orri bat izatea modernotasunak ezarritako betebeharrak bat dela uste duten beste erakunde batzuen artean».

Agian, geruza digitalean (ia) soilik agertzen den adibide aipagarri bakarra **helburu zehatz bat lortu nahi duten ekimenekin** lotuta dago, bereziki, lege-, politika- edo hirigintza-aldaketak, hala nola hezkuntza-zentro bat lortzea, gizarte-egoitza bat eraikitzea, garraio publikoko linea bat lortzea... Ekintza horiek konforme ez dagoen gizarte batetik datoz eta plataforma digitalak erabiltzen dituzte kaltetuen artean indarrak batzeko eta horiek bozgorailu gisa baliatzeko, kexa ikusgarri bihurtze eta enpresen edota instituzioen erreakzioa eragite aldera.

«Oso haserre nengoen. Baina ez nekien zer egin. Hiru egunetan 3-4 pertsona elkartu ginen eta parkera joan ginen sinadurak biltzera. Eta ezustekoa izan genuen: minutu batera, denek sinatzen zuten. Mundu osoa eskaini zen zabaltzeko eta sinatzeko. Astebetean soilik 1.200 sinadura baino gehiago jaso nituen».

Kasu hauetan, **berehalakotasuna eta oihartzun mediatikoa eta soziala** izatea da xedea, eta geruza digitalaren bidez antolatzeak aukera ematen du emaitza azkarrak lortzeko eta arinago koordinatzeko; hori horrela, eraketa formala bezalako elementuak bigarren plano batera igarotzen dira.

«Guk zarata atera nahi genuen bakarrik. Hasiera batean, dena sakelakotik egin genuen. Mugikorra kea zeriola neukan. Denak koordinatu behar ziren, eta horretarako, blog bat, Facebookeko orri bat eta Twitterreko kontu bat sortu genituen. Hori perfektua zen koordinatzeko eta informatzeko».

Ekimen horiek norbanako baten blog batetik, sinadura-bilketa batetik edo ikastetxean edo parke batean izandako bilera informal batetik sor daitezke, eta **IKTen bidez gauzatzen dira eta gizarte-eskaerak bideratzeko aukera ematen dute emaitza bikainekin**, formalki eratu beharrik gabe, erakunde batean, adibidez.

²⁰ Espainiako Gobernuak. 2011a.



Ikerketa honetan horrelako ekimen batzuk antzeman dira, eta dagoeneko jarduerarik ez duten arren (emaitza lortu dutelako), beren profilari eusten diote sare sozialetan, blogetan eta web orrietan, ez baitute baja eman. **Formalki aktibo jarraitzen dute, baina ez dute jarduerarik benetan**, horien funtzionamendua eten egiten baita sortzeko arrazoitzat izan zuten xedea lortzen dutenean (eta diferentziak alde batera utzita, benetako jarduerarik ez duten eta erregistroan baja ematen ez duten erakundeekin paralelismoa izateaz hitz egin dezakegu).

Ekimen mota hauez harago, **gauzatutako ikerketaren emaitzek ez dute ahalbidetzen ondorioztatzea geruza digitalekoak soilik diren partaidetza-espazioak daudela**, nahiz eta **ondoriozta daitekeen horrek geroz eta presentzia handiagoa duela** partaidetza-jardueren garapenean.

Hiru errealitateetan behatutakoak zerikusi handiagoa du **IKTak eta espazio digitalak erakundeen eta taldeen zerbitzura dauden tresna bat direla gehiago, eta ez horrenbeste parte hartzeko modu eksklusibo bat**, 6.2.2. ataleko kudeaketa diakronikoko erudian agertzen zen moduan.

9.2. IKTen funtzionaltasunak. Eragina parte-hartze sozialean.

Eztabaidagai argia bada ere eta txertatze maila desberdinak dauden arren (eta, beraz, teknologiaren eraginarenak), gaur egun IKTak ez dira parte-hartze eksklusiboko bide gisa ikusten, **parte-hartze soziala gogor laguntzeko eta antolakuntzan eraginkortasuna hobetzeko** tresna gisa baizik.

«Internet asko erabiltzen dugu. Eskura ditugun teknologia guztiak aprobetxatzen ditugu barne-antolakuntzarako eta jendeari begirako erakusleiho gisa. Lankidetzatresnak ditugu, nahiz eta biltzarrean hartzen diren erabakiak batik bat, denok ez dugulako Interneterako sarbiderik».

Hortaz, 2010-2014 aldirako Boluntariotzaren Estatuko Estrategiak adierazitakoaren²¹ ildoan doa hau, zera adierazi baitzuen: «erakundeen lana sustatzeko tresna da, koordinazioa eta sareko lana errazten duelako». Halaber, 2013-2016 aldirako Boluntariotzaren Euskal Estrategiak²² adierazitakoarekin bat dator, hau adierazi baitzuen: «garai digitalean sartzeak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak ezartzeak, ezer baino lehen, kulturaren iraultza du ondorio, eta boluntariotza ez da salbuespena. [...] aldaketak dakartza [...] erakundeek egiten duten kudeaketarentzat, arautze-dimentsioarentzat...».

Oro har, **parte-hartze sozialeko eragileek bi arlo handitan erabiltzen dituzte tresna digitalak: eguneroko barne-koordinazioko tresna gisa (posta elektronikoa, Whatsapp, GoogleDocs eta abarren bidez) eta kanpora begira informazioa hedatzeko tresna gisa**; adibidez, gutxi erabiltzen da pertsonak erakartzeko edo gai garrantzitsuak eztabaidatzeko.

«Tresna teknologikoak barnera nahiz kanpora begirako komunikazio-tresna gisa erabili dira batik bat, ez horrenbeste lan egiteko edo erakartzeko»

9.2.1. Kanpora begirako lana. Komunikazioa eta erakartzea.

Batetik, kanpora begirako lana daukagu, jarduerak hezatzeko, komunitatearekin elkar eragiteko, komunikabideetara eta administrazio publikoetara jotzeko, eta jardueretarako pertsonak erakartzeko:

- Ildo horretan, IKTen eta geruza digitalaren erabilera nagusiak zerikusia du **egindako jardueren hedapenarekin**, nola batik bat **informazio-tresnen** bidez (web orriak, blogak, posta elektronikoko zerrendak, etab.), hala **elkar eragiteko osagai handiagoa duten** tresnen bidez (nagusiki, profilak sare sozialetan, Facebook eta Twitter sareetan kasu).

²¹ Espainiako Gobernua. 2011b.

²² Eusko Jaurlaritza. 2013.



- Aitzitik, **gutxiago erabiltzen dira tresna horiek pertsonak erakartzeko**; izan ere, ekintzak egiteko eta parte hartzeko deiak txikiak dira, nahiz eta aztertutako erakunde batzuetan sare sozialetan garatutako jarduerari buruzko gogoeta egin duten eta ondorioztatu duten **gazteekin elkar eragiteko modu bat** dela, adin-talde horretarako harremanetarako bide zuzenak direlako. Ildo horretan, sare sozialak taldeko edo erakundeko **gizarte-oinarria gaztetzeko modu** gisa ikusiko lirateke, **gaztegoekin kontaktua izatea erraztuz**.

«Posta elektronikoa eta Facebook bidez parte hartzeko deia egin dugu, eta funtzionatu du».

- Erakundeen **jardueraren eragina** gizartean **areagotzeko tresna gisa** ere ikusten dira (hein txikiagoan izan arren), komunikabideen bidez, edo administrazio publikoari presioa egiteko modu gisa (edo zuzenagoa den sarbide gisa). Zentzu horretan, web orria, blogak edo Facebook eta Twitter dira ohiko aukerak.

«Blog, Twitter, Facebook... bidez asko hedatu genuen, komunikabide guztietatik deitu ziguten, politikarien profiletan idatzi genuen, eta deitu egin ziguten. Egunero geunden komunikabideetan».

«Beste erakunde batzuekin alderatuta, guk askoz ere gehiago erabiltzen ditugu prentsa-oharrak, web orria... Gugana jotzen dute, berriak sortzen ditugulako. Eta presio-neurri gisa funtzionatzen digu. Ez dugu nahi komunikabideetan atera bereziki, baina saihestezina da, eta fruitua ematen du».

Erakundeek komunikazioari buruz eta bereziki, sare sozialetan estrategiak garatzeari buruz kontzientziario handiagoa izateak aukera emango lieke gazteengana hurbiltzeko eta gizarte-oinarria berritzeko; tresna baliagarria da, gainera, belaunaldi-txandaketa sustatzeko, Boluntariotzaren Euskal Estrategiak jasotzen duenaren ildoan boluntariotzaren erakarpina eta sentsibilizazioa sustatzeko proposamenen artean, zera aipatzen baitu: «Boluntariotzak eta berau sustatzen duten erakundeek gehiago eta hobeto komunikatu behar dute» eta «IKTek eskaintzen dizkiguten aukerak aztertu eta aprobetxatu behar dira».

9.2.2. Barnera begirako lana. Parte-hartzearen malgutasuna eta koordinazioa.

Bestalde, tresna digitalek **erabilera zabala dute barneko lanari dagokionez**, hiru arlotan, bereziki:

- Lehenengo, **erakundearen zati diren pertsonen artean barne-informazioa zabaltzea errazteko** modu bat da, guztiek izan dezaten hartzen diren erabakien berri, aktak, gogoetak, barneko dokumentuak eta abar erraz eskuratuz.

«Duela gutxira arte, bileretara joan beharra zegoen. Eta joan ezin zuenak, ezer ez. Orain, erakundeak aldatzen ari gara. Orain, bileraren aurretik alde aurreko bat bidaltzen dugu, eta ondoren ere bai, denek ekarpenak egin ahal izan ditzaten».

Aldiz, **barne-eztabaidarako tresnak erabiltzeak ez du benetako erabilerarik benetan**, eta erabilera txikia dute eztabaida-foroak eta [Loomio](#) bezalako tresnak probatu dituzten erakundeetan (eta probatutakoan, ez dira mamitu). Erabilera-falta horren azalpen nagusia da, arestian aipatutako moduan, geruza digitala erabaki garrantzitsuak hartzeko lekua ez izatearen ikusmoldea.

«Tresna mota hori ezarri behar duzula esatean, denek oso ondo balioesten dute, baina gero ez dira erabiltzen benetan. Lehenengo, denek ez dute izena ematen eta izena ematen duenak, ondo iruditzen arren, ez dute erabiltzen... aurrez aurreko lan bat behar da haiei izena ematen, hedatzen... laguntzeko [...] eta egia da kostuak eta denbora aurrezten dituztela, baina azkenean, ez dute funtzionatzen».

- Bigarren, **persona guztien parte-hartze handiagoa bultzatzeko** erabiltzen dira nolabait, eta tresna oso baliagarria dira pertsonak **erakundeari edo taldeari ekarpenak egiten jarraitu ahal izateko bizitzako edozein unetan**, bizitzako edo laneko egoera edozein delarik ere.



«Denek parte har dezaten ahalegintzen gara. Eta teknologia tresna ordainezina da horretarako».

Horrela, IKTek aukera ematen dute **parte-hartzea egokitzeko zama profesional handiko uneetara edo denbora familiar eskaintzea lehentasunezkoa den bizitzako uneetara**, ekarpenak egin baitaitezke biltzarrera joan gabe (informazioa aldeztetik bidaliz), erakundearen jardueraren berri izan daiteke (barnean argitaratutako informazioa kontsultatuz) edo lan zehatzak egin daitezke (itzulpenak, diseinuak...) lantokitik edo etxetik.

«Aurrez aurreko bileretara beti etortzen ziren batzuk, eta orain, norberaren, familiararen edo lanaren arloko egoerengatik ezin dute. Eta parte hartzen jarraitzeko eta honen zati sentitzen jarraitzeko modu bakarra Interneten bidez egitea da. Bestela, ematen du urrundu egiten zarela. Eta funtzionatzen ari da».

- Azkenik, IKTak **eguneroko gaietarako barne-koordinazioa errazten duten tresna gisa** ikusten dira behin betiko, **eta aurrez aurreko momentuak izateko premia murrizten du**. Posta elektronikoa edo *Whatsapp*ak, besteak beste, erabakiak hartzea errazten dute eta parte-hartzea deszentralizatzen dute, edozein lekutatik eta edozein unetatik koordinatzen egon baitaiteke. **Erakundeak edo taldeak eraginkorrak izateko modu bat da, bertan parte hartzen duten pertsonen denboraren erabilerrari dagokionez**, bateragarriagoa egiten du jarduera eta laneko bizitza edo familiarako bizitza pertsonala.

«Aurrez aurreko denboran ez naiz asko aritzen, une jakinetan baino ez. Urtean zehar, badut denbora libre, ez dut nire denbora osoa honekin beteko. Garrantzitsua da».

Erakundearen barnean IKTen erabilera on batek aukera emango luke parte-hartzea dibertsifikatzeko, deszentralizatzeko eta des-sinkronizatzeko, malguagoa eginez, Boluntariotzaren Euskal Estrategian (2013) jasotakoaren ildoan, hau proposatzen baitu: «IKTei dagokienez, gizarte-sareek eskaintzen dituzten aukerak [...] aprobetxatu nahi dira, herritarren koordinazioa, informazioa eta parte-hartzea errazteko nahiz elkarrekin kudeaketa bera hobetzeko (barne-kudeaketa, dinamizazioa, komunikazioa, eta abar)». Gainera, Boluntariotzaren Estatuko Estrategiaren (2011a) ildoan dago, hau azaltzen baitu: «Irabazi asmorik gabeko erakundeek beren jarduera eta estrategiak (komunikaziokoak) egokitu behar dituzte IKTen errealitatera».

Aitzitik, antzemandako **desabantailen** artean aipatu behar da **pertsona guztiak ez dutela teknologiarako sarbiderik eta ez dituztela behar beste mederatzten**; alderdi horiek mugatu egin dituzte horien partaidetza-aukerak (geruza digitala asko erabiltzen den eredu batean). Hori asko antzeman da adinekoen, hezkuntza edo ekonomia maila txikiagoa dutenen eta, hein batean, baita etorkinen artean ere.

«Batzuoi lagungarria gerta dakigukeena posta elektronikoa, Whatsapp eta abar ditugulako, beste batzuen eragozpena izan daiteke. Posta elektronikorik edo Facebook konturik ez baduzu, agian nahiago izango dituzu aurrez aurreko bilerak».

Era berean, **IKTen eta geruza digitalaren erabilera handiagoak** argi eta garbi eragina duen arren **partaidetza-eraginkortasuna hobetzean, erakundearen partaide izatearen sententzia galtzea ere badakar**; izan ere, erabaki nagusiak aurrez aurreko espazioetan hartzen diren arren, eguneroko erabaki askok ez dute behar aurrez aurreko kontakturik, eta **eguneroko kudeaketa partaidetza-eredu hotzagoa eta urrunagoa egiten da**.

«Teknologiaren harremana pixka bat hotzagoa da, nahiz eta hobeto funtzionatu. Niretzat, aurrez aurreko bilerek giza-kontaktua sustatzen dute eta garrantzitsuak dira. Erakundeko beste kide batzuekin harremana izateko modu bat da. Orain gutxiago ikusten gara, aurrez aurreko bileretara jende gutxiago joaten gara, baina egia esan, gauza gehiago egiten dira. Ez dakit, beste modu batera egiten da lan».



Gabezia hori Espainiako Boluntariotzaren Egoeraren Diagnostikoan (2011a) jasota zegoen; hain zuzen, adierazten zuen **ziberboluntariotzaren erronka nagusietako bat** zela «loturari eustea urrunean eta [...] motibazioari eustea, kontaktuaren aurrez aurreko ekarpenik ez dagoelako».

9.3. Ekimenen erradiografia geruza digitalean.

Ezaugarri orokor gehienak arestian aipatu diren arren, ekimen interesgarrien eta geruza digitalean eragin handiena dutenen errebaso batek lagundu egin dezake hobeto ulertzen **IKTak nola erabiltzen diren eremu eta jardueren azpisektore bakoitzean**, baita aurrez aurreko jarduerarekin duen interakzio-eredua ere.

9.3.1. Zabalgana (Vitoria-Gasteiz).

Auzo gaztea denez (biztanleriaren % 80k 40 urte edo gutxiago ditu²³), boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko ekimenek **geruza digitalean asko funtzionatzen dute**, nola kanpora begirako lanak egiteko (komunikatzeko edo erakartzeko), hala barne-funtzionamendurako (jardueraren koordinazioa edo proiektuen kudeaketa); IKTak tresna indartsua dira parte-hartze soziala sustatzeko eta baita [sarean lan egiteko](#) ere erakundeen artean-

Komunitate- eta auzo-garapena.

Komunitate- eta auzo-garapenaren arloan, auzoko geruza digitalaren jarduera nagusia [Zabalgana Batuz auzo-elkartetik](#) dator, eta haren Twitter kontuaren eta web orriaren bidez lau mailatan jarduten du: **Informatzailea** (auzoarekin zerikusia duten berriak), **Salatzailea** (azpiegiturako urritasunak edo azpiegituren funtzionamendu txarra), **Aldarrikatzailea** (oraindik ere ez dauden komunitate-zerbitzuak) eta **Biltzailea** (herritar informatzaileak eta taldeko jarduerak/kexak/salaketak hedatzen dituztenak).

[@ZabalganaBerri](#) ere badago, Twitter bidezko komunitate-informazioko plataforma bat; informazio-gune gisa jarduten du, prentsan agertzen diren Zabalgana auzoari buruzko berriak jasoz. 2010. urteaz geroztik dago aktibo, 500 jarraitzaile ditu ia, eta etengabeko jarduera dauka.

Gainera, adierazi behar da Zabalgana auzoko gazteak aurrez aurre nahiz digitalki antolatzen direla, **Iñar Gazte Asanbladaren** inguruan. Plataforma digitalak erabiltzen dituzte – [Twitter](#) / [Facebook](#) - beren jarduera hedatzeko eta gazteei zuzendutako kaleko ekintzak ezagutarazteko. Beste lurralde batzuetako beste gazte-ekimen batzuekin eta auzoko beste ekimen batzuekin lotzeko bide ere badira.

Gaur egun, geruza digitalean jardunean jarraitzen duten partaidetza-espazioak horiek izan arren, auzoko historikoan ekimen zehatzak ere aurki ditzakegu (adibidez, [Zabalgana 336](#)); haren jardueraren xedea izan zen auzoko arazo komun batzuk aldarrikatzea, esaterako, etxebizitzak epean enteratzeko zailtasuna edo atzerapena nahiz etxebizitza akastunak entregatzea.

Aldi berean, ziberaktibismoko eskaerak ere antzeman dira, zehatzak, hirigintzaren arloko aldaketa zehatzak jasotzean oinarrituta (nagusiki [Change](#) plataformaren bidez), [taldeko](#) ekimenak (Santa Clara parrokiatik) nahiz [banakako](#) ekimenak erakutsiz.

Gizartearen eta kulturaren, gizartearen eta hezkuntzaren, nahiz familiaren arloko jarduera.

Gizartearen eta kulturaren, gizartearen eta hezkuntzaren nahiz familiaren arloko jarduerari dagokionez, eta gizartearen eta komunitatearen eta auzo-mugimenduen garapenarekin oso lotuta, esparru honetako jarduera auzoan bizi diren familientzako inguru onuragarria eraikitzen bideratuta dago. Horrela, gai zehatzak alde batera utzi, eta komunitatearen interesak hartzen du nagusitasuna.

Arlo honetan, **komunitatea antolatu egiten da, eta indartsu eta etengabe erabiltzen du geruza digitala, auzoko hezkuntza-gabeziak erakusteko**, hala nola adin guztietarako ikastetxe publikoak ez egotea

²³ Vitoria-Gasteizko Udala. [Auzoak zifretan](#). 2013.



(haurreskola bat sortzeko, haur- eta-lehen-hezkuntzako hirugarren ikastetxe bat eraikitzeko –berriki onartu da– eta auzoan institutu bat egiteko eskaera zehatzak), **edo soilik beren jarduerak zabaltzeko eta pertsonak erakartzeko**; izan ere, auzokoen batez besteko adinagatik jaiotzez digitalak diren pertsonen eta IKTak erabili arrunki erabili ohi dituztenen kopurua oso handia da.

Auzoan, **kultura** bultzatzeko jarduerak ere egiten dira, eta plataformak ere sortzen dira, honako hauen alde, besteak beste: [euskara](#), [kirola](#), [aisialdia](#) edo [musika](#). Guztien interesen inguruko sare bat ehuntzea da xedea, eta nortasuna eraikitzen jarraitzea auzoan.

Era berean, plataforma digitalak (funtsean, Facebook eta Twitter) eta ziberaktibismoko plataformak ere badaude, sinadura-bilketa oinarri dutenak (Change kasu), bereziki [norbanakoek sustatutako jarduera zehatzen](#) bidez.

9.3.2. Bilbo Historikoa (Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zazpi Kaleak).

Bilbo Zaharrean antzemandako gizarte-mugimenduak auzoaren nortasunaren isla dira. Monitorizatutako arlo geografikoen artean, honek du **abian jarritako jardura kopuru handiena**, funtsean **komunitatearen, gizartearen eta kulturaren eta gizartegintzaren arloetako garapenean**, auzoa birsortzera eta kultura aniztasuna bizitzera bideratutako jardueretan.

Halaber, azpimarratzekoa da **taldeen eta erakundeen arteko elkarreragina ekintza zehatzak bultzatzeko**, hala nola [Arroces del Mundo](#) edo [Noche Abierta](#); horiek auzoko parte-hartzea mobilizatzen dute, eta hiriko eta Bilbo Handiaren inguruko beste eremu batzuetako pertsonak erakartzen dituzte.

Komunitate- eta auzo-garapena.

Eremu honetako taldeen artean partekatutako eta koordinatutako ekintzen kopuru handia nabarmentzen da, eta Bilbo Zaharreko mugimendu asoziatiboaren ezaugarri bat da. Horretarako, adibidez, eta [Coordinadora de Grupos de Bilbao La Vieja, San Francisco y Zabala](#), erakundearen bidez, **oso modu aktiboan** erabiltzen dira gizarte-kanalak eta elkarren artean elikatzen dira; gainera, auzotik eta hiritik kanpoko mugimenduekin ere konektatzen dira.

Geruza digitaleko tresnak asko erabiltzen dira, eta biziki erabiltzen dituzte **kanal digitalak** (hala nola [Facebook](#) orriak), bai **etengabe jarduteko** (egiturazkoagoa da, eta azken xedetat du auzoko ekimenak bultzatzea eta partaidetza-ehuna sortzea), bai **ekintza zehatzak** hedatzeko edo deitzeko ([Arroces del mundo](#), esaterako); azken horien jarduerak une jakin bat du ardatz.

Era berean, arlo honetan auzoko ekimen askoren jardura sare sozialetan hedatzen da modu erkidetuan [Aldauri](#) proiektuaren babesean, eta zehatz-mehatz, [Goikoaldea Telebista](#) ekimenaren bidez; azken hori auzoari eta auzoko partaidetza-ekimenei buruzko bideoen proiektu bat da, erakunde horrek kudeatzen du eta boluntariotza bidez gauzatzen da.

Taldeko erakundeek sortutako partaidetza-esparruez gainera, ekimen zehatzak eta norbanakoen edo formalki eratu gabeko taldeen sustapenezkoak ere antzeman dira; horiek sinadura-bilketa dute oinarri, Change plataformaren bidez, arlo hauetan aldaketa zehatzak eskatzeko: [hirigintzan](#) edo [zerebitzuetan](#).

Gizartearen eta kulturaren, gizartearen eta hezkuntzaren, nahiz familiaren arloko jardura.

Familiako gizartearen eta kulturaren nahiz gizartearen eta hezkuntzaren arloko jardura aktiboki egiten da aurrez aurre nahiz geruza digitalean, eta auzoan aisialdi- eta kultura-eskaintza hobetzeko lan egiten da. Ildo horretan, bide digitalak **hedapen-mekanismo** gisa erabiltzen dira, eta kasu askotan, **jardura aldizkakoa da, edo ez dago**.

Aitzitik, beste ekimen mota batzuek jardura etengabea dute. Proiektu nabarmenetako bat da, agian, [Noche Abierta](#); kultur-jardunaldi hori [Sarean](#) proiektuak sustatzen du (auzo-topaketako proiektu historiko bat da gizartearen eta kulturaren arloko jardueren inguruan; berriki berreskuratu da);



jardunaldi horretan itsasadarraren alde horretako auzoetako bizilagunek, espazioek, artistek eta gizarte-nahiz kultur-eragileek parte hartzen dute, eta Facebook bidez hedatzen da.

Eremu honetako beste gizarte-eragile batzuek badute nolabaiteko presentzia digitala, hala nola [Sigi Saga](#) Dantza Taldeak edo jai-batzordeak (esaterako, San Fran [Jai Batzordea](#) edo [Bilbi Jai Batzordea](#)) aisialdiaren eta kulturaren arloan, eta [San Fran Futbol Taldeak](#) edo [Palanka Mendi Taldeak](#) (kirol jardueretan), normalean Facebook, Twitter edo Blog bidez.

Gizartegintza.

Gizartean esku hartzeko ekimenak gorabehera, aldarrikapenezkoak direnez eta gizarte-aldaketa bultzatzen dutenez, aliatu handitzat dute IKTen erabilera sentsibilizazioko eta erakarpenerako ekimenak garatzeko: **eremu honetako [erakundeen eta taldeen ehuneko txiki batek](#) soilik erabiltzen ditu modu aktiboan sare sozialak** (eta batik bat, ikusgarritasun- eta sentsibilizazio-tresna gisa, ez erakartzeko), nahiz eta eraginean emaitza kaskarrak izan. Beste kasu batzuetan, kanalak sortuta egon arren, [ez dute jarduerarik](#).

Soilik **aldarrikapenezkoenak diren ekimenez**, [PAH Bizkaia](#) kasu, erabiltzen dute gehiago geruza digitala (besteak beste, [Facebook](#) eta [Twitter](#) profilak eta web orriak), etxegabetuen edo etxegabetuak izateko arriskuan dauden pertsonen harrera egiteko; horretarako, bankuen eta instituzioen jardunbide desegokiei buruzko informazioa eskaintzen dute edo ekintza zehatzetarako deialdiak egiten dituzte (kontzentrazioak, kazeroladak, etxegabetuen geldiarazteak eta abar).

Aldiz, **aniztasun afektibo-sexualaren** esparruan, ekimen gehiago baliatzen dira (horren adierazgarri ona da [Gehitu](#) erakundearen kasua, nahiz eta erakundearen profila maila globalekoa izan, eta ez soilik Bilboko).

Etorkinei dagokienez, arestian adierazitako moduan, teknologiak gutxiago erabiltzen dira (eta beste bitarteko batzuetara bideratuta, *Whatsapp* tresnara, adibidez). Horren isla zera da: talde horrek **talde gisa ez duela jarduera antolatuz geruza digitalean**, nahiz eta parte har dezaketen norbanako gisa auzoko beste kanal batzuetan, hain zuzen, horien gizarteratzearen alde lan egiten duten erakundeek abian jarritakoetan, esaterako [Solidariad Internacional](#) edo [Etorkinekin Bat](#) erakundeek.

Antolatutako esparrutik kanpo, **ziberaktibismoko** ekimen zehatzen bat ere antzeman da, eta formalki eratu gabeko pertsonen talde batetik administrazio publikoak erabakiak hartzean eragina izaten ahalegintzen dira, erabaki hori birpentsatzeko.

Arlo tekniko eta profesionala.

8.2. atalean adierazitako moduan, boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko talde honen baitan oso bestelako ekimenak daude. Bilbo Zaharrean boluntariotza korporatiboaren arloko mugimendurik ez dagoen arren zentzu tradizionalan ulertuta, erakunde profesionaletatik nahiz eredu ekonomiko alternatiboetatik datorren partaidetza-jarduera aktibo dago.

Erakunde profesionalen ekimenen artean, azpimarratzekoa da [Rastro Dos de Mayo](#) (eremu horretako saltoki batzuen ekimena da, eta gizarte-dinamizazioko espazio bat sortzen du hilero) eta [Alde Zaharreko Merkatarien Elkartearen](#) sare sozialetako lana, nahikoa aktiboa baita [Facebook](#) sarean jarduerak zabaltzeari eta horietan parte hartzeko herritarrek deitzeari dagokionez. Aldiz, [San Frantziskoko eta Bilbo Zaharreko Merkatarien Elkarteak](#) kanal digitalak ditu irekita ([Twitter](#) edo [Facebook](#) baina jarduera maila oso murrizta dute).

Ekonomia alternatiboko edota ondare komunaren arloko ekimenen artean, geruza digitalean oso aktiboak diren mugimenduak ere baditugu, eta sare sozialetan profilak dituzte, –hori bai– funtsean jarduerak hedatzera bideratuta. Horren adibide dira [Caóstica](#) (Gizazinea, film laburren jaialdia, etab.) edo [DDT Banaketak](#) erakundeak.



9.3.3. Zumarraga/Urretxu.

Zumarraga/Urretxu eremu geografikoan, azpimarratzekoak dira, batik bat, parte-hartze sozialeko eta herritarreko prozesuekin lotutako plataformak komunitate- eta auzo-garapenaren esparruan (batzuetan, aldarrikapen-osagai handia dute), baita kulturaren eta kirolaren arloekin lotutako ekimenak ere.

Komunitate- eta auzo-garapena.

Komunitate- eta auzo-garapena jarduera etengabea duten eta gizarte-aldaketa faboratzeko herritarren partaidetza-prozesuak bultzatzen dituzten plataformen bidez egituratzen da. Adibidez, [Urretxubiziz](#) plataformak (Urretxuko auzo guztiak hartzen dituen herritarren partaidetzarako plataformak) hainbat gai lantzen ditu (kultura, auzoa, herritarren parte-hartzea, ingurumena, etab.).

Maila zehatzagoetan, nabarmentzekoak da [Fábrica Irimo](#) mugimendua eta haren industria-eremua berreskuratzea; partaidetza-prozesu herrikoi bat da, eta kultur-ekoizpena eta tokiko ekonomia aktibatze xedea du. Mugimendua blog baten bidez egituratzen da, baita [Vimeo](#) kanal baten bidez eta [#Irimo](#) *hashtag*aren bidez; horiek [udalerriko](#) beste ekimen batzuekin ere erlazionatzen dira, eta beste kokapen geografiko batzuetako antzeko ekimenekin ere bai.

Arlo honetan, baina **osagai politikoago eta militanteago batean**, bi norabidetako partaidetzako eta herri-mugimenduko plataformak nabarmentzen dira. Batetik, [Urretxu Zumarragako Langileria](#) bezalako esperientziak daude (biltzar bidezko mugimendua da, eta bere burua iraultzaile eta antikapitalista gisa zehatzen du), eta, bestetik, erabakitze eskubidearen aldeko partaidetza-ekimenak (hala nola [Gure Esku Dago U-Z](#)), eta biltzar bidez lan egiten badu ere, sare sozialak ere erabiltzen ditu bere jarduerak hedatzeko eta bere ekintzengatik pertsonak biltzeko.

Gizartearen eta kulturaren, gizartearen eta hezkuntzaren, nahiz familiaren arloko jarduera.

Arestian adierazitako moduan, gizartearen eta kulturaren (kirola barne) gizartearen eta hezkuntzaren arloa indartsua da Zumarragan-Urretxun, batik bat euskal kultura (musikaren, dantzaren edo aisialdiaren alorretako taldeen bidez) eta kirola (besteak beste, mendiko taldeak) indartzeko lan eginez.

Oro har, horiek guztiak denboran errotutako ekimenak izan arren, maila digitalean ahulak dira eta soilik sare sozialak erabiltzen dituzte hedapen-tresna gisa (funtsean, Facebook), eta noizean behingo jarduera dute (edo profilak sortzen dituzte, baina ez dituzte aktibo izaten). Esaterako, [Zintzo Mintzo Elkartea](#) erakundearen kasuan, haren Otamotz atariak baditu [Facebook](#) eta [Twitter](#) profilak, baina horien jarduera maila baxua da.

Nolanahi ere, badago aurkako egoera ere. Adibidez, Urretxuko eta Zumarragako Gaztetxeak ez du jarduerarik izan kokapen fisikoan (jarduera berreskuratzen berri du), baina haren irrati askeak, [KKinZona Irratiak](#), aldarrikapenezko eta salaketazko jarduera etengabea du kanal digitaletan (batik bat [Facebook](#) eta [Twitter](#) sareetan).

Gizartegintza.

Arlo horrek aurrez aurreko geruzan zama txikiagoa izatearen isla gisa nabarmentzen dugu geruza digitalean gizartean esku-hartzeari buruzko jarduera gutxi dagoela. Soilik Urretxu-Zumarragako [Eraldatzen](#) mugimendu feministak [Facebook](#) sarea erabiltzen du gizartea kontzientziatzeko eta bere jarduera ikusgarri egiteko tresna gisa; gainera, geruza digitalean modu aktiboan erlazionatzen da udalerriko beste talde batzuekin edo antzeko gaiak lantzen dituzten beste plataforma digital batzuekin eta eremu geografiko desberdinetakoak direnekin.

Antolatutako arlotik kanpo, **norbanakoen mugimenduak** ere ez dira garrantzitsuak, nahiz eta ziberaktibismoko bi ekimen antzeman diren; zehazki, sinadurak biltzeko bi eskaerak dira gai [legalei](#) eta [ekonomikoei](#) buruz, udalerriz mailan nahiz udalerriz gaindiko mailan. Bi ekimenek **eragin maila baxua izan dute**.



Arlo teknikoa eta profesionala.

Bilbo Zaharrean ez bezala, geruza digitalean arlo teknikoko eta profesionaleko ekimenak erakunde profesionaletara murrizten dira. Zehazki, Bi Tarteetan, Urretxu-Zumarragako [Merkatarien Elkartean](#) plataforma digitalak erabiltzen ditu bere jarduera hedatzeko bitarteko gisa, [Facebook](#) sareko orri baten bidez.

Arcelor Mittal enpresaren aurrez aurreko jardueratik erator daitekeen **boluntariotza korporatiboko** espazioek, aldiz, **ez dute islarik geruza digitalean**, ez web orri mailan, ez sare sozialetako profilen mailan.

FUNTSEZKO ALDERDIEN LABURPENA.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilera hazten doan arren eta parte-hartze soziala argi eta garbi eraldatu duen arren, erabaki garrantzitsuenak aurrez aurre hartzen jarraitzen dira, bileren eta biltzarren bidez. IKTak eguneroko barne-koordinazioko tresna gisa (posta elektronikoa, Whatsapp eta abarren bidez) eta kanpora begira informazioa hedatzeko tresna gisa erabiltzen dira nagusiki; adibidez, gutxi erabiltzen da pertsonak erakartzeko edo gai garrantzitsuak eztabaidatzeko.

Oro har, **San Frantziskoko/Bilbo Zaharreko eta Zabalganako erakundeen artean geruza digitalean presentzia handiagoa** antzeman da Zumarragako eta Urretxukoetan baino; azken horietan, jarduera aurrez aurrekoagoa da eta gutxiago erabiltzen da teknologia barneko eta kanpoko partaidetza sustatzeko bitarteko gisa.

Erakundeen gaiak (horiek osatzen dituzten pertsonen adinarekin bat etorrita) zerikusi handia du erakundeetan IKTen garapen mailarekin. Oro har, **gazteak eta denbora libre gutxiago duten pertsonen osatutako erakundeek** egiten dute gehiago IKTen aldeko apustua; izan ere, eskainitako denbora maximizatzeko aukera ematen die, eta erakundeari modu deszentralizatuan ekarpena egitea, ordutegi-eritmo edo kokapen geografiko jakin batzuen menpe egon beharrik gabe.

Antzemandako **abantailen** artean, **IKTek** aukera ematen dute koordinazioa deszentralizatzeko eta arintzeko, eguneroko partaidetza-lanaren eraginkortasuna areagotzen dute, eta bizitza pertsonalarekin, laneko bizitzarekin eta familiako bizitzarekin bateragarriagoa izatea eragiten dute. Halaber, talde berrietara jotzeko modu errazagoa da, bereziki gazteagoengana; hortaz, tresna oso baliagarria da partaidetza-oinarriak gaztetzeko eta jaiotzez digitalak diren belaunaldi berrietara iristeko.

Desabantaileri dagokienez, partaidetza kudeatzeko eta egituratzeko erabiltzen direnez gehienbat, kanpoan uzten dituzte gaitasun teknologiko hori ez dutenak, izan adinagatik, izan gizartearen eta ekonomiaren arloko mailagatik. Era berean, zenbait pertsonak erakundeko kide izateko sentsazioa galtzen dute, partaidetza-harreman banakakoagoa, autonomoagoa eta hotzagoa gauzatzen baita.



10. ONDORIOAK.

Ikerketa hau Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren eta Familia Politika eta Komunitate Garapena Zuzendaritzaren arteko diagnostiko batetik abiatzen da, **boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko moduen aniztasuna aztertzeko premiari** buruz. Ikerketaren xedea da **arrazoiak**, garatutako **funtzioak** eta **berau sustatzen edo galarazten duten faktoreak** sakontzea, eta jarraipena ematea ildo horretan aurretik egindako lanei. Kasu honetan, **ikuspuntu kualitatiboa** baliatu da, eta sakon aztertu dira **tokiko** hiru euskal partaidetza-errealitate.

Aldez aurreko zenbait ondorio kontzeptual eta metodologiko.

Ildo honetan, txosten honek **gizartearen arloan gaur egun bizikide diren sentsibilitate eta ikuspuntu desberdinen** oinarria lantzen da; izan ere, **ikergaia testuinguruan kokatzea ere eztabaidagarria** da, eta **etengabe eztabaidatzen da**. Historikoki hurbilketa kontzeptualak egin izan dira boluntariotzari eta parte-hartze sozialari buruz era murriztailean eta zorrotzean, eta, besteak beste, parte-hartze sozial oro boluntariotza izateari, pertsona bat boluntarioa edo militantea izatea zerk zehazteari edo hirugarren sektoretik at boluntariotza egoteari buruzko gogoetak egin dira.

Ikerketa honen helburuak ez ziren tokiko hiru errealitatetan **parte-hartze sozialaren** eta boluntariotzaren **modu desberdinen diagnostiko sakona** egitea soilik; aldiz, berriak izategatik **joera berritzaile** har zitezkeen **adierazpen eta praktika parte-hartzaileak** identifikatu nahi ziren.

Horretarako, mugimenduen ezpurutasunean gehiago oinarritzen den **definizio kontzeptual** bat lantzea aukeratu da, eta ikuspuntu **lausoagoa eta zehatzgubeagoa** izatea. **Hori horrela, boluntariotza inklusiboki erabili dugu eta boluntariotzari buruzko ikerketatik kanpo geratu ohi diren parte-hartze sozialeko moduak hartu ditugu baitan**. Uste dugu ikuspuntu honek **modu eraginkorragoan erantzuten diola mugak eta muga kontzeptual murriztaileak ulertzen ez dituen** continuum bat den **partaidetza-errealitateari**.

Ondorioz, **hurbilketa metodologiko desberdin** bat egin da, **ikuspuntu tradizionalan** soilik oinarritutako **diseinu tekniko bat ez litzatekeelako gai izango modu lausoago, arautu gabeko eta berritzaileak ere badiren horiek identifikatzeko eta jasotzeko**. Horretarako, **funtsezkoa** izan da **geruza digitalaren entzute aktiboko prozesu** bat gauzatzea, horrek ahalbidetu baitu **arlotan tradizionaletatik urrunduen dauden edo berezko ezaugarriak dituzten parte hartzeko moduak** antzematea (eta ondoren, aztertzea).

Edozein kasutan, azpimarratu behar da hori horrela izan arren, **parte hartzeko zenbait modu arretagunetik kanpo gera zitezkeela partzialki**, arreta-gune horrek tokiko **mugaketa geografiko** bat baitu (eta, beraz, testuinguru horretan jarduten duten ekimenak soilik antzeman dira).

Parte-hartzearen motibazioak eta balaztak. Autozentratutako eta heterozentratutako motibazioen nahasketa.

Boluntariotza-jarduerak garatzeko **motibazioak komunitate-arrazoi**en (adibidez, gizarteari balioa ematea gizarte-aldaketa txikiak eginez) **eta arrazoi pertsonalen** (gizarteratuak egotearen, norberaren ongizatearen eta gizarte-aitortzaren sentipen handiagoa) **arteko nahasketa bat dira**.

Balaztei dagokienez, bi mota daude. Batetik, erakundeez **kanpokoak** daude, eta **denbora-faltaren** (laneko edo familiako arrazoiengatik) edo lidergo handieneko profiletan **metatutako nekearen** (erantzukizun handiko lanak onartzearen ibilbide luzean) arlokoak dira.

Bestetik, erakundeen **barnekoak** daude, eta boluntariotza ondo **ez jakinaraztearekin** eta hurbildutako pertsonak **interesa izatea eta babestuak sentitzea ez lortzearekin** lotuta daude.



Formalki eraturako eta formalki eratu gabeko erakunde-ereduen abantailak eta desabantailak, izan ideologikoak, izan utilitaristak.

Oro har boluntariotzako gizarte-erakundeen artean **erakunde-eredu nagusia eraketa formala** izan arren, **badaude formalki ez erregistratzea kontzienteki erabaki duten erakundeak**; horietako **batzuek**, gainera, parte-hartze sozialaren **mobilizazio-gaitasun handia dute**. Aukera bat edo bestea egiteko **arrazoien** atzean, **arrazoi ideologikoak** eta **utilitaristagoak** daude.

Formalki eraturako erakundeek uste dute **berezko balio** batzuk ekartzen dituela (irudi serioagoa eta gardenagoa ematea kasu), baita ordezkagarritasuna irabaztea, eta funtzionamendu hobea izatea eta boluntarioak hobeto hartzea ahalbidetzen duen egitura bat izatea ere. Bestetik, **abantaila utilitaristagoak** zehazten dira; bereziki, diru-laguntzei, lokal publikoei, elkarrizketa-foroei edo lan-sareei dagokienez. **Desabantailei** dagokienez, egitura formala lan burokratiko handiagorekin (nahiz eta, egia esan, diru-laguntzak ematearen ondoriozkoa izan), jarduteko askatasun gutxiago izatearekin (diru-laguntzek eragiten dute erakundeak gehiago bideratzea kudeaketara, aldarrikapenera baino) eta jarduteko azkartasun gutxiago izatearekin (erabakiak demokratikoagoak baina motelagoak izatea dakarten barne-organoz hornitzean) lotzen dute.

Formalki eratu gabeko erakundeek, aldiz, uste dute horrek azkartasun eta malgutasun handiagoa ematen diela, jarduerari eta erakundearen dimentsioari buruzko kontrol handiagoa eskaintzen eta, oro har, askatasun handiagoa ematen diela, bereziki administrazioarekin harreman-esparru batean (diru-laguntzaren, lokalen eta elkarrizketaren arlokoa) ez sartzearen ondorioz. **Desabantailei** dagokienez, antzematen dute egitura instituzionalki eraturak ez dagoen heinean (estatutuak, oinarriak, etab.), balitekeela antolakuntzaren balioak partekatzen ez dituzten pertsonetara iristea (edo erakundearen balioak ez partekatuak izatea modu berean pertsona guztien artean eta lotura gehiago izatea proiektuen araberakoa egiturazkoa baino).

Antolakuntza-sistema sinkronikoa-diakronikoa. Egiturazko konpromiso maila desberdina eta lan zehatzekin lotutako antolakuntza-eredu funtzionala.

Egindako azterketak aukera eman du **arau orokor gisa eredu sinkroniko (egiturazkoa) eta diakroniko (denborazkoa) bikoitz bat** betetzen dela ezartzeko erakunde mota, jarduten den sektorea edo talde hartzailea edozein delarik ere.

Egiturari dagokionez, erakundeak eta taldeak **hiru eraztunen sisteman baten inguruan antolatu** ohi dira. Sistema hori **nukleo gogor** batek (tamaina txikia du, baina konpromiso handia), **boluntarioen bigarren eraztun** batek (arduraldi egonkorra du, baina konpromiso txikiagoa) eta **kolaborazioen hirugarren eraztun** batek (lausoagoa da, konpromiso gutxiago du eta aldakorragoa da, baina kopuru askoz ere handiagoa da) osatzen dute. Hiru eraztun horiek alderantziz proportzionalak dira dedikazioan eta kopuruan, hau da, oro har eraztunean zenbat eta pertsona gehiago egon, orduan eta konpromiso txikiagoa dute, eta alderantziz.

Lanari eskainitako denborari dagokionez, nahastu egiten dira **gogoetarako eta erabaki garrantzitsuak hartzeko taldeko espazio orokorrak eta lantalde eragingarriagoak** (baita banakakoak ere), espazio orokorretatik eratorritako proiektu zehatzagoak abian jartzeko. **Bigarren lan-fase horretan du gehienbat eragina garapen teknologikoak**; bereziki, eguneroko lana eta koordinazioa errazteko (barnekoa) nahiz jardueraren berri emateko eta komunitatearekin harremanetan egoteko (kanpokoa).

Boluntarioen eta erakundeen artean harremanetan egoteko modu berri bat sortzea (lanei dagokienez) eta boluntarioen artean norbere burua antzemateari buruzko eztabaidaren benetako garrantzia eskasa.

Antolakuntza-eredu horrek (**konpromiso maila desberdinekin lotuta** nahiz **ekintza zehatzak egitera bideratuta**) zenbait **ondorio zuzen** ditu boluntariotzaren arloko azterketa-elementu tradizional eta erreferentziatzko batzuen gainean.

Lehenik, **norberaren burua antzemateari buruzko ikuspuntuak** (historikoki eztabaida-leku handia hartu izan dute) eta militantziari edo boluntariotzari lotutako ezaugarrien arteko aldeak **gero eta zama**



txikiagoa du eraztun periferikoen artean (pertsone asko hartzen dituzte). Aitzitik, **konpromiso maila txikiagoko pertsonen** eraztun horiek **emozionalki gehiago lotzen dira ekintzarekin gogoetarekin baino**. Hots, parte-hartzetik eta boluntariotzatik erakartzen dituenak zerikusi handiagoa du «egiten dutenarekin» «ustez direnarekin» baino, eta azken horrek ez du leku nagusirik hartzen boluntario gisa.

Bigarren, eta horren ondorioz, **boluntarioen** (batik bat bigarren eta hirugarren eraztunean) eta **erakundearen edo taldearen artean harreman mota berri bat** ezartzen da; harreman horretan, **gako argitzailea ez litzateke erakundeari eskaintako denbora izango** (tradizionalki hala izan da), **garatzen dituzten balio erantsiko lanak** baizik.

Paradigma-aldaketa hori **ekintzarekin eta talde hartzailearekin gehiago lotzen da**, baina baita **boluntariotza-lan ez-tradizionalen garapenarekin ere, ezagutza tekniko profesionalekin zerikusi handiagoa** dutenekin (hala nola, sare sozialen kudeaketa, aholkularitza tekniko edo dokumentuen itzulpena). Hortaz, lotura-unitatea ez da «zenbat denbora eskaintzen diodan», «zer lanetan ematen dut balioa» baizik.

Testuinguru-aldaketa **parte-hartze sozialeko eta boluntariotzako moduetan, baina oraindik ere joera berrien zama txikiarekin**.

Parte hartzeko moduen azterketa sakona, askotarikoa eta berritzaileak izan zitezkeenetan arreta berezia jarrita egin arren, ikerketa honen ondorio nagusi bat da **ez dagoela aldaketa oso sakonik partaidetza-esparruan** (beste autonomia-erkidego batean adierazitako moduan), eta **laneko eta komunitatearekin elkar eragiteko barne-prozedura berrietara** (bereziki, geruza digitalean) eta **parte hartzeko modu berri txiki batzuetara** mugatuta garatzen direla.

Gure irizpidearen arabera, **aurretik egindako ikerketa batzuek boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko joera berriak** benetan direnaren **interpretazio okerra** egin dute, ziur asko arestian aipatutako ikuspegi kontzeptualei buruzko eztabaidatik eratorrita. Ildo horretan, **aterki beraren pean jaso dituzte txikiak diren edo gutxiago aztertuta dauden formak** (baina ibilbide luzekoak, hala nola boluntariotza-aniztasuna eta boluntariotza bateratua), **eta**, gure ustez, benetan joera berriak (ezaugarri berriak izateagatik edo talde berriak hartzeagatik) **izango liratekeen batzuk** (esaterako, ziberboluntariotza edo ziberaktibismoa).

Lehenengo kasuan (ekimen **ez-tradizionalak** dira, eta agian, ez dira nahikoa aztertu) garrantzitsuak dira **boluntariotza-aniztasunaren eta boluntariotza bateratuaren** kasuak, baita **arautu gabeko egiturak agertzea** ere, eta zehatz-mehatz, **norbanakoen sustapenekoak**. Gutxiago aztertutako moduak dira, baina ez berritzaileak (horietako askok ibilbide luzea dutelako), eta txikiak izan arren kopuruari dagokionez, partaidetza-eragin handia dute.

Talde horren baitan, nabarmentzekoa da **parte-hartze sozialaren indarra tradizionalki boluntariotzari lotuta egon ez diren gizarte-mugimenduetan**, hala nola **autokudeaketako** aldarrikapenezko ekimenak, **auzo-ehuna, gurasoen** elkarteak edo **kultur- eta kirol-taldeak**. Hain zuzen, horiek boluntariotzako eta parte-hartze sozialeko ekintza ugari dinamizatzen dituzte. Era berean, nabarmentzekoa da **erlijio-mugimenduen** garrantzia (ez ezinbestez kristauak), balioak parte-hartze sozialarekin erlazionatzen dituztelako, baita barneko konpromiso maila handiarekin eta komunitateari lotzearekin ere.

Bigarren kasuan (**berritzailetzat** hartuak zehazki) aurki ditzakegu geruza digitalarekin zerikusi handia duten **parte hartzeko modu berriak** (**ziberaktibismoa eta ziberboluntariotza**) eta **profil berrien** agerpena (azken urteetan **formalizatu** direlako, hala nola etorkinen boluntariotza, edo **ekimen sortu berriak** direlako, ekonomia alternatiboaren edota ondare komunaren arlokoak kasu).

Geruza digitalaren garapenarekin lotutako parte hartzeko modu berrien kasuan, bereziki azpimarratzekoak da **ziberboluntariotza**, oso lotuta dago **lan zehatzak egitearekin** eta (jarraian azalduko den moduan) boluntariotza **ordutegiaren edo kokapen geografikoen menpe egon gabe egiteko aukerarekin**, eta, beraz, laneko eta familiako bizitzako gainerako alderdiekin bateragarriagoa egiteko aukerarekin.



Aldiz, **ziberaktibismoa**, **eragin handiko partaidetza-errealitatea** izan arren, **muga geografikoez harago doa eta zailago da aztertze eta jasotzeko tokiko ikuspuntu batetik**; hain zuzen, ikerketa honen oinarri denetik, nahiz eta *a priori* horretarako joera handiagoa izan zezaketen partaidetza-errealitateak baitan hartu (dinamikagatik, adinagatik eta orientabide tematikoagatik eta kontzeptualagatik).

Profil berriei dagokienez, azpimarratu behar da **oraindik ere talde berriak gutxi agertzen direla** parte-hartze sozialetan eta boluntariotzan. **Esperientzia berriek**, besteak beste, ekonomia, enpresa eta komunitatearekin duten harremana ulertzeko modu berriekin (ekonomia alternatiboa edota ondare komuna) lotutako **boluntariotza teknikotik eta profesionaletik eratorriek** eta **antzina ia salbuespenezkoak izango lirakeen taldeen** (hala nola etorkinak edo adinekoak) **partaidetza-presentzia** handiagoak adierazten dute **aldaketak hasi direla zentzu horretan**.

IKTen eragina parte-hartze sozialean. Ingurunearen eraldaketa-gaitasuna eta parte-hartze sozialaren eta boluntariotzaren arloko erronka nagusietako batzuk konpontzeko aukera.

Parte-hartze sozialeko eta boluntariotzako formen zeharkako elementu eraldatzaile gisa eragin handiena eta ibilbide luzeena izan dezakeen elementua teknologia berriak erakundeei eta taldeei aplikatzea izan daiteke.

Gaur egun, **IKTak, funtzionamendu global eskusiboko modu bat baino gehiago** (oso eskasak dira geruza digitalean soilik jarduten diren ekimenak) **erakundeen lana egiten laguntzeko tresna gisa** erabiltzen dira (jarduera garatzen dute bai aurrez aurreko geruzan, bai geruza digitalean), eta horiei dagokienez, oraindik ere ez dago ibilbide-marjina handirik; izan ere, erakunde guztiek ez dituzte horiek intentsiboki erabiltzen. **Erabilera mailak desberdinak** dira, eta **nolabaiteko arrakala digital** handia egoten jarraitzen du lanean funtsezko aliatutzat hartzen dituzten erakundeen eta erabilera txikiko edo beharrezkoa den kalte bezala ere ikusten jarraitzen dutenen artean.

Nolanahi ere, **IKTek funtsezko funtzionaltasun batzuk eskaintzen dituzte boluntariotzan eta parte-hartze sozialean rolak eta harremanak eraldatzeko**; izan ere, boluntarioen artean **elkar eragin handiagoa** izatea errazten dute, **jarduerak hedatzea** errazten dute (eragina biderkatuz) eta **boluntariotza** laneko eta familiako bizitzarekin **bateragarriago** egiten dute. Gainera eraginkorragoa da (irizpide geografikoetara eta denborazkoetara doitzeko premia kentzen baitu, leku eta ordu jakinetan egoteko betebeharra murrizten baitu).

Alde negatiboari dagokionez, egozten zaie ez direla gai erabaki garrantzitsuenak hartzea ordezkatzeko (horretarako, nahitaezkoa izaten jarraitzen du bilerak, eztabaida eta gogoetak egiteko aurrez aurreko espazioak sortzea), **eguneroko lana inbertsonalagoa egiten dutela** (harreman-dimentsioa eta erakundeko kide izatearen sentipena galtzen dira, kontaktua murriztean), **koordinazio-arazoak** sortzen dituztela (teknologia gehiago erabiltzen duten eta erabiltzen ez duten erakundeen artean) eta parte-hartzetik **kanpo uzten** dituztela **gaitasun teknologiko txikiagoa duten pertsonak** (bereziki nabarmena da adina edo gizartearen eta ekonomiaren nahiz gizartearen eta hezkuntzaren arloko maila bezalako irizpideen arabera).

Azkenik, nabarmendu behar da **IKTek eraldaketa-gaitasun indartsua dutela**, eta **oraindik ere nahikoa erabiltzen ez diren ahalmenak dituztela**. Esaterako, eta belaunaldi-txandaketarako zailtasun handiak dauden eta erakundeen eragin-esparrura kanpoko talde berriak iristen ez diren egoeraren aurrean, **IKTek aukera ematen dute muga geografikoez eta adin-mugez harago joateko eta horiek gainditzeko**, eta, adibidez, eremu geografiko desberdinetako eta jaiotzez digitalak izateagatik teknologia berriak funtsezko tresna gisa dituzten pertsona gazteagoetara jotzeko.



11. BIBLIOGRAFIA.

- Aranguren, L. (Koord). [¿Por qué hacemos lo que hacemos?](#) Una propuesta de debate para el Tercer Sector. Fundación Tomillo. 2007.
- Arnaiz, N. [Mesa redonda: el voluntariado para la inclusión](#). Ponencia. VII Congreso Estatal CERMI. Bolunta. Bilbao 24-25 Noviembre 2011.
- Askunze, C. [Rehabilitación de Barrios y Participación Ciudadana](#). La experiencia en el Área de Bilbao la Vieja. Coordinadora de Grupos por la Rehabilitación de Bilbao la Vieja, San Francisco y Zabala.
- Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. [Barrios en Cifras](#). 2013.
- Ayuntamiento de Bilbao. [Bilbao en Cifras](#). 2012.
- Bañuelos Ganuza, X. [En Busca de la Incidencia Social](#). Estrategias y herramientas para la optimización de la comunicación externa en las entidades sociales. Gobierno Vasco / Consejo Vasco del Voluntariado. 2014.
- Bolunta. [Estudio del Voluntariado en Bizkaia](#). Bizkaiko Foru Aldundia. 2008.
- Chacón Fuertes, F; Pérez Arroba, T; Vecina Jiménez, M. L. [Motivaciones del voluntariado: factores para la permanencia y vinculación del voluntariado](#). En Revista de Documentación Social. Voluntariado: presencia y transformación social. 2011.
- Club de Excelencia en Sostenibilidad. [Estudio sobre el estado del voluntariado corporativo en España](#). Fundación Adecco. 2010.
- Colabora Bora. [Página Web](#).
- Comisión Europea. [Study on Volunteering in the European Union](#). DG EAC / GHK Consulting. 2010.
- Comisión Europea. [Europe for Citizens Programme 2014-2020](#). 2014.
- Coordinadora Aragonesa del Voluntariado. [Tendencias en participación y voluntariado](#). 2012. En aragonsolidario.net
- Dávila de León, M C. [La Incidencia Diferencial de los Factores Psicosociales en distintos tipos se Voluntariado](#). Universidad Complutense de Madrid. 2002.
- Dávila de León, M. C., Vecina Jiménez, M. L y Chacón, F. (2005). Análisis de las tasas de abandono en una muestra de voluntarios y causas más frecuentes. Psicología ambiental, comunitaria y de la educación. Vol.5 .
- Dávila, de León M.C. [Abandono del voluntariado. Tasas de abandono y causas más frecuentes](#). En Comunicación y Ciudadanía. (2008)
- Doval Avendaño, M. y Martínez Rodríguez, B. La [audiencia activa en Twitter: análisis de la retirada de un artículo de opinión en "El Mundo"](#). [Estudios Sobre El Mensaje Periodístico, nº 18](#). 2012.
- ERDU. [Guía del Voluntariado para Organizaciones](#). Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. 2012.
- El Mundo. 15/03/2015. [Un vídeo mató al rey de los delfines](#).
- El País. 15/11/2011. [La Noria se queda sin anunciantes](#).
- Eurobarómetro. [Eurobarometer 273](#). "European Social Reality". 2006.
- Fantova, F. [Acción voluntaria y bienestar comunitario](#). 2014.
- Ferreras Rodríguez, Eva M. [El movimiento 15 m y su evolución en Twitter](#). Telos, Cuadernos de Comunicación e Innovación, nº 89. 2011.
- Fresno, J.M. y Tsolakis, A (autores principales). [Profundizar en el voluntariado: los retos hasta 2020](#). Plataforma del Voluntariado. 2011.
- Fundación Castellano Manchega de Cooperación. Situación del Voluntariado en Castilla la Mancha. Obra Social Caja Castilla la Mancha. 2009.
- Fundación Chandra. [Herramientas y BB.PP. para ONL en el uso de las TIC](#). 2007.
- Fundación Chandra / Centro de Estudios Tomillo. [¿Cómo utilizamos las TIC desde las ONL en España?](#). 2009. En Blog "[La Servilleta de Paco Prieto](#)"
- Gobierno de España. Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad. [Diagnóstico de situación del voluntariado de acción social en España](#). 2011a.
- Gobierno de España. Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad. [Estrategia Estatal de Voluntariado. 2010-2014](#). 2011b.



- Gobierno Vasco. [Ley 17/1998, de 25 de junio, del voluntariado](#). 1998.
- Gobierno Vasco. [Estudio sobre Voluntariado en la CAPV: cuantificación y caracterización](#). 2012
- Gobierno Vasco. [Estrategia Vasca del Voluntariado 2013-2016](#). 2013.
- Grupo Interinstitucional de Investigación sobre el Voluntariado (GTIV). [El voluntariado en España. Identidad, Funciones y Retos para su Fortalecimiento](#). Comunidad de Madrid. 2010.
- INE. [Encuesta de usos del tiempo](#). 2003.
- INE. [Padrón. Población por municipios](#). 2012.
- Komunikatik. Página Web.
- Madrid, A. [Voluntariado, Participación, Desobediencia](#). En Estudios de Juventud, nº 45. Injuve. 1999.
- Madrid, A. La institución del Voluntariado. Trotta. 2001.
- Martínez Martínez, H. [Ciberactivismo y Movimientos Sociales Urbanos Contemporáneos](#). Universidad Católica San Antonio de Murcia. 2º Congreso Nacional sobre Metodología de la Investigación en Comunicación.
- Observatorio del Tercer Sector de Bizkaia. [Libro Blanco del Tercer Sector](#). 2007.
- Observatorio del Tercer Sector de Bizkaia. [Anuario del Tercer Sector](#). 2010.
- Observatorio del Voluntariado. [Así Somos. El perfil del voluntariado social en España](#). Gobierno de España. 2013.
- Observatorio del Voluntariado Corporativo. [Informe sobre Voluntariado Corporativo](#). 2013.
- ONU. [Voluntariado y desarrollo social](#). 1999.
- Peña-López, I. [Voluntariado virtual: acción social en la sociedad red](#). Conferencia en el 6º Congreso Andaluz de Voluntariado. Sevilla: ICTlogy. 2009.
- Pérez Boza, E. [Mapa conceptual del voluntariado: Características Iniciales, Formales y Finales](#). Documento de Trabajo. Universidad Pablo de Olavide. 2008.
- Público. 07/04/2011. [El Mundo retira un artículo en el que Salvador Sostres disculpa un crimen machista](#).
- Sousa Santos, B. Los nuevos movimientos sociales. En Revista del Observatorio Social de América Latina. 2001.
- SIIS. [Análisis Documental sobre Estudios de Voluntariado en la CAPV](#). Gobierno Vasco, Bolunta, Erdu y Gizalde. 2011
- SIIS. [Tendencias, innovaciones y buenas prácticas internacionales en el ámbito del voluntariado](#). En Zerbitzuan nº 51. 2012.
- Suso, A. / Zubero, I. [Voluntariado y Participación Social. Delimitación conceptual](#). Gobierno Vasco. 2013.
- Zubero, I. Voluntariado y acción colectiva. En Montagut, A. (Coord). Voluntariado: la lógica de la Ciudadanía. 2003



ERANSKINAK



1. ERANSKINA AZTERTUTAKO GUNEETAN LOKALIZATUTAKO ERAKUNDEAK, TALDEAK ETA MUGIMENDUAK:

Hau da aztertutako hiru eremuetan lokalizatutako erakundeen eta taldeen zerrenda osoa:

Bilbao	Vitoria-Gasteiz	Zumárraga/Urretxu
AA.VV. de Saralegi "Labetxo"	AEMAR, Asoc. Esclerosis Múltiple	Agifes
AA.VV. de Urazurrutia, Zamakola, Ibaizabal "Uzai"	AMPA Zabalgana Eskola Amezti Itxaso	AMPA Gainzuri Ikastetxea
AA.VV. de Vecinos De Zabala "Zabala Berri"	AMPA Zabalturri Elkartea	AMPA La Salle Legazpi Ikastetxea
ACAME – Asociación Chinguetti de Amigos de los Mauritanos en Euskadi	ASPACE	AMPA Urretxu Zumarraga Ikastola
Africa-Kiese - Asociación Cultural	Berribide Eskaut Taldea	Antxiñako Ama Txistulari taldea:
Agiantza	C.D. Zabalganabide	Asociación de Jubilados Gure Txoko
Al Forkan - Asociación Sociocultural Islámica	Club Basket Ehari Lagunak	Asociación Diabetes Urgadiel
Al Khaimah - Asociación de Inmigrantes Marroquíes	Colabora Vitoria	Atzegi-Txolarte
Al Manar - Comunidad Sociocultural Marroquí en Euskadi	CRESCENDO abesbatza	Bertso Eskola
Albegue Ozanam	Down Araba	Bidea Eginez. Coordinadora Intervención Social
AMPA Miribilla	Errekaberri	Bitartean Asociación Comerciantes
Askabide	Hazi Taldea	CB Alberdi Gaintxu
Asociación Cultural Dos De Mayo	Hirukide	Coordinadora Discapacidad Física Garaia Eiluz
Asociación de Comerciales del Casco Viejo	Ikaslan	Eraldatzen Emakumeen Elkartea
Asociación de Comerciantes de Bilbao La Vieja, San Francisco Y Zabala	IñarGazte Asanblada	Goiargi Abesbatza
Asociación de Pensionistas Y Jubilados "Gure Astialdi"	Itxaropena	Gurutze Gorria
Asociación Deportiva Ibaiondo San Francisco Futbol Club	Mariturri Guraso Elkartea AMPA	Herri Kirol Elkartea
Asociación Fotografica Zuri-Beltza	Nuevo Futuro Familiar	Irrintzi Dantza taldea
Asociación Hegoak Alde	Parroquia Santa Clara	J.M. Iparragirre UZIGE
Asociación Vizcaína de Laringectomizados Y Mutilados de la Voz	Pasabidea	KUn KKinZona Irratia
Bakuva	Txorrosolo aisialdi taldea	La Salle Mendi Taldea
Biharko Gazteak	Vecinos de Aldaia	Mairi Emakumeen Elkartea
Bilbaohistoriko	Zabalgain	Musti Taldea (Errealaren Jarraitzaileak)
Bilbo Zahargarria	Zabalgain Kultur Elkartea	NAGUSILAN RSPV JUBILADOS VOLUNTARIOS GIPUZKOA
Bilbo Zaharreko jai batzordea	Zabalgana Batuz	Ostadar Mendi Taldea
Bilboko Kultur Etxea	Zabalganan Hazi Eta Hezi	UGLE
Centro de Acogida "Beata M ^a Josefa"	Zabalortu	Urola Eskubaloia CB EK
Comisión Ciudadana Antisida		Urretxu - Zumarraga Euskaraz
Coordinadora de Bilbao la Vieja		Urretxu -Zumarraga Argazki
EKO AGC		Urretxu -Zumarraga Gaztetexea
Ekuale		Urretxuko Txistulari Taldea
El huerto de SanFran		Xipi Aisialdi Elkartea
Espacio Plaza Kultur Elkartea		Z M B Zumarragako Banda
Etokinekin Bat		Zintzo Mintzo Elkartea
Euskalherriko Eskautak		
Fulfulde - Djcreendam - Asociación de Inmigrantes		
Fundación Adsis		
Fundación Aldauri		
Fundación Gizagune		
Gaztaroa - Sartu		
Gite Ipes		
Gugaz Aurrera Asociacion Socioeducativa		



Hargindegi Cáritas		
Harresiak Apurtuz		
Hogar De Jubilados de San Francisco		
Izangai		
Kale Dor Kayiko		
Kaleratzerik Ez: PAH Bizkaia		
Kalherritarrak		
La Posada De Los Abrazos		
Lanberri		
Lubaki Agenda		
M15M Bizkaia		
Modulo Psico-Social Auzolan		
Movimiento Ciudadano Distrito 48003		
Muévete! Agenda de movilizaciones de Bizkaia		
Munduko Emakumeak		
Munduko Medikoak-Médicos del Mundo		
Nagusien Egoitza "Bideberri"		
Nevipen		
Oblatas Leiho Zabalik		
Palanca Mendi Taldea		
Plataforma "Sin Colegios en Miribilla"		
San Fran Korue (Coro San Francisco)		
SIGI-SAGA Dantza Taldea		
Solidaridad Internacional		
Sortarazi		
Stop Deshaucios Bizkaia. Gelditu		
Susterra		
Susterra		
Tximeleta Cáritas		
Umeak Kalean		



2. ERANSKINA GIZARTE-ERAKUNDEEI BIDALITAKO GALDEKETA:



**Galdera sorta zk.:
(Eusko Jaurlaritzak betetzeko)**

EAE-KO HIRU UDALERRITAKO BOLUNTARIOTZAREN JARDUERARI ETA GIZARTE PARTAIDETZARI BURUZKO AZTERLANA

**FAMILIA POLITIKAKO ETA KOMUNITATE GARAPENEO ZUZENDARITZA
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
EUSKO JAURLARITZA**

GALDERA SORTA KUALITATIBOA



Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 10a

Galdera sorta honen helburua ikuspuntu zabalago eta malguago batetik **erakundeetako gizarte-partaidetzaren modu eta figura berriak ezagutzea da, boluntariotzaren ohiko figura alde batera utzita.**

Azken urteetan, **aldaketa gertatu da gizarte-partaidetza boluntarioan eta lan egiteko modu berriak** (presentziala ez ezik, Internet bidezkoa ere), **funtzio berriak** (boluntariotzako ohiko zereginen gain) eta **parte hartzeko sistema berriak** (ordu gehiago edo gutxiago, puntualak, etab.) sortu dira.

Halaber, **parte hartzeko egiturak** aldatu dira. Hala, badaude beren inguruan gizarte-partaidetza kudeatzen duten **formalki eratu gabeko erakundeak** (erregistratu gabekoa edo forma juridikorik ez dutenak), baita kanal berrien bidez jarduten dutenak ere, adibidez, Internetez.

Hori dela eta, azterlan honen bidez, egitura osoagoa duten erakundeen egoera ez ezik, **gizarte-partaidetza gauzatzen duten erakunde berriagoen, txikiagoen edota formalki eratuta ez dauden** egoera aztertu nahi dugu (adibidez, elkarte gisa erregistratuta ez daudenena).

Halaber, **Internetek** gizarte-partaidetzan izan duen eragina aztertu nahi dugu, presentziala ez den lankidetzarik badagoen eta zer funtzio egiten dituen jakiteko.

Helburu horrekin **oinarri kualitatiboko azterlan** hau sortu dugu eta profil soziodemografiko, sozioekonomiko eta soziogeografiko ezberdinak eta osagarriak dituzten hiru lekutan egingo dugu: Bilboko Alde Zaharra eta Bilbo Zaharra, Gasteizko Zabalgana eta Zumarraga (Gipuzkoa).

Gaia bertatik bertara ezagutzen duzunez, hurrengo galdera sortari erantzuteko eskatu nahi diguzu:

- Bete erantsitako fitxategia eta bidali eduardo@ado2.es helbide elektronikora.
- Egin klik [esteka](#) honetan eta erantzun online.

Abenduaren 5a baino lehen bete behar da. Edozer zalantza izanez gero, jarri harremanetan Ado2 azterlana egiteko enpresa esleipenduneko Eduardo Díazekin 94 415 00 19 telefono zenbakian edo eduardo@ado2.es helbide elektronikoan.



ERAKUNDEAREN IZENA	
ERANTZULEAREN IZENA	
ERANTZULEAREN KARGUA	
TELEFONOA	
HELBIDE ELEKTRONIKOA	
TWITTER	

ERAKETA ETA ANTOLAKETA
Zuen erakundea, zertan aritzen zareten, formalki eratuta dagoen (elkarte, fundazio, eta abar gisa erregistratu zareten) eta abar ezagutu nahi dugu.

Zer lan egiten dituzue nagusiki erakundearen? Zer helburu ditu?

Formalki eratutako erakundea da? Elkarte, fundazio, eta abar gisa eratuta dago?	
BAI	EZ
Egitura formala baduzue... Zergatik eratu zarete elkarre, fundazio, eta abar gisa? Zuen ustez, zein dira egitura formala edukitzearen abantailak? Eta desabantailak?	Egitura formalik EZ baduzue... Zergatik erabaki duzue elkarrekin edo fundaziorik EZ eratzea? Zuen ustez, zein dira egitura formala ez edukitzearen abantailak? Eta desabantailak?

Baduzue harremanik beste elkarte edo talde batzuekin? Edukiz gero, azaldu labur. Zer elkarterekin zaudete harremanetan? Zer motatako harremanak dira? Zer helburu dituzte? Harreman puntualak dira edo lankidetzaz luzeagoa da?



GIZARTE PARTAIDETZA

Azaldu labur zer pertsonok osatzen duten erakundea.

Boluntarioak dira denak ala baduzue soldatapeko langilerik?

--

Soldatapeko langilerik izanez gero,... lanpostuei dagozkien eginkizunez gain boluntariotzako lanak egiten dituzte? Hau da, badago soldatapeko lana eta lan boluntarioa egiten duen pertsonarik?

--

Boluntarioki parte hartzen dutenen kasuan, zer funtzio edo lan egiten dituzte?

--

Zehatzago esanda, aurretik azaldutako funtzioez gain, hauetako lanen bat egiten al dute?

Kudeaketa, kalitatea eta administrazioa Erakundea kudeatzeko lanak (gerentzia), kalitateko lanak (barne-prozesuak, kalitate-arauak) edota administraziokoak.

--

Komunikazioa, diseinua eta sare sozialak Komunikazioan laguntzeko zereginak (erakundearen komunikazioa, sare sozialak kudeatzea, etab.) edota diseinu grafikokoak (kartelak, liburuxkak, etab.).

--

Itzulpengintza eta hizkuntzak Edukiak beste hizkuntza batzuetara itzultzea, beste hizkuntza batzuetako dokumentazioekin lotutako lanak, etab.

--

Prestakuntza Erakundeko soldatapeko langileak edo boluntarioak prestatzen laguntzea.

--

Erakundeko partaideen profila

Zenbat kidek osatzen duzue?

--



Horietatik, zenbat dira erakundearen ohiko laguntzaileak?

--

Zein da parte-hartzaileen profila?

Emakumeak ala gizonak izaten dira?

--

Zein adin-tartetakoak? (18-35 urte, 36-45 urte, 46-64 urte, 65 urte eta gehiago)

--

Zer ikasketa dituzte? (oinarrizkoak, erdi mailakoak edo goi mailakoak)

--

Zer hizkuntzatan hitz egiten duzue? Gaztelaniaz? Euskaraz? Beste hizkuntza batean?

--

Nola hartzen dute parte boluntarioek? Bertaratuta? Internet bidez? Azaldu labur erabiltzen duzuen eredia.

--

Partaidetza puntuala da? Edo jarraikakoa da? Azaldu zenbat ordu ematen dituzuen, partaidetzaren maiztasuna eta abar.

--

Parte hartzaileei dagokienez, Zerk motibatzen ditu? Zergatik egiten dute?

--

Nola ikusten dute beren burua parte hartzaileek? Boluntario moduan? Militante moduan? Laguntzaile moduan? Gizarte aldaketaren parte hartzaile aktibo gisa?

--



ERAKUNDEA ETA INTERNET

Zer eragin izan dute Internetek eta tresna digitalek erakundeetan eta parte hartzaileengan?

Baduzue halakorik erakundeetan?	BAI/EZ	Erabiltzen duzue? Azaldu zertarako
Posta elektronikoa		
Webgunea		
Bloga		
Sare sozialetako profilak		
Internet mugikorra (Whatsapp, Line, etab.)		
Bestelakoak (zehaztu)		

Badago Internet bidez laguntzen duen pertsonarik? Baiezko kasuan, azaldu labur.

Modu presentzian laguntzen dutenek eta modu ez presentzian egiten dutenek zeregin ezberdinak dituzte? Zein?

Erabiltzen duzue Internet kanpoan dauden boluntarioekin koordinatzeko (adibidez, etxean daudenekin)?

Azkenik, erakundeko gizarte-partaidetza boluntarioaren zer portzentaje da presentziala eta zer ez presentziala?

Bien baturak % 100 izan beharko du. Adibidez: % 30 presentziala eta % 70 ez presentziala.

Gizarte-partaidetza boluntario presentziala (erakundera bertaratuta)

% 0	% 10	% 20	% 30	% 40	% 50	% 60	% 70	% 80	% 90	% 100
-----	------	------	------	------	------	------	------	------	------	-------

Gizarte-partaidetza boluntario EZ presentziala (etxetik, Internet bidez eta abar laguntzen du)

% 0	% 10	% 20	% 30	% 40	% 50	% 60	% 70	% 80	% 90	% 100
-----	------	------	------	------	------	------	------	------	------	-------

Mila esker zure laguntzarengatik.